
Euskal Autonomia Erkidegoan galtzeko zorian dauden nekazaritza baliagaien prospekzioa eta haien egoeraren ebaluazioa



Euskalherriko hazien sarea
Red de semillas de Euskadi

Euskal Herriko Hazien Sarea, 2007

Izenburua: Euskal Autonomia Erkidegoan galtzeko zorian dauden nekazaritza baliagaien prospekzioa eta haien egoeraren ebaluazioa

Ikertzaile nagusia:

Deiene Rodriguez Izagirre

Lan taldea:

Jaime Ortiz de Urbina
Helen Groome
Elena Sauca
Marcelino Santiago

Aurkibidea

1. Laburpena	4
2. Sarrera	5
3. Tokiko barietateei buruzko ikerketen aurrekariak	13
4. Metodología	
4.1. Informazio edo bibliografia bilketa	14
4.2. Tokiko barietateen definizioa	14
4.3. Laginketa	15
4.4. Datuen tratamendua	17
4.5. Barietateak desagertzeko arriskuaren ebaluazioa	19
4.5.1 Ebaluaziorako aukeratutako faktoreak	19
4.5.2 Ebaluaziorako diseinatutako ereduaren deskribapena	21
5. Lagindutako eremuaren ezaugarriak	24
5.1. EEaren ingurune fisikoa	24
5.1.1. Geografia eta erliebea	24
5.1.2. Litología	24
5.1.3. Klima	24
5.1.4. Ur baliabideak: drainatze sarea eta urtegiak	25
5.2. Nekazaritza jardueraren eboluzioa	26
6. Laginketen emaitzak	28
6.1. Datuen aurkezpena	28
6.2. Arabako laginketa	32
6.2.1 Emaitzak eskualdeka	33
6.2.1.1 Gorbeialdea	33
6.2.1.1 Arabako Haranak	34
6.2.1.1 Kantauri arabarra	36
6.2.1.1 Arabako Lautada	37
6.2.1.1 Arabar Errioxa	38
6.2.1.1 Arabako Mendialdea	40
6.2.2 Emaitzak barietateen arabera	41
6.3. Gipuzkoako laginketa	44
6.3.1 Emaitzak eskualdeka	44
6.3.1 Deba Goiena	44
6.3.1 Urola Kosta	46
6.3.1 Debarbarrena	47
6.3.1 Tolosaldea	49
6.3.1 Goierri	50
6.3.1 Donostialdea	51
6.3.1 Bidasoa Beherea	52
6.3.2 Emaitzak barietateen arabera	53

6.4. Bizkaiko laginketa	56
6.4.1 Emaitzak eskualdeka	56
6.4.1 Plentzia-Mungia	56
6.4.1 Bilbo Handia	58
6.4.1 Arratia-Nerbioi	61
6.4.1 Durangaldea	63
6.4.1 Gernika-Bermeo	65
6.4.1 Markina-Ondarru	67
6.4.1 Enkarterriak	69
6.4.2 Emaitzak barietateen arabera	70
6.5. Emaitzen laburpena EEA mailan	75
7. Ebaluazioa	86
7.1. Tokiko barietateak gordetzen dituzten baserritarrak	86
7.2. Tokiko barietateen erabileraren hedapena	89
7.3. Azoketan saltzen diren tokiko barietateak	98
7.3.1. Bizkaiako azoketako barietateak	98
7.3.2. Gipuzkoako azoketako barietateak	99
7.3.3. Presentziaren bilakaera azoketetan	100
7.4. Galtzeko zorian dauden barietateen zerrenda	101
8. Ondorioak	113
8.1. EEako tokiko barietateak	113
8.2. Landa barietateetan eragin txarra duten faktoreak	114
8.3. Landa hazien erabileran baikorki eragiten duten faktoreak	115
9. Proposamenak, nekazaritzako biodibertsitatea galtzea ekiditeko	116
Bibliografia	120
Eranskina I	
Eranskina II	

Euskal Autonomia Erkidegoan galzorian diren nekazaritza baliagaien prospekzioa eta haien egoeraren ebaluazioa

1. LABURPENA

Euskal Autonomia Erkidegoan oraindik badago baratzeetako tokiko barietateen aniztasun handia. Laginketan, aurkitu izan diren 27 espezieetako 96 barietate desberdin sailkatu dira. Azpimarratu beharra dago, nahiz eta EAE osoan laginketa egin izan, denboraldi zehatz bateko datuak direla, 2005-2007, eta tokiko barietateak gorde eta elkartrukatzen dituzten pertsonen kopurua alda daitekeela. Honez gain, aurkitutako barietate eta espezieen kopurua ere alda daiteke, sailkapen zehatza lortzeko asmotan, botanika karakterizazioa edo analisi genetikoa egiten baldin bada. Hala ere, asko galtzeko zorian daude. egin izan den balorazioan %2a bakarrik arriskuan ez leudeke eta %1a arrisku ertainan egongo litzateke. Arrisku altua daukaten barietateak ordea, %27a osatzen dute eta muturreko arriskuan daudenak, gehiengoa, %70ra heltzen dira.

Elkarrizketatu ditugun nekazariak gordetzen dituzten barietateen artean, %84a, belaunaldiz belaunaldi igaro diren tokiko barietateak dira, eta 100 urte arteko antzinatasuna dute. Bestetik, elkartruke bidez lortu diren barietateak, %15a osatzen dute eta 5 eta 60 urte arteko antzinatasuna ohi dute. Elkarrizketatu diren nekazari gehienak, 60 urtetatik gorakoak dira eta gehienek (%94) nekazaritza konbentzionala egiten dute. Gazteen proportzio txiki batek (%6), nekazaritza ekologikoan dihardu. Aurkitu diren nekazaritzako barietate hauetatik, gehien erabiltzen direnak; Tolosako indaba eta Gernikako indaba, entsalada tomatea, piper txorizeroa, tokiko letxuga eta porrusalda kalabaza eta kalabazin berdea dira.

Tokiko barietateen bizirautea bermatuko duten neurri politiko eta praktikokoak beharrezkoak dira; horien artean, beharrezkoa ikusten da, nekazarien artean elkartruke askea eta komertzializazioa bermatzen duten oztupoak gainditu, barietateak baratzeetan erabiltzea, genetikoki eraldatuta dauden organismoen kutsadura saihestu eta azkenik, kontsumitzaileek, tokiko barietateak kontsumitu dezaten sustatu. .

Hitz gakoak: Biodibertsitatea, tokiko barietateak, nekazaritza

2. SARRERA

Nekazaritzaren sorrera

Milaka urte dira gizakiak elikatzeko basa landareak erabiltzen hasi zirela. Landare horiek ezagutu ahala, haien bizi-zikloan nahita esku hartzeari eta landatzeari ekin zioten, eta oraingo nekazaritzaren oinarriak ezarri zituzten. Nekazaritza zelan sortu zen ez dakigu zehazki. Artoa Ertamerikan edo garia Sirian duela 10.000 urte baino lehen ereiten zeneko aztarnak badaude, hala ere. Toki horietan nekazaritzaren sorrerak koeboluzio prozesu bati hasiera eman zion. Gizartearen eboluzioa ekarri zuen, *zibilizazio* izenez ezagutzen den egitura soziala; eta, aldi berean, landatzen ziren espezieek mikroeboluzioa jasan zuten. Horrenbestez, landareetan aldaketa morfologikoak, fisiologikoak eta genetikoak gertatu ziren, haien basa leinua zein den ezagutzea zail bihurtu arteraino. Gertaera edo fenomeno horri *etxekotzea* deritzo (Tardío, J. et al., 2002). Etxekotzea artoarekin, gariarekin, arrozarekin eta artatxikiarekin hasi zen, eta beste hainbat espeziatarazabaldu zen. Urteetan zehar, nekazariak landareak aukeratu zituzten; beren nahiei, lehentasunei eta ingurugiro baldintza espezifikoiei erantzun hobea ematen zieten landareak, alegia. Horrela, milaka barietate lortu zituzten, desberdinak eta genetikoki bakarrak.

Nekazaritza, Kristo aurreko 3000. urtean heldu zen Euskal Herrira. Horrela egiaztatzen dute Galdamesko Arenaza kobazuloko eta Arabako Errioxako Bilarrerriko Los Husos kobazuloko aztarnak. Nekazaritza, lehenik eta behin, Arabako, Nafarroako eta Lapurdiko haranetan zabaldu zen, orografikoki, klimatikoki eta edafologikoki toki egokiagoak baitziren. Mende batzuk geroago, lehenago erromatarren eta geroago musulmanen eraginez, nekazaritza arloan garapen itzela izan zuten.

Bitartean, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa hezean eta Zuberoan, hosto galkorreko baso eta landa zabal natural ugari zegoen, eta artzaintza zen jarduera nagusia. Toki horietan, nekazaritza motelago hedatuz joan zen. Abeltzaintza Erdi Aroa arte izan zen nagusi, nahiz eta horrekin batera basa fruituak biltzen eta ehizan edo arrantzan ere aritzen ziren. Erdi Aro behean, Euskal Herriko iparraldean, autokontsumorako nekazaritza ezartzen joan zen. Garai hartan, garia eta mahatsa landatzen ziren.

XVI. mendearekin batera, eta hazkunde demografikoak lagunduta, nekazaritza hedatu egin zen; batez ere, Ameriketarik etorritako landareak (tomatea, artoa, patata,...) ekarri zituztenean, landare horiek leku hezeetara hobeto moldatzen baitziren. XIX. mendean, industria iraultza eta garraioaren garapenarekin batera, autokontsumorako ekoizpenaren beharra txikiago bihurtu zen, eta abeltzaintzak iparraldean berriro indarra hartu zuen. Hego isurialdeko bailaretan, aldiz, XX. mendearen etorrerak mekanizaziora eta monolaborantzara bideratu du nekazaritzaren garapena. Ondorioz, abere hazkuntza nekazaritzatik erabat banandu du eta autokontsumorako landaketak ere eskasagoak bihurtu dira.

XX. mendean, nekazaritzan izandako aldaketa teknologikoen ondorioz, hainbat aldaketa gertatu zen landare baliagaien erabileran eta elikaduran. Alde batetik, basa landareen erabilera gutxituz joan zen. Landare espezie gehienak jangarriak edo erabilgarriak ziren, eta elikaduran toki handia hartu zuten. Adibide gisa, Veracruz estatuko Expana herrian (Mexiko) nekazariak 435 espezie desberdin erabiltzen dituzte oraindik ere, gehienak basa espezieak, eta Mendebaldeko Bengalako arroz-soroetako 124 basa espeziak garrantzitsuak dira bertako nekazariantzat.

Bestalde, antzina landatzen ziren espezieen artetik, gaur egun 150 soilik lantzen dira. (Crowe, 1997; Brooker, et al, 1998). Landatutako espezie horietatik hamabirekin soilik gizateriaren hiru laurdenak elikatzen dira. Eta are esanguratsuagoa dena: adituek megakultibo izenez ezagutzen dituzten espezieekin (arroza, garia, artoa, sorgoa, artatxikia, patata, batata) planetaren erdia elikatzen da. Euskal Herrian, esaterako, baratzeetatik perraitza, txiribia eta aixkola bezalako espezieak desagertu egin dira.

Biodibertsitatearen murrizketa nabariagoa da beste maila batean: espezieen barruko aniztasunari bagagozkio. Aspaldi espezie bakoitzaren ehunka edota milaka tokiko barietate bazeuden ere, egun gehienak galdu egin dira. Nazio Batuetako Nekazaritza eta Elikagaien Erakundeak (FAO) dioenez, XX. mendearen hasieratik gaur egunera arte, nekazaritza biodibertsitatearen % 75 galdu da.

Galera honen arrazoiak hainbat dira:

- ❖ Landareen etekinak denbora eta lursail unitateko hobetzarren teknika berriak erabili izanaren ondorioz, nekazaritzaren eraldaketa eragin da, aspaldiko barietateen hainbat ezaugarriak (intsektu etsaiekiko berezko erresistentzia, lehortea jasateko gaitasuna, loraldiaren iraupen luzea,...) garrantzia galdu dute, eta bestelako barietateak, hibridoak edota laborategietan sortutakoak, sustatu dira, etekin handiagoak ematen dituztelako eta uzta mekanizatura egokitzen direlako, ongarri nitrogenatu eta produktu kimiko ugari (esate baterako, herbizidak eta fungizidak) behar badituzte ere. Barietate horiek, garai batean gertatu zen Iraultza Berdearen aurrerapausotzat jo zituen askok, munduko toki askotako nekazaritza ekoizpena handituko zelakoan. Baina horrek *gainbehera genetikoa* ekarri du; hots, espezieen galera, barietateak gutxitzea eta baita biodibertsitatearen eboluzioan parte hartzen duten prozesuen etenaldia.
- ❖ Honekin batera, legeria aldatu da fito-hobetzailen eskubideak babesteko nekazariak haziak modu askean gorde eta trukatzeko daukaten eskubidearen kaltetan, gainera, gero eta gehiago hazien arloko enpresa handiek kontrolatzen dituzte interes horiek.

- ❖ Beste lege aldaketa batek bariedade baten erregistroa behartu du merkaturatu ahal izateko, hots, saldu, trukatu edota oparitu ahal izateko. Honen ondorioetariko bat da bariedade baten homogeneousuna eskatzen dela katalogatu eta merkaturatu ahal izateko. Aipatu homogeneousuna egungo bariedade hibridoen ezaugarri bat da, hauek oinarri genetiko estuagoa daukatelako, *landare klonal* direlakoek osatua. Hala ere, tokiko bariedade gehienak genetikoki homogeneousoak ez direnez, bat-batean berauek erregistratzea eta, ondorioz, merkaturatzea debekatu egiten da, baita nekazaritzaren biodibertsitatearen sormenaren eta mantenuaren oinarri historikoa den hazien trukaketa ere (informazio gehiagorako, ikus beherago).
- ❖ Nekazariak ekoizpen sistema homogeneousoak eratu dituzte tokiko bariedade asko desagerrarazi dituen merkatuaren globalizazioaren eskakizunei erantzun ahal izateko.

Horrela, nekazaritza sistema berri horrekin, nekazariak urteetan zehar egin izan dituzten kontserbazio lanak eta antzinako bariedadeen trukeak eragotzi dira. Ondorioz, tokiko bariedade asko desagertu egin dira. (Rodriguez Entrena, M., 2004), gehienak azken mende honetan. Mundu osoan gertatu den zerbait izan da, sistema ekonomiko oso desberdin batzuetan ere oso indartsua izan dena. Indian hamarka mila arroz bariedade erabiltzen baziren ere, egun soilik dozena batek arroz-soroen hiru laurdenak hartzen dituzte; Txinan 1949an landatzen ziren 12.000 gari bariedadeetatik 11.000 desagertu dira; eta AEBetan orain dela mende bat landatzen ziren aza, arto eta ilar bariedadeetatik % 90 desagertu dira (Shand, 1993). Ikerketa honen helburuetariko bat da zehatzea euskal nekazarien aurreko belaunaldiek utzitako nekazaritza eta genetika ondarearen zein zatik jarraitzen duen bizirik euren soroetan.

Biodibertsitatea nekazariak dagozkien hainbat faktorek ere osatzen dute, hala nola, nekazarien ekoizpenak, uztaren inguruko jardunbideak eta elikagaien prestaketak, era berean herriaren kulturatzat jo ditzakegunak. Basa landareak bertan behera uztean, horien inguruko herri jakintza desagertuz joan da. Egoera horren aurrean, ondare kulturala kontserbatu nahi bada, herri jakintza horiek erregistratu eta dokumentatu beharra dago (Tardío J., 2002). Basa edo tokiko bariedade bat gordetzea bezain garrantzitsua da hari lotutako jakintza gordetzea: nola landatu, nola gorde, nola erabili elikaduran.

Nazio Batuetako Nekazaritza eta Elikagaien Erakundeak (FAO) dioenez, eskuragarri dauden bariedade guztietatik % 3 baino gutxiago erabiltzen dira, eta ez erabiltze horrek, bariedade horien desagertzea ekar lezake.

Tokiko bariedadeak

Tokiko bariedadeak edo bariedade tradizionaltzat jotzen direnak, urteetan zehar nekazarien familiek egindako hobekuntza eta aukeraketaren ondorio dira, eta bizi diren tokiko baldintzak jasateko moldatuta daude (Dominguez, 1999). Iraganean egin izan diren nekazaritza mota desberdinek nekazaritza biodibertsitatea sortu eta kontserbatu dute. Egun, *nekazari bariedade* ere deitzen zaie.

Barietate horiek konposaketa heterogeneoa dute eta eremu jakin batean dauden baldintza zehatzetara moldatuta daude. Populazio heterogeneoak direnez, ingurugiroan gertatzen diren perturbazioen aurrean egonkortasuna eta berreskuratze gaitasuna dute barietate horiek (Guzmán Casado et al, 2000). Tokian garatutako barietateei toki horretako balio kulturalak lotu ohi zaizkie.

Ez dago adostasunik zehazteko zer den tokiko barietate bat. Badaude oso definizio zabal batzuk, gutxieneko finkapena daukaten barietateak onartzen dituztenak, eta zorrotzagoak diren beste batzuk. Jaso dugun azken definizioa Louette et al-rena da; "tokiko barietate dira gutxienez 30 urtez leku berean egon direnak, hots, eta beste modu batez esanda, belaunaldiz belaunaldi, gurasoengandik seme-alabengana igaro diren barietateak" (Louette, 2000; Latournerie Moreno, L.,2006).

Biodibertsitatearen garrantzia

XX. mendean nekazaritza ekoizpenerako teknologia berrien edo Iraultza Berdearen zabalpenaren ondorio bat izan da nekazaritza intentsiborako diseinatuta dauden barietate gutxi batzuk erabiltzea, eta, beraz, barietate begetalen dibertsitatearen galera ekarri du. Biodibertsitatearen galera ez da herri baten ondareari bakarrik eragiten dion gertaera. Galera horren garrantzia alor askotara zabaltzen da.

Gizakion elikadura beharrak asetzeko aldatu eta sinplifikatzen diren ekosistemek nahitaez jasan behar dituzte izurriteen edo landatutako landareentzat kaltegarriak diren zenbait izaki bizidunen populazio kopuru ez-ohizkoen kalteak. Nekazaritza literaturan jakina da, landare biodibertsitatea murriztuz gero, patogeno eta herbiboroen izurriteen gehipena ematen dela (Andow, 1991; Altieri, 1994). Landare biodibertsitatearen galerak, eta ondorioz sortuko liratekeen epidemia arazoek nekazaritza ekosistemen funtzionamenduari eragin diezaioke. Ondorioz, ondorio kaltegarriak sortuko lirateke nekazaritza ekoizpenean eta iraunkortasunean.

Dibertsitate genetikoa, agente patogenoen kontrako tresna garrantzitsua da. Halako jardunbideak dira, adibidez, erresistentzia handia eta gene desberdinak dituzten hiru edo lau barietate konbinatzea, edo hainbat patogenorekiko erresistentzia horizontala ematen duten gene dibertoak dituzten barietateak erabiltzea (Wolfe, 1985). Ezaguna da Peruko tomate barietate baten kasua ere. *Fusarium* onddoarekiko erresistentzia dauka, orain merkaturatzen diren barietate gehienen parental gisa erabili izan ohi dena. Genetikoki heterogeneoak diren zereal monolaborantzei dagokienez, esperientzia asko daude, batez ere, oloa (*Avena sativa*), garagarra (*Hordeum distichon*) eta garia (*Triticum sp*) bezalako laboreetan. Milaka hektareako landaketak izan arren, ez dituzte jasan landako gorrinaren (*Puccinia spp*) kalteak.

Landare hobekuntzan lan egiten dutenek, haien ahalegina bideratzen dute errendimendu altua duten barietateak lortzera; baina horiek, aldi berean, ongariak behar dituzte. Beraz, lur pobreetan edo aurkako baldintzak dituzten lurretan emaitza kaskarra izan ohi dute. Toki horietan, batez ere, barietate berri horiekiko erresistentziari eutsi egin zaio, eta tokiko barietateak mantendu egin dira. Nekazari horiek, urteetan zehar, haien laborantzetako haziak erein eta aukeratu dituzte, beraien behar espezifikoerentzuz.

Antzinako barietateak edo tokiko barietateak, gaur egun nekazaritza ekologikoan erabiltzen diren jardunbide askoren ondorioz garatu dira (produktu kimikoak erabili gabe, eta abar). Zekaleen antzinako barietateak, biltze mekaniko bidezko biltzea egiterakoan, arazoak sortzen zituzten, lasto luzeak "enkamatu" edo etzateko joera zutelako. Hala ere, belar txarrekiko konpetentzia aise ekiditen zuten: berehala altuera hartu, besteak gainditu eta ito egiten zituen belar txar horiek. Bestalde, sagarren tokiko barietate askok ez du tratamendurik behar, barietate komertzialek ez bezala. Hortaz, nekazaritza ekologikoan, uztaren errendimendua ez da faktore garrantzitsua.

Espezieen eta barietate batzuen lantzeak koeboluzioa deritzogun fenomenoak ekarri du. Tokiko komunitateek haien laboreen hautaketa egin izan dute, haien nahien, gustuen eta ohituren arabera; baina, hala ere, laboreek ere herri eta komunitateetako kultura aldatu eta bideratu dute. Horren adibidea artoa dugu: artoak 300 erabilera desberdin ditu, dataturik daudenak. Juarez mendizerrako (Mexiko) talde indigena zapotekentzat artoa sakratua da: "Erdialdeko Amerikako indiarrek artoz eginda gaude". Artoa, erein aurretik bedeinkatu egiten da, eta zulo bakoitzean lau garau botatzen dira, ohitura paganoak dioena errespetatuz. Haien hizkuntzari lotuta dago, eta zapoteka hizkuntza galduz joan den neurrian galdu dira artoarekin zerikusia duten hainbat ohitura ere. Euskadin, era berean, artoa hirurehun urtez landu izanak, artoari atxikitako kultura utzi du, hainbat barietateekin egiten diren erabilerak adibide (morokila, taloa, bizarren sopak, bazka artoa, birrintzea...). Pentsatzekoa da Hermuan eta Larrean (Araba) egiten diren Barteia edo Labarteia jaiak artoaren inguruko kulturaren oinarrituta daudela.

Beste gramineo batzuez gauza bera esaten dezakegu. Hortxe ditugu Indiako arroza, Afrikako artatxikia edo Iberiar penintsulako ipar-mendebaldeko zekalea. Zekalea Galizia, Asturias eta Leongo herri askotan, animalientzako janari, ogia egiteko irin, otzaragintzarako lehengai eta etxeetako teilatu izan da. Gaur egun, zekale barietate altuak galdu izanak oztopatu egiten du teilatuak egiteko antzinako kultura berreskuratzea.

Legeen oztopoa

Legeriak tokiko barietateak *in situ* zaintzeko ekartzen dituen arazoak aipatu baditugu ere, azpimarratu behar da eragozpen praktikoa dela nekazaritza biodibertsitateari eusteko. Biodibertsitatearen inguruko nekazaritza politikaren azken aldaketak gorabehera, 1960ko eta 1990eko hamarkadetako legediak tokiko barietateen merkaturatzearen aurrean muga gaindiezinak ezarri ditu.

Gaur egun hazien merkatua, estatu osoan, 11/71 Legeak eta 442/1986 Errege Dekretuak ezarri zituzten betebeharrak eta debekuek arautzen dute. Hiru betebeharrak jarri dizkiete haziei:

Ekoizpeneko araudi teknikoa bete behar dute.
Barietateen erregistro ofizialean izena emanda izan behar dute.
Administrazioak baimendutako ekoizleek ekoiztuak izan behar dute.

Hortaz, nekazariak ezin dituzte erregistratu gabeko barietate horien haziak trukatu, ezta saldu ere.

3/2000 Legeak (2000ko urtarrilaren 7koa) landare lorpenen babesak eta enpresa ekoizleen eskubideak garbiago finkatzen ditu, nekazarien urtetako jardunbideen aurka eta haien kaltetan.

Iazko uztailaren 26an onartutako 30/2006 Hazien Legearen (hazien, hazitegietako landareen eta baliagai fitogenetikoaren gaineko legea) ondorioek egoera zertxobait alda dezakete, baina hala ere, araudiaren garapenak argiago azalduko du (Red de semillas "Resembrando e intercambiando", 2006).

Geroago, 98/95/CE Arteztarauak genetikoki eraldatutako organismoen erabilera atzeman zuen, nekazaritza ekoizpen ekologikoa arautu behar zela onartu eta biodibertsitatea kontserbazio barietateen erregistroa sortu zuen. Han, tokiko barietateak erregistra daitezke, *kontserbaziorako barietateak* izenpean

Lege horrek hazien inguruko eta nekazaritza biodibertsitatearen galeraren inguruan europar arteztarauak diotena laburbiltzen du (1994ko ekainaren 20ko kontseiluko (EK) 1467/94 Araudia: nekazaritza sektoreko baliabide genetikoen kontserbazioa, karakterizazioa, bilketa eta erabilera). Hartara, barietate horien kontserbazioa bermatzen du, barietate komertzialei oztopo egiten ez badie. Berritoki ere hazien arloko enpresa handien interesak nagusitzen zaizkio nekazaritza eta genetika ondarearen defentsari, eta honek izugarri zailtzen du Europar Batzordearen Nekazaritza Biodibertsitatearen aldeko Jarduera-Plana betetzea.

Hala ere, arazo burokratiko, tekniko eta filosofiko pila gainditu behar da tokiko barietateak erregistratu ahal izateko, baita *kontserbaziorako barietateen* erregistro batean erregistratzeko ere, Europako Hazien Sare batzuek egindako eztabaida, izapide eta proposamen ugariak islatzen duten bezala.

Euskal Herriko Hazien Sarea zer da

Euskal Herriko Hazien Sarea, EHNE nekazari sindikatuaren barnetik 1996tik aurrera bultzaturiko ekimenetan du jatorria. Gernikan sortu zen, baratzeetako tokiko barietateei buruzko hitzaldi jardunaldi baten ondorioz. Jardunaldi haietan, izan ere, hazien truke eta kontserbaziorako sare bat sortzeko oinarria sortu zen. 2001ean elkarte burujabe eta izaera propioz erregistratu zen.

Honako hauek dira besteak beste Euskal Herriko hazien sarearen zereginak:

Tokiko barietateen berreskurapena.

Nekazariak haziak ereiteko, gordetzeko eta manipulatzeko dituzten jakintza aztertzea eta ezagutzea, baita barietateen erabilera eta haiei loturiko ohituren ezagutza ere.

Tokiko barietateak erabiltzeko eta hedatzeko legearen aldetik dauden trabak ezagutzea eta eragozteak.

Hazien banku bizia mantentzea.

Kontsumitzaileen artean tokiko barietateekin egindako elikagaien erabilera sustatzea.

Orain arte egin izan diren ekimenak ondoko puntuetan laburbiltzen dira:

Barietateen kontserbaziorako eta haziak eskuratzeko gida argitaratzea eta zabaltzea.

Baserrietan prospekzioa egitea eta haziak biltzea eta tokiko barietateak dituztenen datu-base bat sortzea.

Estatu eta Europa mailako jardunaldi eta batzarretan parte hartzea.

Orain arte lortutako tokiko hazien barietateen katalogoa argitaratzea

Tokiko barietateen egutegiaren argitalpenaren bidezko sentsibilizazioa.

Tailerrak ikastetxeetan burutzea.

Bioaniztasunaren IV. Azoka antolatzea.

Hazizaleen bidez haziak berrizatzeko prozesua.

Piper, letxuga, babarrun eta arto barietateen karakterizazioa.

Tokiko barietateak genetikoki eraldatutako organismoen kutsaduratik babesteko kanpainen parte hartzea.

Ikerketa honen helburuak

Oraindik gure baserrietan gordetzen diren barietateak ezagutzeko, deskribatzeko, haien onurak zabaltzeko eta kontserbatzeko lehen urratsa ematea, baita oro har, barietate horien egoera zein den aztertzea ere.

Lan honen helburu nagusia da Euskal Autonomia Erkidegoan galzorian diren baliabide begetal ez basatien kokalekua zehaztea eta haien ebaluazioa egitea. Horretarako, helburu nagusia azpi helburu hauetan sailka daiteke:

Tokiko barietateen kokalekua jakiteko, baserrietara eta nekazaritza ustiategietara bisitak egitea eta baserriarekin elkarrizketak egitea.

Tokiko barietateen ezaugarri nagusiak biltzea.

Bildutako informazioarekin tokiko barietateen egoera ebaluatzea.

Tokiko barietateak babesteko eta mantentzeko beharrezkoak diren proposamenak nekazariari, nekazaritza administrazioari eta, oro har, euskal gizarteari aurkeztea eta kasuan kasu indarrean dauden babes neurriak aldatzeko iradokizunak egitea.

Tokiko barietateen egoeraren informazioa EAEn adieraztea eta zabaltzea.

3. TOKIKO BARIETATEEI BURUZKO IKERKETEN AURREKARIAK

Euskal Autonomi Elkartean nekazaritza biodibertsitateari buruzko prospekzio lan gutxi egin dira. Gai honen inguruan aipagarriena, Joxe Migel Barandiaran antropologoak zuzendutako, *“Alimentacion en Vasconia”* lan etnografikoa da, zeinetan Euskal Herrian antzina egon ziren elikadura ohiturak, elikagaien inguruko erritualak eta abar agertzen diren. Lan honetan, elikagaien ohiturez gain, Euskal Herrian erabili izan diren espezie eta barietateak azaltzen dira, barazkiei dagokienez. Dena den, lana 16 herritan egindako inkestetan oinarrituta dago, eta ez da sakontzen barietateen deskribapenetan, beraz ikerlan honetarako erreferentzi puntua izateko muga handiak ditu.

Aipagarria da ere, INIAko teknikari batek 80ko hamarkadan Euskadin egin zuen prospekzio lana. Baserri eta merkatuetan jaso zituen haziak INIAren Zaragozako Germoplasma Bankuan daude gaur egun. Baina lana 12 udaletara inguru mugatu zen eta haziekin batera jasotako datuak oso urriak dira (izena eta herria). Gaur egun gehienek karakterizatu gabe jarraitzen dute. Hala ere, datu-base horretan tokiko barietate batzuen izena eta herria daude. Datu horiek oso erabilgarriak dira prospekzio lanetan.

Espezie zehatz batzuei buruz azkeneko urteetan zenbait ikerketa egin dira. Labore estentsiboetan apenas ez dago ezer idatzita, baina baratzekeo zenbait espezieri buruz (arto, sagarrondo, babarrun, piper eta tomateei buruz batez ere) azkeneko urteetan zenbait lan espezifikoko agertu dira.

Horietako bat Sendoa argitaletxeko *“La sidra”* liburua da. Sagardoa egiteko Euskal Herrian dauden sagar barietateen bilduma egiten duena. Tokiko barietateen izenak behatzean, askok herrien izenak dituzte (Errezil sagarra, Bizkai sagarra, Andoain sagarra) eta beste batzuek heltzen diren garaiko izena daukate (San Juan sagarra, Santiyo sagarra, Andra Mari sagarra...). Lanak, ikerketa zabala egiten du, nahiz eta Arabako sagarrondo barietate gutxi jaso duen. Euskal Herriko Hazien Sarearen I+G lan honetatik, aldiz, fruta arbolak kanpo geratzen dira.

1995. urtean, Jose Ignacio Ruiz de Galarreta Gomezek eta Andres Alvarez Rodriguezek egindako *“Variedades locales de maiz de Gipuzkoa”* ikerketa lanean, Gipuzkoan dauden tokiko arto barietateak jaso eta karakterizatu zituzten. Arto barietateak zituzten ezaugarrien arabera zazpi taldetan sailkatu zituzten. Honela, Gipuzkoan artoek daukaten aldakortasun genetiko oso altua zela ondorioztatu zuten.

Bestalde, 2005ean, Neikerrek Miguel Carravedo Fantovaren eta Ruiz de Galarretaren *“Variedades autoctonas de tomate del Pais Vasco”* ikerketa argitaratu zuten. Lan honetan, EAEn dauden tomate barietate desberdinak bildu eta beraien karakterizazioa egin zuten. Lan hau tomateen hobekuntza bat egiteko abiapuntua izan daiteke.

Bestetik, Derioko Nekazaritza Hobekuntza eta Ikerkuntza Zerbitzuan (SIMA) ere barietate zahar batzuekin lan egin da. Mancho Urizek Sustrai aldizkariaren "*Conservacion y mejora de variedades autoctonas de hortalizas*" deritzon artikuluan tokiko barietateen inguruan egindako zenbait lan azaltzen du. Horrela, Zallako kipula gorria, Tolosako indaba, Ibarako pipermina, piper txorizeroa eta tokiko zerba horiaren ezaugarriak azaltzen dira.

Babarruna ere berriro oinarri hartuta Eusko Jaurlaritzako CIMA-SIMAK eta Bizkaiko Foru Aldundiko teknikoek (Mancho, Legorburu, Ruiz de Galarreta, Soloaga, Cabodevilla eta Amenabar, 1996) Gernikako babarrunaren aldaera ezberdinak jaso, karakterizatu eta aztertu zituzten, beraien arteko barietate kopuru izugarria aurkitu zutelarik. Sustrai aldizkariko "*Caracterizacion preliminar de variedades locales de alubia Gernikesa*" lanak horren emaitza jasotzen du.

4. METODOLOGIA

Atal honetan laginketaren ezaugarriei buruzko metodologia eta datuen azterketaren eta eztabaidaren nondik norakoa azaltzen da. Azpimarratu behar dugu, ezaugarri hauetako oso lan gutxi daudela, eta beraz, lan honetarako metodologia berariazkoa dela.

4.1. Informazio eta bibliografia bilketa

Informazioaren bilaketa bi norabidetan joan da. Alde batetik, metodologia finkatzera zuzendu da, etnobotanika eta prospekzio lanak aztertu dira, beste lanetan erabilitako inkestak bilatu dira, eta "Resembrando e Intercambiando" Estatu mailako Sareak eta Ekonekazaritzak hobesten duten inkesta ereduak aztertu da.

Beste aldetik, orain arte EAEn egin diren prospekzio lanen emaitzak eta horien karakterizazio lanen emaitzak jaso eta aztertu dira, orain lortutako emaitzak aurreko lanen emaitzekin konparatzeak ondorio interesgarriak eskaini baititzake.

Erabilitako informazioa Bibliografia atalean dago.

4.2- Tokiko barietateen definizioa

Tokiko barietatetzat edo barietate tradizionaltzat jotzen direnak, urteetan zehar, nekazarien familiek egindako hobekuntza eta aukeratzearen ondorio dira eta bizi diren tokiko baldintzei eusteko moldatuta daude (Dominguez, 1999). Bere jatorria dela-eta, *nekazari hazi* ere baderitze .

Ez da inon irizpiderik topatu tokiko barietatea argi mugatzeko. Europako 98/95 artezarauak *kontserbazioko barietatea* kategoria lehenengo aldiz aipatzen du, baina ez du teknikoki definizioa finkatzen. Frantziako estatuak egindako transposizioan teknikoki mugatzen du "*kontserbazioko barietatea*"ren definizioa. Ezarritako irizpidearen arabera Euskadiko barietate batek ere ez zuen izendapen hori jasoko (sindikatuaren eta Frantziako Hazien Sarea-CNDSFen protestak jaso dituenak). Orain dela gutxi Louettek (2000) eta Latournerie Morenok, L.(2006) emandako definizioak 30 urteko antzinakotasuna jartzen du barietate baten mugatzat, benetan tokiko barietatetzat hartzeko, baina oso muga zailak dira ezarri eta gogoratzeko.

Lan honetan, topatutako barietatea tokiko gisa sailkatzeko, irizpide batzuk jarraitu dira. Bi ezaugarri bete behar dituzte:

- I. Gutxienez bost urtetan erabili izan diren haziak urteko landareen kasuan eta hamar urte bi urteko landareen kasuan. Horiek tokiko barietatetzat hartu dira.
- II. Duela gutxi eskuratutako barietate komertziala ez izatea. Beraz, bere jatorriak zera behar du:
 - a. Baserrikoa betidanik izatea; barietate hauek baserrietan antzemandako antzinako barietateak dira, eta nekazariak adin zehatza ez badaki ere, adierazten du belaunaldiz belaunaldi, hots, urtetan igaro direla.
 - b. Auzokoen artean elkartrukatutakoa; aldameneko leku edota auzoko biztanleek trukatu dituzten barietateak dira, barietate berri baten emaitza frogatzeko edota barietate berberaren etekina hobetzeko.
 - c. Erositakoa 20 urtetan erabili izan bada; denda, azoka, kooperatiba edota abarretan erositako barietate komertzialak, baldin-eta gutxienez 20 urtez erabili badira, hots tokiko klima, geologia eta abarrei egokitzeko denbora nahikoa izan badute.
 - d. Ezezaguna; nekazariak ez badaki ere, adierazten badu antzinakoa dela, betidanik erabili dutelako, eman diotelako edota trukearen ondorioz jaso duelako,....

4.3- Laginketa

Prospekzio lana egiteko jarraitu den metodologiari metodologia etnobotanikoa deritzo. Metodologia honek etnologia, antropologia eta botanika ditu oinarri, eta bi teknika garrantzitsu erabiltzen dira. Alde batetik, informazioa nekazariengandik jasotzen da (metodo antropologikoa), eta, bestetik, landareen bilketa eta determinazioa egiten da (metodo botanikoa). Ikerketa etnobotanikoaren atal garrantzitsua informatzaileak dira, hots, nekazariak, baserritarrak, nekazaritza ustiategien jabeak,.... (Benz et al. 1994; Phillips and Gentry 1993a,b; Prance et al. 1987; Toledo et al. 1995).

Honetarako, EHNE sindikatura, eskualdetako OCA bulegoetara, nekazaritza ekologikoko elkarteetara jo da nekazariari buruzko informazioa jasotzeko. Hauek lehenengo informatzaileak izan dira. Pertsona hauei, udalerrri edo eskualdean bertoko barietateak nortzuek erein eta gordetzen dituzten galdetu zitzairen, eta horren arabera beste baserri batzuk ere bisitatu ziren. Bestalde, pertsonen berei (bigarren informatzaileei) haziak gordetzen eta trukatzeko dituzten euren inguruko pertsonen buruz informazio gehiago eskatu zitzairen, azken hauek ere bisitatzearen.

Norabideari dagokionez, emaitza fidagarriak lortzeko egin beharreko elkarrizketen kopuru fidagarria ezartzearen, ezinezkoa da haziak gorde edo-eta trukutzen dituzten lagunen pertsonen kopuru absolutua zehaztea:

- Ez dago holako errolda ofizialik, nekazarien erroldetan horrelakorik galdetzen ez delako.
- Nekazari guztiak ez dira laginketan sartzeko modukoak, guztiek baratzeko laborantza edota laborantza estentsiboa garatzen ez dutelako, ezta hazirik gorde ere.
- Ez dago nekazaritzat hartu ez arren haziak gorde edo-eta trukutzen dituen pertsonarik/talderik (nekazari erretiratuak, eskoletako baratzak, landa eremuetako nekazari ez diren familien baratzak, hirietako baratzak,...) jasotzen dituen erroldarik.
- Bestalde, azpimarratzekoa da tokiko barietateetako haziak gordetzen dituen populazio honen egonkortasun eza, batez ere euren ezaugarriei bagagozkie: nekazaritza arloan iraunkortasun falta, nekazaritza lur eremuen galera etengabea, nekazaritzan jarduten hasten diren pertsona berriak,...
-

Beraz, ikerketarako egindako laginketan saiatu gara informatzaile nahikoak edukitzen tokiko barietateetako haziak erabiltzeari, gordetzeari eta trukatzeari dagokionez EAEko eskualde bakoitzeko joeren berri jasotzeko; soroetan jarraitzen duten barietateak zehazteko; eta desagertzeko daukaten arriskua ebaluatzeko. Hala ere, asmoa ez da izan tokiko barietateak kudeatzen dituzten pertsona eta taldeei buruzko azterketa zehatza egitea.

Egin diren elkarrizketak erdi-egituratuak izan dira, aldez aurretik prestatutako galderekin eta momentuan sor zitezkeen galderekin. Elkarrizketa hauetan, informatzaileek barazkiak zertarako erabiltzen zituzten eta haziak non gordetzen eta ereiten zituzten azaltzen zuten eta galdeketa-fitxa bat betetzen zen, (I. Eranskina). Fitxa betetzeaz gain, inguruko baserrietan ere tokiko barietateen haziak gorde eta ereiten zituzten galdetzen zen. Baserri bakoitzean, espezie barietate ezberdinen datuak galdeketa fitxa banatan jaso ziren.

Orain arteko lanetan agertu ez den barietate bereziren bat, , behatzen bazen, hazi pixka bat eskatzen zen, Euskal Herriko Hazien Sareak gordetzeko eta katalogatzeko. Hazi horiek guztiak, 1998tik eratuta dagoen hazien bankuan gordetzen dira. Galdeketa fitxaren oinarria, lehendik Euskal Herriko Hazien Sareak, "Resembrando e intercambiando" Estatuko Hazien Sareak eta Ekonekazaritzak erabilitakoa izan du oinarria, baina Joxemiel Barandiarenek "*Alimentación en Vasconia*" zuzendutako lanean agertzen ziren galdera batzuk erantsi zaizkio.

Galdeketa fitxan, ondoko datu hauek biltzen ziren:

Informatzailearen datuak: elkarrizketa egiten zitzaien pertsonaren datu pertsonalak.

Laborearen datuak: zein espezie den, zer barietate den, noiz landatu zen lehen aldiz, ea orain landatzen den, zein laborantza sistema erabiltzen den eta zein laborantza praktika erabili behar den.

Landarearen ezaugarriak: landarearen luzera, ekoizpena, dituen erresistentziak, jaten den zatiaren ezaugarriak eta haziaren ezaugarriak.

Hazia nola lortu: aukeraketa, barietatea aukeratzean zein irizpide erabiltzen den, fruitua noiz jasotzen den, haziak nola ateratzen diren eta haziak nola kontserbatzen diren.

Etixerako baratzea den edo baratzeko produktuak saltzen dituzten.

Nekazaritza konbentzionala edo nekazaritza ekologikoa egiten duten.

Laginketa edo informazio bilketa 2006ko abendutik 2007ko uztaila arte burutu zen. Dena den, lan osoago eta interesgarriagoa izateko orain arteko emaitzak Hazien Sareak aurreko urteetan beste eremuetan jasotako inkestekin bateratu dira.

Beraz, prospekzioa hiru fase desberdinetan burutu da:

- 1998-2002: Bizkaiko Markina-Ondarroa, Enkarterriak eta Gernika-Bermeo.
- 2005eko abendutik 2006ko abuztura arte: Gernika-Bermeo eta Markina-Ondarroa bukatu, eta Bizkaiko beste eskualdeak egin ziren (Arratia- Nerbioi, Bilbo Handia, Durangaldea eta Plentzia-Mungia). Gipuzkoako eskualde batzuk (Debagoiena eta Urola Kosta) eta Arabako Gorbeialdea ere egin ziren.
- 2006ko irailetik 2007ko uztailera: Arabako eta Gipuzkoako beste eskualdeak egin ziren: Arabako Haranak, Arabako Lautada, Arabako Mendialdea eta Arabako Errioxa, batetik; Debabarrena, Goierri, Tolosaldea, Donostialdea eta Bidasoa Beherea).

Dokumentu honetan hiru fase hauetako emaitzak batera aurkeztuko dira..

4.4-Datuen tratamendua

Hasieratik, datuak **eskualdeka** tratatzea erabaki da, batez ere landa-azterketaren lanak eta datuen aurkezpena errazteko Eskualdeak definitzeko Eustatek, estatistika ikerketetan egindako sailkapena baliatu da. 1.Taula .

1. Taula: EAEko eskualdeak, herrialdeka sailkatuta

Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Arabako Haranak Arabako Lautada Arabako Mendialdea Arabako Errioxa Kantauri Arabarra Gorbeialdea	Arratia- Nerbioi Bilbo Handia Durangaldea Enkarterriak Gernika- Bermeo Markina -Ondarroa Plentzia- Mungia	Urola Kosta Tolosaldea Goierrri Donostialdea Debagoiena Debabarrena Bidasoa Beherea

Eskualde batean emaitza esanguratsuak lortzen zirela ziurtatzeko eskualde bakoitzeko gutxieneko elkarrizketatu kopurua ezarri zen. Gutxieneko muga 8 elkarrizketatu izatea deliberatu zen.

Inkestetako barietate fitxak erabili ahal izateko aurretiko **taldekatze lana** beharrezkoa zen. Inkestatu bakoitzak zuen barietate bakoitzeko fitxa bat bete zen. Jasotako barietateen fitxen artean asko errepikatzen badira, izenari erreparatuz hiru egoeratan sailkatu daitezke:

Barietatearen izena berdina eta barietatearen ezaugarriak ere berdinak izatea.

Barietatearen izena berdina izatea, baina landare eta fruituaren ezaugarriak ezberdinak izatea. Ezaguna da indaba tolosarraren kasuan; Gipuzkoan eta Araban indaba beltzari esaten zaio, eta Bizkaiko hainbat tokitan aldiz indaba gorri-pinta igokari bati. Askotan "tokiko" edo "bertoko" izenaren azpian, barietate ezberdinak ere egoten dira.

Azkenik, beste kasu batzuetan barietate berdina izen ezberdinekin agertu daiteke.

Barietateak zenbatu eta tratamendu egokia egin ahal izateko, hiru egoera hauek kontutan hartuta taldekatu behar dira. Ezaugarri berdinak agertzen dituzten fitxak batu eta barietate bakartzat jotzen da. Taldekapen lan honen emaitzak barietateentzako fitxa bana izan behar du. Fitxa horretan izen zabalduena agertzen da, baina gehiago izatekotan, horiek ere bai.

Datuak **tauletan** agertzen dira. Baserritarrek gordetzen dituzten barietateak agertzen dituzten taulak bete ziren herrialde bakoitzeko eta eskualde bakoitzeko. Horietan familia eta espeziea ere idatzita daude. Horretaz gain, elkarrizketatutako baserritarren datuak, herria, gordetzen duen barietatea, nolako nekazaritza egiten duen eta salmentarako edo autokontsumorako baratzea duen laburbiltzen duen beste taula bat prestatu zen. Elkarrizketatuak bere izena edo baserriaren izena eman nahi izan ez duenean errespetatu dugu. Kasu horietan etxearen zenbakia bakarrik agertzen da. (I. Eranskina)

4.5 Barietateak desagertzeko arriskuaren ebaluazioa.

Barietate desberdinak desagertzeko arriskuaren ebaluazioak hainbat arazo ditu. Alde batetik, prospekzio lana laginketa bideratu batean oinarritzen da, ez laginketa aleatorio batean, baina hau nahiko logikoa da lehen helburua baita landatutako nekazaritza barietateak antzematea.

Ezin da adierazletzat hartu harremanetan egon garen populazioaren gaineko barietatearen hazleen kopurua hartu, harremanak normalean informatzaile nagusi batek emandako informazioaren arabera egiten baitira, hau da, honek baserri batzuetara edota besteetara bideratzen gaituelako. Batzuetan informatzaile nagusi horiek tokiko barietateak gordetzen dituzten pertsonengana zuzenean bideratzen bagaituzte ere, beste batzuetan, berriz, daukaten ezagutza txikiagoa denez, euren adierazpenek ere balio txikiagoa daukate.

Aipatu adierazleak ere ez du balio ezinezkoa delako eskualdeetako nekazari eta barazkigileen kopuruaren eta egindako inkesten kopuruaren arteko proportzio bat ezartzea, baratzea daukaten ustiategi guztiak erroldatuta ez daudelako.

Azkenik, badaude ebaluazio honetarako oso garrantzitsutzat jotzen diren beste faktore batzuk, "harremanetan egondako populazioaren gaineko barietatearen hazleen kopuruak" kontuan hartzen ez dituenak, esate baterako, barietateen erregistroetan jasota dauden, gordetzen dituen nekazariaren adina,...

4.5.1 Ebaluaziorako aukeratutako faktoreak

Ebaluazio honetarako faktore kopuru txiki bat aukeratu da.

- ➔ Desagertzeko arriskuan erabakigarria den faktore bat da legezko egoera, hau ere oso faktore eztabaidatua den arren. Egun, barietate bat Barietate Komertzialen Erregistro batean jasota egoteak soilik ematen dio nolabaiteko babesa barietate bati, eta nolabait hau zaintzera behartzen du (oraingoz ez dakigu Kontserbazioko Barietateen berariazko Erregistroa dagoenentz). Hau dela-eta oinarritzko legeriak zera dio: "Barietate Komertzialen Erregistroan barietate bat inskribatzeak erregistratu duena behartzen du (sic) barietatearen hautapen kontserbatzaileko lanak egitera". Beraz, horrela ulertzen da erregistratutako barietate batek etorkizunari begira nolabaiteko bermea daukala, erregistratzen duen erakundeak uste duelako merkaturatu ez ezik, gorde ere egingo duelako. Erregistratu gabeko barietateek, aldiz, oro har nekazari barietate direnek ez daukate holako bermerik. Horregatik barietate bat desagertzeko arriskuaren ebaluazioari faktore hori gehitzen zaio.

Hala ere, kontuan hartu behar da faktore honek eskaintzen duen bermea ez dela hutsezina nekazari barietateen etorkizunari dagokionez, baizik eta oso murriztailea dela:

Erregistrotik barietateak kendu daitezke, eta egungo erregistroak orain dela 50 edota 100 urtetakoekin alderatzen badira, aldaketa handiak daude.

Ezinezkoa edota oso zaila da nekazari barietate asko erregistratzea, ezinezkoa baita berauek erregistratzeak eskatzen dituen baldintza teknikoak (egonkortasuna, berezikuntza, homogeneousutasuna) betetzea edota erabiltzaileek erregistratzeak dakartzan gastu ekonomikoak estaltzeko beharrezko baliabide ekonomikoak edukitzea. Bestaldetik, haziak merkaturatu ahal izateko hainbat betekizun daude (merkaturatzearen definizioaren barruan trukea ere sartzen da), hazien ekoizle gisa alta emanda egotea adibidez. Legearen arabera, "hazien ekoizle" gisa onartua izateko, legeak, erabiltzaileek bete ezin dituzten bestelako eskakizunen artean, ekoizpen gaitasun zehatza daukaten instalakuntza batzuk eskatzen ditu. Merkaturatzearen definizioaren barruan hazien trukea ez litzateke sartu beharko, ez behintzat tokiko barietateei dagokienez, praktika hau legez kanpo uzten duelako. Ezin dugu ahaztu praktika honi esker egungo tokiko barietate asko, hau da, egungo nekazaritza biodibertsitateko barietate asko lortu direla.

Lan honetan egiaztatu dugu hazia gordetzeko eta, ondorioz, trukatzeko joera desagertuz doala, eta honek nekazaritza biodibertsitatea galtzeko arriskua areagotzen du. Kontserbazioko barietate gisa erregistratzeak gutxiti lezake desagertzeko arriskua, erregistratzen duenak gordetzeko konpromisoa bereganatzen duelako, baina arrisku hori ez da desagertuko. Horregatik haziak gordetzea eta trukatzeko sustatuko duten neurriak hartzea ere beharrezkoa da.

Honekin batera. Tokiko barietateen haziak erregistratzeko zein merkaturatu ahal izateko legezko betekizunak barietate hauen ezaugarrietara egokitu beharko lirateke.

Bestaldetik, eta etikaren ikuspuntutik, pertsona batzuek auzitan jartzen dute erabat erregistratzeko prozesua, honek eskatzen duelako pertsona edota erakunde bat "jabe" gisa ezartzea, nahiz eta barietate hauek normalean erabiltzen dituzten pertsonak aipatu barietateak erregistratzeak dakarren pribatizazioari inolako legimitaterik ez aitortu. Honen ondorioz, kontresan argia sortzen da barietate baten etorkizuna bermatzeko erregistratu beharrendaren eta pribatizazioaren artean (are gehiago hau nekazariarekin zerikusirik ez daukan enpresa batek egiten badu).

Azkenik, ezin da ahaztu erregistratzen dena izen bat dela, agian barietate baten motari dagokiona, eta honek mota horren biziraupena ziurtatuko balu ere, agian ez luke ziurtatuko ezinbestean barietate beraren beste mota batzuen, hala nola, Gernikako piperrarena edo Zallako tipula gorriarena.

➔ Beste faktore garrantzitsu bat da zenbat aldiz identifikatu den barietate berbera EAE osoan egindako prospekzioan.

- ➔ Beste parametro bat elkarrizketatutako pertsonaren jarraipena edota lan berean ari den eta tokiko barietate bat gordetzen duen beste pertsona batena da. Indarrean dagoen legedia kontuan izanik, erregristatuta ez dauden tokiko barietate guztiak arriskuan daudela esan dezakegu nekazaritza edo baratze ustiapen lanetan jarraitzen ez dutenean, ez baita legezkoa haziak dohaintzan ematea edo elkartrukatzea.
- ➔ Hazi berezi baten haziak lortzeko eta gordetzeko zailtasun maila: zailtasun hau aldakorra da espeziearen eta barietatearen arabera, polinizazio (irekia edo ez) motaren arabera, haziaren arintasunaren arabera, bi urtez behingo izaeraren arabera eta abar. Adibide moduan, azenarioek eta brasikoek indabek edo tomateek baino denbora luzeagoa eta trebetasun eta kontrol handiagoa behar dutela esan dezakegu
- ➔ Tokiko barietateetatik eratorritako produktuek merkatuan duten eskari maila eta haren mantentzean laguntzen duena eta soroko *in situ* lana bultzatzen duena
- ➔ Eskualde kopurua ere zenbatu beharreko faktoretzat dugu. Zenbait barietatetako laborantza eskualde ezberdinetan zein EAETik kanpo zabaltzen dira. Eskualde ezberdinetan laborantza nukleo ezberdinak egoteak haren erabileraren eta berreskuratzearen alde egin dezakeela uste dugu. Era berean, erabili eta mantentzeko tokiko ekimenek (zuzeneko salmentak, azokak, propaganda...) eman dezaketena baino errazagoa dela uste dugu.

4.5.2 Ebaluaziorako diseinatutako ereduaren deskribapena

Zailtasun horri konponbidea emateko eredu bat sortu da. Ereduaren funtzioa barietateak kalifikatze prozesuan subjektibotasuna ahal beste ezabatzea izan da. Aipatu subjektibotasuna, hala ere, ez da erabat ezabatzen, ereduaren diseinuaren barnean baitago; faktore bakoitzari emandako balorearen barnean hain zuzen ere. Hala ere, desagertzeko arriskua kalkulatzeko eredu zientifikorik ez dagoenez, jakinaren gainean gaudela subjektibotasun elementu bat sartzea hobea dela pentsatu dugu, arriskuen ebaluazioa bera egin baino.

Jarraian aurkezten den ereduari, mehatxu egoeraren bi alderdiri garrantzi handiagoa eman zaio; legearen onarpena eta aurkitu ditugun eta landatzen duten nekazari kopurua. Garrantzia txikiagoa izango dute agertzen den eskualde kopuruak, espeziearen arabera hazi lortzeko dagoen zailtasuna, nekazariaren adina eta eta ustiapenerako etorkizuneko erreleboa izatea. Beherago ikus dezakezuen bezala, barietate jakin batek zenbat eta azken balorazio baxuagoa izan, orduan eta desagertzeko arrisku handiagoa izango du. 2. taula

2. taula: Tokiko barietateak desagertzearen eredu

	Onarpen legala	Nekazari kopurua	Agertzen den eskualde kopurua	Hazia lortzeko zailtasuna	Nekazariaren adina	Ustiapenaren jarraipena	Azoketan saltzen diren tokiko barietateak	Total
	a	b	c	D	E	F	g	g
Baloreak	0-5	0-10	1-5	0-6	1-6	0-4	0-4	2-40

- a) Ondoko baloreak emango zaizkie:
- * 5 barietatea merkaturatzeko barietateen artean sailkatua badago
 - * 0 inongo erregistroetan ez badago
- b) Nekazari kopurua:
- * 10 100etik gorakoa bada
 - * 9 90 eta 99 artekoa bada
 - * 8 80 eta 89 artekoa bada
 - * 7 70 eta 79 artekoa bada
 - * 6 60 eta 69 artekoa bada
 - * 5 50 eta 59 artekoa bada
 - * 4 40 eta 49 artekoa bada
 - * 3 30 eta 39 artekoa bada
 - * 2 20 eta 29 artekoa bada
 - * 1 10 eta 19 artekoa bada
 - * 0 0 eta 9 artekoa bada
- c) Agertzen den eskualde kopurua
- * 5 15 eskualdetan edo gehiagotan agertzen bada
 - * 3 7tan edo gehiagotan agertzen bada
 - * 1 gainerakoetan
- d) Hazia lortzeko zailtasuna
- * 6 balorea izango dute: indabak (berdea eta lehorra), babak, ilarrak, txitxirioak, lekadunak oro har, tomateak, piperrak, alberjiniak, kuiak, kuitxoak, luzokerrak, meloiak, sandiak, artoak, karduak, orburuak eta uhazak..
 - * 3 balorea izango dute: porrua, tipula, baratxuria, eskarola, endibia, txikoria, erremolatxa, zerba.
 - * 0 balorea izango dute: aza, azalorea, brokolia, arbia, (kruziferoek oro har), azenarioa, perrexila, apioa..
- e) Nekazarien batez besteko adina
- * 6 60 urtetik beherako nekazaria
 - * 3 61 75 urte arteko nekazaria
 - * 1 76 urtetik gorako nekazaria
- f) Ustiapenaren batez besteko ondorengotaratzeari
- * 4 ondorengotaratzeari badago (semea, alaba, biloba, iloba,...) barietate horretako %75ean edo gehiago.
 - * 3 ondorengotaratzeari (semea, alaba, biloba, iloba,...) %75 eta %25 artekoa bada
 - * 2 ondorengotaratzeari (semea, alaba, biloba, iloba,...) %50 eta %25 artekoa bada
 - * 1 ondorengotaratzeari (semea, alaba, biloba, iloba, ...) % 25 edo gutxiagokoa bada
 - * 0 inolako ondorengotaratzeari ez badago

- g) Azoketako eskaera maila
- * 4 azoketan saltzen badu
 - * 0 inongo azoketan saltzen ez badu.

- h) Balorazio orokorra. 3. taula

3. taula: Lekuko barietateek desagertzeko duten arrisku totala azaltzen duen taula

Barietatearen kalifikazioa	Lortutako balorea
Desagertzeko sekulako arriskua EP	2- \leq 11,5
Arrisku larria GP	$>11,5$ - \leq 21
Arriskua P	>21 - \leq 30,5
Arriskurik gabe SP	$>30,5$ - \leq 40

5. LAGINDUTAKO ESKUALDAREN EZAUGARRIAK

Ikerketa gunea, Euskal Autonomia Erkidegoko eskualdeak izan dira.

5.1-Euskal autonomia erkidegoko medio fisikoa

5.1.1. Geografia eta erliebea

Euskal autonomia erkidegoak, 7300 km² ko azalera dauka, eta horretatik %90 baino gehiago nekazaritza eremutat jotzen da. Hala ere landutako eremua ez da %15 baino altuagoa %50 baino gehiago eremu basotsua edo baso-saila delako eta %25 larre lurra delako. Erliebea, oso menditsua eta maldatsua izanik, nekazaritza garapenerako mugatzailea da, Kantauri isurialdeko herrialdeetan eta Arabako gunen batzuetan batez ere. Mendilerroak, ekialde-mendebalderantz hedatzen dira, eta beraz, Kantauri-Atlantikoko eremuaren erliebea estu eta azkar itsasoratzen diren ibaiek definitzen duten haranez osatuta dago. Bestalde, hegoaldeko ibaiek, arro zabalagoa eta handiagoa dute. Ondorioz, uholde lautada hedatuagoak dituzte, lur sailak handiagoak dira eta mekanizazioa ere errazago izan da.


5.1.2. Litologia

Euskadiko litologia, arroka sedimentario detritikoz osatuta dago (are harriak, kareharriak, buztina, limolitak eta margak). Bestetik, kretazikoko flysch-ak erliebe borobilduak sortzen ditu. Badira, kareharrizko mendilerro batzuetan eremu karstikoak ere, goi altueretan (1300-1500 metrotan) lurzorua garapen murrizta sortzen delarik.

5.1.3. Klima

Klima, landareen garapenean zirikusia daukan faktorea da. EAEk ez du klima aldetik eskualde homogeneoa osatzen. Azaletik hiru alderdi bereiz daitezke: isurialde atlantikoa, iparraldean; erdialdekoa EAEn; eta hegoaldekoa, Ebroko erriberan eta Arabako Errioxan.

2. irudia. EAEko klimaren sailkapena (Euskalmet, 2006)



Isurialde atlantikoan Bizkaia, Gipuzkoa, eta Arabako iparraldea sartzen dira; klima mesotermikoa dute, temperatura epela eta euritsuua. Urtaro lehorrik gabeko klima epel hezea edo klima atlantikoa deitzen zaio. Klima horretan ozeano Atlantikoak eragin nabarmena du, jakina. Gaueko eta eguneko temperatura aldaketak ez dira nabariak, baina prezipitazioak oso altuak izan ohi dira, urteko batez besteko prezipitazioak 1.200 mm eta 2000 mm artekoak dira. Temperaturei dagokionez, neguak epelak dira eta udak ez oso beroak.

Euskal Herriko erdialdeak edo trantsizioko eskualdeak, Arabako zati handi bat hartzen du; klima ozeanikoaren eta klima mediterraneoaren arteko trantsizioko zona dugu, baina klima ozeanikoaren ezaugarriak gailentzen dira, ez baita benetako uda lehorrik izaten.

- Klima subatlantikoa: Araba mendebaldeko haranean eta Arabako Lautadan du eragina; klima atlantikoa izaten jarraitzen du, baina isurialde atlantikoan baino prezipitazio gutxiago izaten da.
- Klima submediterranea: Hegoalderago, Trebiño eta Arabako mendialdea hartzen dituen eremu batean, klima mediterranea gailentzen hasten da; hau da, klima epela, uda beroago eta lehorragoarekin, eta urteko batez besteko euri moderatuekin.

Euskadiko hegoaldean, Arabako Errioxak hartzen duen Ebro ibaiaren sakonunean, uda nabarmen lehorra eta beroa duen klima mediterranea gailentzen da. Normalean, neguak nahiko hotzak eta prezipitazio gutxikoak izaten direnez, barrualdeko klima mediterraneo edo klima mediterraneo kontinental ere deitu izan zaio. Udan zenbait hilabetetako batez besteko temperaturak 22°C-ren gainetik ibili ohi dira, eta neguan, temperatura baxuek izotza ekartzen eta lainoa errazten dute. Prezipitazioak berdintsuak dira urte guztian, 30 eta 50 mm inguru hil bakoitzeko.

5.1.4. Ur baliabideak: Drainatze-sarea eta urtegiak


EAEn dagoen ibaien sarea oso aberatsa da. Bi isurialde nagusi daude: kantabriarra eta mediterranearra. Kanaturaldeko isurialdeko ibaiak ur emari erregularra daukate eta oso maldatsuak dira. Mediterranean aldeko ibaiak Ebrora isurtzen dituzte beren urak. Kantaurialdeko ibaiekin konparatuta malda baxua daukate eta luzeagoak dira,. Kantaurialdeko ibai garrantzitsuenak, mendebaldetik hasita, Kadagoa, Nerbioi, Butroi, Ibaizabal, Oka, Lea, Artibai, Deba, Urola, Oria, Urumea eta Bidasoa dira. Garai batean horien ertzetan nekazaritza ustiategiak kokatu ziren hirien hazkundeak eta urbanizazioak ordezkatu dituzte. Mediterranean aldeko ibaiak Araba zeharkatzen duten ibairik garrantzitsuenak Zadorra, Ibai Uda, Baias, Inglares, Omecillo eta Ega dira eta beren urak Ebrora isurtzen dituzte. Nekazaritza, ibai hauen erdi-beheko ibilguen lautadetan kokatzen da.

Ur emaria kontrolatzeko, hainbat urtegi eraiki dira ibaietan, hala nola, Araban, Albina, Urrunaga eta Uribarri-Ganboa, Gipuzkoan, Urkulu, Amara, Ibaieder eta Añorga urtegiak eta Bizkaian, Gorostiza, Regato, Undurraga eta Zollo. Azkeneko urteetan ureztatze-landaketak zabaldu diren heinean ur-baltsa ugari ireki dira Araban mendietako errekaetako urak baliatuz.

5.2. Nekazaritza jardueraren eboluzioa

Nekazaritzak aspaldian utzi zion jarduera nagusi izateari. Jarduera nagusia, XX. mendean zehar, industria izan den arren azken urteotan zerbitzuen sektoreak igoera nabarmena jasan du. Horrela, 2003 urtean, EAeko populazio aktiboaren okupazioa, %60,9 zerbitzuetan zegoen, %28 industrian, %9,7 eraikuntzan eta %1,4 bakarrik nekazaritzan, nahiz eta datu honek aldaketak izan eskualdez eskualde.

3. irudia: 1990- 2002 urte bitartean, nekazaritza sektoreko populazioaren okupazioa EAEn (Iturria : jardueraren arabeko populazioa, Eustat)



Nekazaritza sektoreko populazioaren okupazioak (3. irudia), beheranzko joera jarraitu du 1990 urteaz geroztik. Nekazaritzako okupazio murriztapen honek, baserriaren ikuspegia aldatu du; antzinako nekazariak eta baserritarrek baratze eta soro zabalera handiak lantzen zituzten eta gehienetan etxean ekoizten zutena kontsumitzen zuten. Gaur egun baserri ugartan nekazaritza ustiapena ez da egiten, bizitzeko tokiak besterik ez baitira.

Euskadiko nekazaritza jarduera hiru taldetan sailka daiteke, klima eta erliebea faktore garrantzitsu bezala hartuz; alde ozeanikoa, alde menditsua eta Arabako barnealdea.

- Alde ozeanikoan baserria da ustiapen unitatea. Labore nagusiak artoa, lekadunak, baratzeke espezieak, animalien bazka-laboreak eta fruta-arbolak dira. Lurraldea maldatsua denean *Pinus radiata* pinuaz eta *Eucalyptus globulus* y *E. nitens* eukaliptoek osatutako landaketak dira nagusi.

- Alde menditsuan, basogintza eta artzaintza dira jarduera nagusiak. Azken urteotan, aisialdiarekin erlazionatuta dauden jarduerak hasi dira zabaltzen, parke natural izendapenari loturik gehienetan.

Arabako barnealdean zerealak eta azukre-erremolatxa dira nagusi eta Arabako Errioxan mahastiak.

EAEn hazien erabileraren inguruan ikusi ditugun joera nagusiek Europako gainerako lurraldeetan jarraitu ohi diren joera orokorreari jarraitzen diete. Jarraian garrantzitsuenetakoak azpimarratuko ditugu:

- Nekazariak haziak gordetzeko zuten ohituraren pixkanakako gainbehera; hori, hazitoki enpresen

horniketaren araberakoa da gero eta gehiago, Gainbehera honek nekazaritza sektore guztiei eragin die, nahiz eta modu ezberdinean izan. Baratze sektoreko nekazariak dira haziak gehien gordetzen dituztenak. Erremolatxa sektorean ordea, inork ez du gordetzen.

- Tokiko barietateen erabilera gainbehera doa pixkanaka. Nekazaritzako zenbait azpi-sektoretan eta nekazaritza eredutan gertatzen da hori batez ere, eta komertzializatzeko bide motzetarako eta autokontsumarako baratze sektorean gutxiago.
- Tokiko hazien elkartrukearen pixkanakako galera aurreko bi joeren ondorioz.
- Legeak sartzea. Horrek haziak elkartrukatzea eta erregistratuta ez dauden tokiko hazi barietateak eta landareak saltzea asko zailtzen du.
- Nekazaritzako elikagaien industriak haiek hornitzen dituzten nekazariari landatu beharreko barietateak zeintzuk behar duten izan ezarri die, patataren sektorean adibidez.
- Denbora gutxiago dutenez nekazariarentzat errazagoa da haziak erostea haiek gordetzea baino, haien ezaugarriengatik maneiatzeko zailak diren espeziak batez ere.

Ikerketa honek, EAEn erregistraturik ez dauden barietateak gordetzeko, elkartrukatzeko eta komertzializatzeko bideak zehaztea, ondare agro-genetikoak duten eragina kalifikatzea eta eragina negatiboa izanez gero hainbat neurri proposatzea ditu helburu.

6. LAGINKETAREN EMAITZAK

Kapitulu honetan prospekzioaren aurkezpena, horren datu teknikoak, herrialde eta eskualdekako emaitzak eta, lan osoaren laburpen moduan, topatutako barietate guztien deskribapena.

6.1. Datuen aurkezpena

Eskualde bakoitzean gutxienez 8 laginketa egin ziren, hots, 8 baserritarrekin egin ziren elkarrizketak. Ahal izan zen guztietan gehiago ere egin ziren. Informazio bilketa baserrietara eta nekazaritzako ustiaketara hurbilduz egin zen, zuzenean baserritarrekin harremanetan jarriz. Kasu batzuetan, eskualdeotan astero egiten diren nekazari azoketara ere hurbildu zen informazio gehiago eta kontaktuak lortzeko asmoz, baserritar askok nekazari azoketan saltzen baitituzte beren produktuak. Eskualde bakoitzean bisitatu diren udalerrriak eta azokak ondoko taula hauetan azaltzen dira: 4., 5. eta 6. taulan. 7. taulan informazioa EAE mailan laburtuta agertzen da.

Lurraldeka, Araban 15 herri bisitatu dira. Bertan 61 baserritarri egin zaio inkesta eta 330 barietate fitxa bate dira guztira (4. taula). Gipuzkoan, 27 herri bisitatu dira, 71 inkesta egin dira eta 429 barietate fitxa bete dira (5. taula). Azkenik, Bizkaian, 43 herri bisitatu dira, 107 nekazariri inkesta egin zaie eta 702 barietate fitxa bete dira (6. taula). Laburpen modura, EAEn 84 herri bisitatu dira, 239 pertsonari egin zaio inkesta eta guztira, 1461 barietate fitxa bete dira. (7. taula)

4. taula: Araban bisitatutako herriak, egindako inkesta kopurua eta betetako barietate fitxen kopurua

Eskualdea	Herria	Inkesta kopurua	Barietate fitxa kopurua
Gorbeialdea	Zigoitia	6	25
	Zuia	4	7
	Aramaio	2	7
<i>Eskualdea guztira</i>	3	12	39
Arabako haranak	Gobiaran	11	37
	Kuartango	3	12
<i>Eskualdea guztira</i>	2	14	49
Arabako kantaurialdea	Amurrio	3	28
	Laudio	5	47
<i>Eskualdea guztira</i>	2	8	75
Arabako lautada	Barrundia	5	9
	Zuhatsu Donemiliaga	3	10
<i>Eskualdea guztira</i>	2	8	19
Arabako mendialdea	Arraia -Maeltu	4	42
	Harana	3	27
	Kanpezu	4	38
<i>Eskualdea guztira</i>	3	11	107
Arabako Errioxa	Lantziego	3	15
	Laguardia	1	6
	Navaridas	4	20
<i>Eskualdea guztira</i>	3	8	41
<i>Herrialdea guztira</i>	15	61	330

5. taula: Gipuzkoan bisitatu diren udalerriak, egindako elkarrizketa kopurua eta betetako barietate fitxa kopurua

Eskualdea	Herria	Inkesta kopurua	Barietate fitxa kopurua
Deba Garaia	Eskoriatza	2	7
	Arrasate/Mondragón	3	18
	Aretxabaleta	1	7
	Bergara	2	9
<i>Eskualdea guztira</i>	4	8	41
Urola kosta	Beizama	1	12
	Zarautz	7	18
	Zumaia	1	2
	Aia	1	3
	Getaria	2	9
	Antzuola	1	6
<i>Eskualdea guztira</i>	5	13	50
Deba barrena	Mendaro	3	13
	Elgoibar	3	23
	Eibar	2	10
<i>Eskualdea guztira</i>	4	8	46
Goierri	Ezkiio-itsaso	3	29
	Ormaiztegi	4	29
	Lazkao	1	9
	Olaberria	2	14
<i>Eskualdea guztira</i>	4	10	81
Tolosaldea	Tolosa	1	9
	Hernialde	3	16
	Asteasu	4	20
	Anoeta	2	15
<i>Eskualdea guztira</i>	4	10	60
Donostialdea	Astigarraga	1	4
	Andoain	4	32
	Urnieta	3	18
	Hernani	3	18
<i>Eskualdea guztira</i>	4	11	72
Bidasoa Behea	Hondarribia	8	61
	Irun	3	18
<i>Eskualdea guztira</i>	2	11	79
<i>Herrialdea guztira</i>	27	71	429

6. taula: Bizkaian bisitatu diren udalerrriak, egindako elkarrizketa kopurua eta betetako barietate fitxa kopurua

Eskualdea	Herria	Inkesta kopurua	Barietate fitxa kopurua
Markina-Ondarroa	Markina-Xemein	3	25
	Ispazter	2	11
	Lekeitio	1	3
	Ondárroa	2	4
	Berriatua	1	3
	Aulestia	1	5
	Etxebarri	5	41
	Bolibar	3	23
<i>Eskualdea guztira</i>	<i>8</i>	<i>18</i>	<i>115</i>
Gernika-Bermeo	Gautegiz Arteaga	1	4
	Ereño	1	1
	Errigoiti	1	7
	Bermeo	1	12
	Forua	4	20
	Ajangiz	3	21
	Nabarniz	1	1
	Gernika-Lumo	3	43
	Muxika	3	28
	Arratzu	2	13
	Ibarrangelu	1	3
	Kortezubi	3	21
<i>Eskualdea guztira</i>	<i>12</i>	<i>24</i>	<i>174</i>
Enkarterriak	Karrantza	17	44
	Zalla	1	3
<i>Eskualdea guztira</i>	<i>2</i>	<i>18</i>	<i>47</i>
Plentzia- Mungia	Gamiz-Fika	2	9
	Bakio	1	5
	Mungia	3	27
	Maruri-Jatabe	1	3
	Gatika	1	14
	Laukiz	1	17
<i>Eskualdea guztira</i>	<i>6</i>	<i>9</i>	<i>75</i>
Bilbo Handia	Basauri	1	4
	Erandio	7	40
	Leioa	1	7
	Larrabetzu	1	15
	Derio	2	26
	Zamudio	1	9
	Loiu	2	6
<i>Eskualdea guztira</i>	<i>7</i>	<i>15</i>	<i>107</i>
Arratia-Nerbioi	Amorebieta-Etxano	2	21
	Dima	7	61
	Otxandio	3	9
<i>Eskualdea guztira</i>	<i>3</i>	<i>12</i>	<i>91</i>
Durangaldea	Berriz	2	22
	Zaldibar	1	1
	Iurreta	5	36
	Abadiño	5	27
	Elorrio	1	7
<i>Eskualdea guztira</i>	<i>5</i>	<i>12</i>	<i>93</i>
<i>Eskualdea guztira</i>	<i>43</i>	<i>107</i>	<i>702</i>

7. taula. Herrika egindako eta herrialdeka betetako fitxa kopuruaren laburpena.

	Herri kopurua	Inkesta kopurua	Fitxa kopurua
Araba	15	61	330
Gipuzkoa	27	71	429
Bizkaia	43	107	702
Total	84	239	1461

Elkarrizketatuek emandako informazio orokorra laburbiltzeko eskualdekako bina taula egin ziren. Lehenengo taulak honako hau jasotzen du: baseritarren informazioa, gordetzen dituen aldaera motak, hazien jatorria, hazien erabilera, noiztik erabiltzen duten hazia, nekazaritza mota eta abar (I. Eranskina).

Egin diren barietate fitxak aztertu eta ezaugarri berdinak dituztenak taldekatu egin dira eta taldeko fitxak barietate berdintzat jo ditugu. Lan horren emaitza, aurkitutako barietate ezberdinen fitxak dira. Orotara 85 izan dira (II. Eranskina). 2. taulan, eskualdeko aurkitutako barietateak laburbiltzen dira, familiaren eta motaren arabera sailkatuz, eskualde bakoitzean gehien aurkitutako barietatea edo barietateak ere zehazten dira eta aurkitutako barietate guztiak gordetzen dituzten kazetari kopurua.

Bestalde, betetako barietateen fitxak ikertu dira eta antzeko ezaugarriak zituztenak taldetan bildu dira, talde bakoitzeko fitxak barietate bakartzat hartuz. Lanaren emaitza barietate ezberdinen fitxak dira, 96 guztira (II. eranskina).

Hala ere, egindako prospekzioek eskualde bakoitzeko barietate guztiak ez dituztela erakusten nabarmendu behar da; horretarako, laginketa baserri guztietan egin beharko litzateke (landa barietateetako haziak erabiltzen, elkartrukatzen edo/eta gordetzen dituzten pertsona kopuru osoa ezagutzeko zailtasunen berri izateko, ikus 4.3 atala Baina egindako prospekzioek aniztasuna eta leku bakoitzean erabiltzen diren bertako barietateak islatzen dituztela uste dugu, elkarrizketatutako pertsona kopurua handia izan dela kontuan hartuta; beraz, lortutako maiztasun indizeak adierazgarriak dira galtze arriskua, hedadura edo eskualdeari lotutako barietatea den baloratzeko garaian. Gernika-Bermeo (Bizkaia) eskualdean izandako emaitzek, non fitxa kopuru altuagoa bildu arren ez den barietate kopurua nabarmen aldatu, susmo hori egiaztatzen dute.

6.2. Arabako laginketa

Lehendabiziko azpiatalean lagindutako eskualdeak deskribatzen dira eta laginketa eta elkarrizketatuen zenbait datu ere azaltzen dira. Bigarren azpiatalean Araba mailan aurkitutako barietateak laburbiltzen dira.

6.2.1. Emaitzak lagindutako eskualdeetan

Arabako laginketa bi alditan egin da. Lehenengoa 2005-2006 denboraldian egin zen eta Gorbeialdea eskualdearen laginketa egin zen; bigarren aldian edo 2006-2007 denboraldian herrialdea lagintzen amaitu dugu; Arabako Lautada, Arabako Haranak, Arabako Kantaurialdea, Arabar Mendialdea eta Arabar Errioxa.

6.2.1.1. Gorbeialdea

Gorbeialdea eskualdea Arabako iparraldean dagoen eskualdea da, eta bost udalerrri nagusi hartzen ditu barne: Aramaio, Legutiano, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuia. Mendialdeko klima dauka: udan temperatura freskoa izaten da, eta neguak oso hotzak izaten dira. Ekonomia jarduera nagusia industria da, hala ere lehenengo sektoreak oraindik paper garrantzitsua du; populazioaren %6,4k horretan lan egiten du (Urkabustaizen %9,9). Nekazaritzako ustiaketen erdian baino gehiagotan abere hazkuntza egiten da. Lur landuaren erabilpen nagusia abereen bazkarako belardiak dira, nahiz eta Zigoitian eta Urkabustaizen erein intentsiboa handia den. Baserriek duten baratzea txikia izan ohi da eta, oro har, etxerako baratzea egiten dute.

Laginketaren emaitzak

Eskualde honetan 12 elkarrizketa egin dira: 6 elkarrizketa Zigoitian, 2 elkarrizketa Aramaion eta 4 Zuian. Elkarrizketatutako guztiak jubilatuak dira, eta baserrian inork ez du baratza landuko hauek uzten dutenean. Egiten duten baratzea etxerakoa da; ez dute azoketan saltzen eta nekazaritza mota konbentzionala da. 44 fitxa osatu ziren, 23 barietate ezberdinei zegozkienak.

Barietateen jatorriari eta erabilerari dagokionez, barietateen %84 belaunaldiz belaunaldi pasatuz joan dira eta 20 eta 60 arteko antzinatasuna dute. Bizilagunen arteko truke bidez lortutako barietateak %16 dira eta 5 eta 20 urte arteko antzinatasuna dute. Ez dira 20 urte baino gutxiagoko barietate komertzialak aurkitu, haien erabilera oso zabaldua badago ere. (8. taula)

8. Taula. Prospekzioaren ezaugarriak: Gorbeialdea

Nekazaritza mota		Norbere kontsumorako edo saltzeko		Jarraipena		Jatorria (%) eta antzinatasuna (urteak)		
Ohikoa	ekologikoa	Norbere kontsumorako	Saltzeko	Bai	Ez	Etxekoa	Trukea	Erositakoa
% 100		%100			%100	%84 20-60	%16 5-20	%9

Eskualde horretan betetako 44 fitxetatik, 23 barietate sailkatu dira. Topatutako barietateak ez dira eskualdean errepikatzen, baina oso gutxi dira beste eskualdeetan agertzen ez direnak. Indaba aniztasuna izan daiteke aipagarriena.

Kukurbitazeoei dagokienez, pepinoa, kalabazin berdea eta kalabaza apaingarriak erein eta gordetzen dituzte nekazari gutxi batzuek; kalabazin berdea bi nekazarik gorde eta ereiten dute eta beste barietateak nekazari banak. Pepino haziak pertsona bakar batek gordetzen ditu.

Lekadunetan honako hauek sartzen dira: indaba pinto arabarra, Gernikako indaba, indaba tolosarra baxukoa, indaba gorria, indaba gorri baxukoa, indaba zuria, leka goranzkoa —edo kaparra— eta baba handia. Gehien gorde eta ereiten den barietatea leka goranzkoa da; lau nekazarik gordetzen eta ereiten dute. Indaba gorriaren kasuan hiru pertsonak haziak gordetzen dute. Beste barietate batzuei dagokienez, indaba tolosarra eta indaba zuria bina nekazarik gorde eta ereiten dute, eta gainerako barietateak, nekazari banak.

Solanazeoetan bi multzo egin dira: piperrena eta tomateena. Piperretan honako hauek dira gorde eta ereiten direnak: *cuernocabra* piperra, piper lodia —edo erretzeko piperra— eta tokiko pipermina. Tomateen artean, tomate nanoa, entsalada tomatea eta tomate kizkurra erein eta gordetzen dituzte. *Cuernocabra* piperra hiru nekazarik gordetzen dute, entsalada tomatea bi nekazarik eta gainerakoak nekazari banak.

Kenopodiazeoen artean, tokiko zerba bi nekazarik gorde eta ereiten dute. Konposatuei dagokienez, udaberriko uraza kizkurra nekazari batek ereiten eta gordetzen du. Kruziferoei dagokienez, neguko aza eta bazka arbia gorde eta ereiten dute nekazari banak. Unbeliferoen artean, tokiko perrexilaren haziak nekazari bakar batek erabiltzen ditu.

Lilizeoen familiatik, tokiko porrua da gorde eta ereiten den bakarra; hori ere, nekazari bakar batek egiten du. Gramineoei dagokienez, irina egiteko artoa erein eta gordetzen du nekazari batek.

6.2.1.2- Arabako Haranak

Eskualdea Araba herrialdearen hego-mendebaldean dago. Bertako herririk garrantzitsuenak Armiñon, Berantevilla, Kuartango, Lantarón, Erriberagoitia, Erriberabeitia, Añana, Gaubea eta Zanbrana dira. Klima trantsiziozkoa da, atlantikoaren eta mediterranearraren artekoa. Inguruneoko okupazio nagusia industria da, nahiz eta baden oraindik nekazaritzatik bizi den jendea, patata, laboreak eta erremolatxa lantzen, batez ere. Baserri gehienek baratze txikia dute, norberaren kontsumorako lantzen dutena.

Laginetaren emaitzak.

Eskualde honetan 14 elkarrizketa egin ditugu: 11 Gobiaren eta 3 Kuartangon. Elkarrizketatutako pertsona guztiak erretiratuta daude eta batek ere ez du baratzeetan lanean jarraituko duen ordeko belaunaldirik. Etxeko kontsumora zuzendutako baratzeak dira; horregatik ez dute azoketan produkturik saltzen eta ohiko nekazaritzan oinarritzen dira. Eskualde honetan 49 barietate-fitxa bete dira eta horietatik 21 jotzen dira bereizgarritzat, hasiera batean, behintzat.

Barietateen jatorriari eta adinari dagokienez, gehienak (%63) baserrikoak dira, belaunaldiz belaunaldi iraun dute eta 20 eta 65 urte bitarteko antzinatasuna dute. Eskualdean aurkitutako barietateen %37 bizilagunen arteko trukearen bitartez lortu dira. Azken horiek, zaharrenak, orain dela 20 urtekoak dira eta gazteenak 5 urtekoak. Ez dugu aurkitu 20 urtetik gorako barietate komertzialik, elkarrizketatutako pertsonetako batzuek erabiltzen dituzten arren.

9. taula. Prospekzioaren ezaugarriak: Arabako Haranak

Nekazaritza mota		Norbere kontsumorako edo saltzeko		Jarraipena		Jatorria (%) eta antzinatasuna (urteak)		
Ohikoa	Ekologikoa	Norbere kontsumorako	Saltzeko	Bai	Ez	Etxekoa	Trukea	Erositakoa
%100		%100			%100	%63 20-65	%37 5-20	

Eskualde honetan 49 fitxa bete dira eta horietan 21 barietate sailkatu dira. Beste hainbat eskualdetan bezala, gehien errepikatzen den barietatea *Phaseolus vulgaris* da (indaba leka); espeziearen 6 barietate aurkitu dira.

Barietate ugarienen artean porrusalda kuia, Arabako indaba pintoa, indaba igokaria eta entsalada tomatea nabarmendu behar dira. Horiek dira gehien lantzen diren barietateak (porrusalda kuia 8 pertsonak lantzen dute eta gainerako barietateak 5 elkarrizketatuk lantzen dituzte).

Familien arabera sailkatuz gero, kukurbitazioen artean, porrusalda kuia eta kuitxo berdea lantzen dira, baina azken hori elkarrizketatutako pertsona bakar batek lantzen du.

Lekadunei dagokienez, lehen esan bezala, askotariko barietateak daude, besteak beste Arabako indaba pintoa, indaba gorria, mulu baxuko indaba gorria eta indaba zuria. Bertako ilar barietatea ere aurkitu dugu. Arabako indaba pintoa 8 pertsonak lantzen dute; indaba igokaria 5ek; indaba gorria eta mulu baxuko indaba gorria bina pertsonak; eta gainerako barietateak pertsona banak.

Solanazeoen kasuan, 4 piper barietate eta 2 tomate barietate aurkitu ditugu. Piper barietateen artean ditugu *cuernocabra* piperra, Ibarako piperra, pipermorrea eta piper txorizeroa. Tomateetan, aldiz, entsalada tomatea eta eskegitzeko tomatea aurkitu ditugu. Entsaladarako tomatea 5 nekazarik lantzen dute, pipermorrea eta eskegitzeko tomatea 3k, piper txorizeroa 2 nekazarik eta gainerakoak, pertsona banak barietate bakoitza.

Konposatuen alorrean, uraza barietate bat aurkitu dugu: uraza kizkurra, nekazari bakarrak lantzen duena. Gauza bera gertatzen da kruziferoen atalean neguko azarekin. Azkenik, liliazeoetan porru berdea eta horia eta tipula gorria eta zuria aurkitu dira. Tipula gorria eta porru berdea 2 elkarrizketatuk lantzen dute eta gainerako barietateak pertsona banak barietate bakoitza.

6.2.1.3- Arabako Kantaurialdea

Arabako ipar-mendebaldean dago eskualde hau. Amurrio, Laudio, Artziniega, Aiara eta Okondo ditu herri nagusiak eta, horien artean, Amurrio eta Laudio dira biztanle gehien dituztenak. Klima atlantikoa du; temperatura hotz eta freskoak neguan eta epelak uda garaian. Jarduera ekonomiko nagusia industria da, biztanle gehien dituzten inguruneetan, bereziki, baina horietatik hurbil dauden herrietan bada oraindik baratzea lantzen aritzen den nekazaririk ere. Horietako batzuek beren produktuak saltzen dituzte asteroko azoketan. Baserri gehienek etxeko kontsumorako baratzea dute.

Laginketaren emaitza

Zortzi elkarrizketa egin ditugu eskualde honetan; 3 Amurrion eta 5 Laudion. Elkarrizketatutako pertsonen %87 erretiratuta dago eta batek ere ez du baratzeetan lanean jarraituko duen ordezko belaunaldirik. Gehienek, %63k, etxeko kontsumora zuzendutako barietateak lantzen dituzte, eta %37k asteroko azoketan saltzen ditu produktuak. Elkarrizketatutako guztiak ohiko nekazaritzan oinarritzen dira. 75 barietate-fitxa bete dira eta horietan 25 hazi barietate berezi ditugu.

Jatorriari eta antzinatasunari dagokienez, barietateen %74 belaunaldi belaunaldi transmititu direla frogatu ahal izan da, eta 20 eta 65 urte bitarteko antzinatasuna dute. Barietateen %26 truke bidez lortu dira eta 5 eta 15 urte arteko antzinatasuna dute. Ez ditugu aurkitu 20 urtetik gorako barietate komertzialik, erabiltzen direla jakina den arren.

10. taula. Prospekzioaren ezaugarriak: Arabako Kantaurialdea

Nekazaritza mota		Norbere kontsumorako edo saltzeko		Jarraipena		Jatorria (%) eta antzinatasuna (urteak)		
Ohikoa	Ekologikoa	Norbere kontsumoa	Salmenta	Bai	Ez	Etxekoa	Trukea	Erosia
%100		%63	%37	%13	%87	%74	%26	
						20-65	5-15	

Barietateei dagokienez, 75 fitxa egin dira orotara eta 25 barietate ezberdin sailkatu dira horietatik abiatuta. Espezie dibertsifikatuena, eskualde guztietan bezala, *Phaseolus vulgaris* (indaba leka) da; espezie horren 8 barietate aurkitu dira. Barietate ohikoenen artean daude, besteak beste: porrusalda kuia, Tolosako babarruna, piper txorizeroa eta pipermorroa. Porrusalda kuia eta piper txorizeroa 8 nekazarik lantzen dute, piper txorizeroa 7k eta Tolosako babarruna 6 pertsonak.

Familiaka sailkatuta, kukurbitazeoei dagokienez, bazka kuia, porrusalda kuia eta kuiatxo berdea aurkitu dira. Horiek lantzen dituzte elkarrizketatutako 2 pertsonak, 8 pertsonak eta pertsona batek, hurrenez hurren.

Lekadunekin jarraituta, indaben artean barietate dibertsitate nabarmena dago. 7 indaba eta leka barietate ezberdin aurkitu dira; 6 nekazarik ereiten du Tolosako babarruna, 2 nekazarik Arabako indaba pintoa, 4 nekazarik Gernikako indaba eta indaba zuria eta gainerako barietateak nekazari batek lantzen du bakoitza. Lekadunen artean, halaber, indaba igokaria, baba handia eta tokiko ilarra ere lantzen dira. Lau nekazarik lantzen dute lehena, 3 nekazarik bigarrena eta bakar batek azkena.

Solanazeoei dagokienez, 4 piper barietate eta beste 4 tomate barietate aurkitu dira. Piperren atalean, *cuernocabra* piperra, pikillo piperra, pipermorroa eta piper txorizeroa aurkitu dira. Tomateen atalean, berriz, tomate nanoa, entsalada tomatea, tomate morea eta tomate udarekara. Piper txorizeroa 8 elkarrizketatuk lantzen dute, pipermorroa 7 pertsonak, entsaladarako tomatea 4k lantzen dute, tomate udarekara 3 nekazarik dute baratzean, tomate nanoa 2 pertsonak lantzen dute eta gainerako barietateak, nekazari batek lantzen du bakoitza.

Zerbak dira kenopodiazeoen artean aurkitu dugun barietate bakarra, eta hori bi nekazarik lantzen dute. Gauza bera gertatu da kruziferoekin; aurkitutako barietate bakarra da neguko aza, eta hori 3 pertsonak lantzen dute. Azkenik, liliazeoen artean, porru berdea eta Zallako tipula gorria aurkitu dugu, 3 pertsonak lantzen dute lehena eta bakar batek bigarrena.

6.2.1.4- Arabako Lautada

Arabako Lautada Arabako erdian dago. Hedadura handieneko eskualdea da eta klima subatlantikoa du; negu oso hotzak eta uda oso beroak. Honakoak dira Arabako Lautadako udalerrak: Dulantzi, Arratzu-Ubarrundia, Asparrena, Barrundia, Burgu, Iruña Oka, Iruraitz-Gauna, Agurain, Donemiliaga, Gasteiz eta Zaldondo Industria da jarduera ekonomiko nagusia eta Gasteizen, hiriburuan, du gune handiena, baita Iruña Okako, Aguraingo, Aranako eta Gasteiz inguruko industrialdeetan ere. Gainerako herrietan zerealen, erremolatxaren, patataren eta abarren laborantza estentsiboa da nagusi. Baserrietan baratze txikiak ere badira, batez ere norbere kontsumora zuzendutakoak.

Laginketaren emaitzak

Bi udalerritan egin dira laginketak eta 8 inkesta egin dira orotara. Barrundian 5 inkesta egin dira eta beste hiru Donemiliagan. 19 fitxa bete dira eta 9 barietate aurkitu dira horietan.

Elkarrizketatutako pertsona guztiak ohiko nekazaritzan dihardute norbere kontsumorako. Jarraipenari dagokionez, bakar batek ere ez du baratzeaz arduratuko den belaunaldi errelebo. Barietateen jatorriaren aldetik, elkarrizketatuen artean %84k etxeko haziak gorde ditu eta %16k bizilagunen arteko trukearen bitartez lortu ditu. Barietateen antzinasunaren alorrean, etxekoak dira zaharrenak, 45 eta 65 urte artekoak, eta truke bidez lortutakoak 7 eta 15 urte artean dituzte (11. taula).

11. taula. Prospekzioaren ezaugarriak: Arabako Lautada

Nekazaritza mota		Norbere kontsumorako edo saltzeko		Jarraipena		Jatorria (%) eta antzinatasuna (urteak)		
Ohikoa	Ekologikoa	Norbere kontsumoa	Salmenta	Bai	Ez	Etxekoa	Trukea	Erosia
%100		%100			%100	%84	%16	
						45-65	7-15	

Eskualdean egindako 8 inkestetan 19 fitxa bete dira. Horietan 9 barietate ezberdin bildu dira.

Barietate ugariak Arabako indaba pintoa, indaba zuria eta indaba igokaria dira. Lehena 4 nekazarik lantzen dute, bigarrena 3k eta hirugarrena beste 4 nekazarik.

Bi familia baino ez dira aurkitu; lekadunak eta solanazeoak. Lekadunen artean daude Arabako indaba pintoa, indaba gorria, mulu baxuko indaba gorria, indaba zuria, indaba igokaria eta bertako ilarra. Indaba gorria eta indaba igokaria 4 elkarrizketatuk lantzen dute, Arabako indaba pintoa 3 pertsonak, mulu baxuko indaba gorria 2 nekazarik lantzen dute eta indaba gorria eta bertako ilarra pertsona banak lantzen ditu.

Solanazeoen artean pipermorrea, piper txorizeroa eta limonero tomatea ditugu. Piper txorizeroa bi nekazarik lantzen dute eta bi nekazarik gauza bera egiten dute gainerako barietateekin.

6.2.1.5- Arabako Errioxa

Arabako Errioxa lurraldearen hegoaldean dago. Honakoak dira bertako udalerrak: Eltziego, Bastida, Guardia, Lantziego, Lapuebla de Labarca, Navaridas, Oion eta Samaniego. Bertako klima barnealdeko mediterranearra da, beraz, klima lehorra dute; udan tenperatura altuak dituzte eta hotzak, aldiz, neguan, prezipitazio gutxirekin. Mahastiak landatzeko klima egokia da, baita ardoa ekoizteko ere. Ardogintza da, hortaz, eskualdeko jardura ekonomiko nagusia. Nekazariak mahastiak lantzen dituzte gehienbat, baina horietako batzuek norbere kontsumora zuzendutako baratzeei eusten diete. Baratzeok herrien kanpoaldean izaten dira.

Laginketaren emaitzak

Orotara, 8 inkesta egin ditugu Arabako Errioxan; 3 inkesta Lantziegon, inkesta 1 Guardian eta 4 galdetegi Navaridasen. 41 fitxa bete dira guztira eta hortik 15 tokiko barietate ezberdin sailkatu ditugu. Elkarrizketatu guztiak ohiko nekazaritzan jarduten dira eta norbere kontsumorako lantzen dituzte baratzeak. Horietako batek ere ez du jarraipenik izango baratzeetan; baratzeak landuko dituen belaunaldi aldaketarik ez dago.

Hazien jatorriari dagokionez, barietateen %83 etxeko haziak dira, belaunaldiz belaunaldi transmititu direnak, eta %17 bizilagunen arteko truke bidez lortutakoak dira. Etxeko jatorria duten tokiko barietateen artean 45 eta 60 urte artekoak aurkitu ditugu eta truke bidez lortutakoetan, aldiz, 8 eta 10 urte

bitartekoak. Ez ditugu aurkitu 20 urtetik gorako barietate komertzialik, hortik beherakoak erabiltzen diren arren.

12. taula. Prospekzioaren emaitzak: Arabako Errioxa

Nekazaritza mota		Norbere kontsumorako edo saltzeko		Jarraipena		Jatorria (%) eta antzintasuna (urteak)		
Ohikoa	Ekologikoa	Norbere kontsumoa	Salmenta	Bai	Ez	Etxekoa	Trukea	Erosia
%100		%100			%100	%83	%17	
						45-60	8-10	

Egindako 8 galdetegietatik 41 fitxa bete ahal izan ziren eta, horietatik, 15 barietate ezberdin sailkatzeko aukera izan dugu.

Aurkitutako barietateen artean kuitxo berdea, Arabako indaba pintoa, baba handia, *cuernocabra* piperra eta uraza gorria dira ugarienak. Arabako indaba pintoa elkarrizketatutako 5 pertsonak lantzen dute eta gainerako barietateak, aldiz, 4 nekazarik lantzen dituzte.

Kukurbitazeoen artean ditugu luzokerra, kuitxo berdea eta kuitxo hori-zuria. Kuitxo berdea 4 nekazarik lantzen dute eta kuitxo hori-zuria eta luzokerra, aldiz, pertsona bakar batek barietate bakoitza.

Lekadunen sailean, 3 barietate aurkitu ditugu; Arabako indaba pintoa, baba handia eta indaba igokaria; elkarrizketatuen artean, lehena 5 pertsonak lantzen dute, bigarren 4 nekazarik, eta azkena bakarrak.

Solanazeoen atalean, 3 piper barietate aurkitu ditugu; *cuernocabra* piperra, Italiako piperra eta pikillo piperra. Horiez gain, tomate barietate bat ere antzeman dugu; tomate udarekara. *Cuernocabra* piperra elkarrizketatutako 4 pertsonak lantzen dute eta gainerako barietateak 3 pertsonak barietate bakoitza, pikillo piperra izan ezik; nekazari bakarrak lantzen du hori.

Kenopodiazeoei dagokienez, tokiko zerba baino ez dugu antzeman, elkarrizketatutako pertsonetako 3k baino lantzen ez dutena. Konposatuen taldean, uraza barietate bat (uraza gorria) eta tokiko orburu barietate bat detektatu ditugu. Uraza gorria 4 elkarrizketatuk lantzen dute eta beste 3k tokiko orburua. Azkenik, liliazeoen arloan, porru berdea eta tipula zuria gordetzen dira, eta horiek lantzen dituztenak 3 dira porruaren kasuan eta bakarra tipularenean.

6.2.1.6- Arabako Mendialdea

Lurraldearen hego-mendebaldean dago Arabako Mendialdea. Sei udalerririk osatzen dute eskualde hau: Arraia-Maeztu, Bernedo, Kanpezu, Lagran, Urizaharra eta Harana. Mendiko klima du eta, beraz, tenperatura hotzak dituzte neguan eta freskoak udan. Prezipitazio aldetik, oso ugariak dira, batez ere neguan. Nekazaritza jarduera ekonomiko nagusia, patataren eta zerealaren lanketa, batik bat. Nekazariak norbere kontsumorako baratzeei ere eusten diete, herrien kanpoaldean kokatu ohi dituztenak.

Laginketaren emaitzak.

Eskualde honetako udalerritan egin da laginketa eta 11 inkesta egin dira, jarraian azaltzen den moduan: 4 inkesta egin ditugu Arraia-Maeztun, 3 Haranan eta 4 inkesta Kanpezun. Orotara, 107 fitxa bete dira eta horiek 30 barietatetan sailkatu dira.

Elkarrizketatutako pertsona guztiek nekazaritza ohikoan aritzen dira eta baratzeak norbere kontsumorako dira. Baratzeetako batek ere ez du belaunaldi aldaketa egiteko modurik, alegia, egun baratzea lantzen aritzen direnez gain, inor ez da arduratuko baratzeak lantzeaz.

Hazien jatorrari dagokionez, aurkitutako barietateen %78 belaunaldiz belaunaldi iraun duten haziak dira eta %22, aldiz, bizilagunen artean egindako trukeetan lortutakoak dira. Barietatearen antzinatasunari buruz, zera esan daiteke: etxeke barietateak edo belaunaldiz belaunaldi transmititutakoak 45 eta 65 urte bitartean daude, eta truke bidez lortutakoak, berriz, 6 eta 15 urte artean. Ez dugu aurkitu 20 urte baino gehiagoko barietate komertzialik, baina erabiltzen direla ziurra da.

13. taula. Prospekzioaren ezaugarriak: Arabako Mendialdea

Nekazaritza mota		Norbere kontsumorako edo saltzeko		Jarraipena		Jatorria (%) eta antzinatasuna (urteak)		
Ohikoa	Ekologikoa	Norbere kontsumoa	Salmenta	Bai	Ez	Etxekoa	Trukea	Erosia
%100		%100			%100	%78	%22	
						45-65	6-15	

Egindako 11 inkestetatik 107 barietate fitxa lortu genituen eta 30 barietate ezberdinetan sailkatu genituen. Barietateak aztertuta, *Phaseolus vulgaris* (indaba leka) espeziea eta *Capsicum annuum* (piperrak) espeziea dira barietate dibertsitate handiena dutenak; *Phaseolus vulgaris* espezieko 7 barietate aurkitu ditugu eta *Capsicum annuum* espezieko 6 barietate.

Aurkitutako barietateei dagokionez, gehien lantzen diren barietateak porrusalda kuia, Arabako indaba pintoa, cuernocabra piperra eta tomate udarekara dira. Elkarrizketatuen artean 8 pertsonak lantzen dituzte porrusalda kuia, Arabako indaba pintoa eta cuernocabra piperra, eta gainerako barietateak lantzen dituzte 7 pertsonak.

Kukurbitazeoen artean aurkitu ditugu luzokerra, bazkarako kuia, zirikilote kuia, porrusalda kuia, kuiatxo berdea eta kuiatxo hori-zuria. Porrusalda kuia elkarrizketatutako 8 pertsonak gordetzen dute, kuiatxo berdea horietatik 8k eta gainerakoetan 2 pertsonak lantzen du barietate bakoitza.

Lekadunen atalean 6 indaba barietate aurkitu dira; Leongo indaba, Genevilla indaba, arroz indaba, Arabako indaba pintoa, babarrun gorria eta Tolosako babarruna. Indaba igokariaren barietate bat ere aurkitu dugu. Arabako indaba pintoa elkarrizketatutako 8 pertsonak lantzen dute, indaba igokaria 6 pertsonak, arroz indaba eta (ik. iruzkina) 5 pertsonak bakoitza, 4 pertsonak lantzen dute Tolosako babarruna eta gainerakoetan, pertsona batek lantzen du barietate bakoitza.

Solanazeoen taldetik, 6 piper barietate eta 2 tomate barietate aurkitu dira. Piperren artean daude *cuernocabra* barietatea, Italiako piperra, pipermorrea, pikillo piperra, pipermin txikia eta piper txorizeroa. Tomateen artean entsaladarako tomatea eta tomate udarekara dira aurkitutakoak. Cuernocabra piperra elkarrizketatutako 8 pertsonak lantzen dute, tomate udarekara 7 nekazarik lantzen dute, pikillo piperra 5ek, Italiako piperra, pipermorrea eta entsaladarako tomatea 4 pertsonak barietate bakoitza eta pipermin txikia eta Italiako piperra, azkenik, pertsona bakarrak barietate bakoitza.

Kenopodiazeoen atalean ditugu tokiko ziazerba eta aza; lehena pertsona bakarrak lantzen du eta bigarrena 4 pertsonak.

Konposatuen kasuan, tokiko uraza, uraza gorria, neguko uraza, uraza kizkurra eta endibia aurkitu dira. Uraza gorria elkarrizketatutako 4 pertsonak lantzen dute, uraza gorria 3 nekazarik eta endibia eta neguko uraza 2 pertsonak.

Unbeliferoetan 3 pertsonak eusten diote tokiko perrexilari eta, azkenik, liliazeoen atalean tipula zuria dago, elkarrizketatutako 2 pertsonak lantzen dutena.

6.2.2. Emaizak barietateen arabera

Ondoko taula, Araba herrialdean aurkitutako barietateen laburpena dago. (14. taula)

14. taula: Arabako eskualde bakoitzean gordetzen diren barietateen laburpena (kurtsibaz daude gehien gordetzen diren barietateak, eta parentesi artean barietatea gordetzen duten pertsona elkarrizketatuen kopurua)

Familia	Gorbeialdea	Arabako Haranak	Arabako Kantaurialdea	Arabako Lautada	Arabako Errioxa	Arabako Mendialdea
Kukurbitazeoak	Luzokerra (1)	<i>Porrusalda kuia</i> (5)		Luzokerra (2)	Luzokerra (1)	Luzokerra (3)
	Kuiatxo berdea (2)		Bazkarako kuia (2)	<i>Kuia berdea</i> (4)	Bazkarako kuia (2)	
		Kuiatxo berdea (1)	<i>Porrusalda kuia</i> (8)	Kuiatxo berdea (1)	Kuiatxo hori-zuria (1)	Zirikilote kuia (2)
			Kuiatxo berdea (1)			<i>Porrusalda kuia</i> (8)
						<i>Kuiatxo berdea</i> (7)
					Kuiatxo zuria (7)	
Lekadunak	Arabako indaba pintoa (2)	<i>Arabako indaba pintoa</i> (8)	Arabako indaba pintoa (2)	<i>Arabako indaba pintoa</i> (3)	<i>Arabako indaba pintoa</i> (5)	Leongo indaba (1)
	Gernikako indaba (1)	Babarrun gorria (2)	Arroz indaba (1)	Babarrun gorria (1)	Indaba igokaria (1)	Genevilla indaba (1)
	Babarrun gorria (2)	Babarrun gorri txikia (2)	Gernikako indaba (4)	Babarrun gorri baxua (2)	<i>Baba handia</i> (4)	<i>Arabako indaba pintoa</i> (8)
		Indaba zuria (2)	<i>Tolosako babarruna</i> (6)	<i>Indaba zuria</i> (4)		Arroz indaba (5)
	Mulu baxuko indaba gorria (1)	<i>Indaba igokaria</i> (5)	Mulu baxuko Tolosako babarruna (1)	<i>Indaba igokaria</i> (4)		Babarrun gorria (5)
	Mulu baxuko Tolosako babarruna (2)	Mulu baxuko indaba (1)	Indaba zuria (4)			Tolosako babarruna (5)
				<i>Indaba zuria</i> (3)		
	<i>Indaba igokaria</i> (4)			Tokiko ilarra (1)		Tokiko ilarra (2)
	Baba handia (1)	Tokiko ilarra (1)				
			Indaba igokaria (4)			
		Tokiko ilarra (1)				
Solanazeoak	<i>Cuernocabra piperra</i> (3)	Cuernocabra piperra (1)	Cuernocabra piperra (1)	Pipermorroa (1)	<i>Cuernocabra piperra</i> (4)	<i>Cuernocabra piperra</i> (8)
	Piper lodia edo erretzekoa (1)	Ibarrako piperra (1)	<i>Pipermorroa</i> (7)	Piper txorizeroa (2)		Italiako piperra (4)
	Tokiko pipermina (1)	Pipermorroa (3)	Pikillo piperra (1)		Italiako piperra (3)	Pipermorroa (4)
	Tomate nanoa (1)					Pikillo piperra (5)
	Entsalada tomatea (2)	Piper txorizeroa (2)	<i>Piper txorizeroa</i> (8)	Limonero tomatea (3)	Pikillo piperra (1)	Pipermin txikia (1)
	Tomate kizkurra (1)	<i>Entsalada tomatea</i> (5)	Tomate nanoa (2)		Tomate udarekara (3)	Piper txorizeroa (2)
		Eskegitzeko tomatea (3)	Entsalada tomatea (4)			Entsalada tomatea (4)
			Tomate morea (2)			Tomate udarekara (7)
		Tomate udarekara (3)				

Familia	Gorbeialdea	Arabako Haranak	Arabako Kantaurialdea	Arabako Lautada	Arabako Errioxa	Arabako Mendialdea
Konposatuak	Udaberriko uraza (1)	Uraza kizkurra (1)			<u>Uraza gorria</u> (4)	Tokiko uraza (1)
					Tokiko orburua (3)	Uraza gorria (4)
						Neguko uraza (2)
						Uraza kizkurra (3)
Kenopodiazeoak	Tokiko zerba (2)		Tokiko zerba (2)		Tokiko zerba (3)	Tokiko endibia (2)
						Tokiko zerba (4)
Kruziferoak	Neguko aza (1)	Neguko aza (1)	Neguko aza (3)			Tokiko ziazerba (1)
	Bazka arbia (1)					
Unbeliferoak	Tokiko perrexila (1)					Tokiko perrexila (3)
Liliazeak	<u>Tokiko porrua</u> (3)	Porru berdea (2)	Porru berdea (3)		Porru berdea (1)	
		Porru horia (1)	Zallako tipula gorria (1)		Tipula zuria (3)	Tipula zuria (2)
Gramineak	Irin artoa (1)					
Guztira	23	21	25	9	15	30

6.3. Gipuzkoako laginketa

Hemen ere, lehendabiziko atalean eskualdeka agertzen dira emaitzak eta bigarreanean Gipuzkoakoak bilduta.

6.3.1 Emaitzak lagindutako eskualdearen arabera

Gipuzkoan ere, laginketa 2 fasetan egin izan da; lehen fasean, 2005 eta 2006 urteak, Debagoiena eta Urola Kosta lagindu ziren eta 2.fasean, 2006-2007 aldian, Deba Behera, Goierri, Tolosaldea, Donostialdea eta Bidasoa Behera.

6.3.1.1 Debagoiena

Debagoienak Gipuzkoako hego-ekialdeko lur eremua hartzen du. Zortzi udalerrri dira eskualde honetan; Arrasate, Aretxabaleta, Oñati, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga, Bergara, Antzuola eta Elgeta. Ekonomiari dagokionez, industria da sektore garrantzitsuena udal guztietan. Industriak eskualde honetan duen pisu nabarmena neurri handi batean kooperatiben mugimenduari zor dio. Lehen sektorean bi mila inguru nekazari ustiakuntza edo baserri daude, nahiz eta gehienetan diru sarrera nagusia beste sektoreetatik etorri. 2001ean, bakarrik 238 pertsonak nekazaritza zuen lanbide (Eustat, populazio eta etxebizitza zentsua, 2001.). Lantzen diren lurretatik hiru laurden basogintzarako erabiltzen dira. Gainerakoa batez ere belardiak dira, 5.500 behi eta 19.000 ardientzako bazka egiteko erabiliak (Nekazaritzako zentsua, 1999). Nekazaritza estentsiborik ez dago eta baratzeetan autokontsumorako laboreak ereiten da. Salmentarako baratz edota negutegiak gutxi dira.

Laginketaren emaitzak

Eskualde honetan 8 elkarrizketa egin dira denetara; hiru elkarrizketa Arrasaten, bina elkarrizketa Bergaran eta Eskoriatzan eta bat Aretxabaletan. Guztira, 41 fitxa bete ziren eta 25 barietate ezberdin sailkatu ziren.

Inkestatutako gehienek 60 urte baino gehiago zuten, hiru nekazari gazte izan ezik. Baratzaren jarraipenari dagokionez, datozen urtetarako %13 besterik ez dago ziurtatua.

Egiten duten nekazaritza mota konbentzionala da, kasu batean ezik; nekazaritza ekologikoa egiten baitu. Gehienak saltzeko baratzea egiten dute eta Elgoibarko azokan, Arrasateko azokan eta Zarautzeko azokan saltzen dituzte beren produktuak. Bik etxerako baratzea bakarrik egiten dute. Horrezkero, azpimarratzekoa da, salmentarako egiten den ekoizpena handiagoa dela eskualde honetan.

Espezie guztietan ez dute etxeko edo tokiko barietatea erabiltzen; haziak erosi edo landareak erosteko geroz eta ohitura gehiago dutela aitortu dute gehienek. Etxeko haziak mantentzen dituztenek belaunaldiz belaunaldi pasatutakoak jaso dituzte. Haziak elkartrukatzeko ohitura bazegoela ziurtatzen badute ere, elkarriketatuek, behintzat, jada ez dute mantentzen gaur egun.

Barietateen jatorria eta antzinatasunari dagokionez, barietateen %93a, etxeko barietateka dira; belaunaldiz belaunaldi igaro diren barietateak dira eta 30 eta 60 urte arteko antzinatasuna dute. Bestetik, elkartruke bidez lortutako barietateak, %7a osatzen dute eta 10 eta 15 urte bitarteko antzinatasuna dute. 20 urte baino zaharragoak diren erositako barietaterik ez da aurkitu.

Taula 15. Prospekzioaren ezaugarriak: Debagoiena

Nekazaritza mota		Etxerako edo saltzeko		Jarraipena		Jatorria eta antzinatasuna		
Konbentzionala	Ekologikoa	Etxerako	Saltzeko	Bai	Ez	Etxekoa	Elkartrukea	Erosi
%87	%13	%25	%75	%13	%87	%93	%7	-
						30-60	10-15	

Guztira, hasierako 41 barietate-fitxetatik, berdinak taldekatu ondoren, 25 barietate desberdin aurkitu dira. Erabilienak diren barietateak, Tolosako indaba eta kipula gorria dira, 4 eta 5 baserritarrek erabiltzen baitituzte hurrenez hurren. Beste eskualde batzuetan gertatu ohi den antzera, espezie dibertsifikatuena, *Phaseolus vulgaris* espeziea (Indaba-Leka) da; espezie honen 5 barietate ezberdin aurkitu dira.

Kukurbitazeoei dagokienez, tokiko pepinoa eta kalabazin berdea erein eta gordetzeko ohitura daukate; nekazari banak gorde eta ereiten dutelarik.

Lekadunei dagokienez, Tolosako indaba, Gernikako indaba, indaba gorria, indaba zuria, indaba zuria baxukoa eta tokiko ilarra erein eta gordetzeko ohitura dute. Gehien gorde eta ereiten direnak, Tolosako indaba da, 4 elkarriketatuk gordetzen baitute, bik, Gernikako indaba gordetzen dute, eta beste barietateak, nekazari banak gorde eta ereiten dituzte.

Solanazeoei dagokienez, piperren artean, Ibarrako piperra eta piper lodia edo erretzekoa erein eta gordetzen da. Tomateei dagokienez, tomate zapala, *Aretxabaletako mozkorra* tomatea/tomate arrosa, tomate kizkurra eta entsalada tomatea. Hala ere, bai piperra eta bai tomatea nekazari gutxi batzuk erein eta gordetzen dute. Aretxabaleta mozkorra tomate arrosa bi nekazarik gorde eta ereiten dute, eta beste barietateak nekazari banak gorde eta ereiten dituzte.

Kenopodiazeoei dagokienez, tokiko zerba gorde eta ereiten du nekazari bakar batek. Konposatuei dagokienez, tokiko letxuga, neguko letxuga eta udaberriko letxuga barietateak gordetzen dira. Tokiko letxuga bi nekazarik gordetzen dute eta beste bi barietateak, nekazari banak.

Kruziferoei dagokienez, neguko aza, udaberriko aza eta arbi zuria gorde eta ereiten dute. Gehien gordetzen dena, hiru nekazarik, neguko aza da. Beste barietateak nekazari banak gordetzen dituzte. Unbeliferoen artean, pertsona bakar batek tokiko perrexila gordetzen du.

Liliazeoei dagokienez, tokiko porrua, kipula gorria, kipula zuria eta kipula horia gorde eta ereiten dute. Gehien gorde eta ereiten direnak, tokiko porrua eta kipula gorria dira, 3 eta 5 nekazarik gordetzen dutelarik hurrenez hurren. Beste 2 barietateak, nekazari bik gordetzen dituzte.

6.3.1.2 Urola Kosta

Hamaika udalek osatzen dute eskualde hau eta Zarautz eta Azpeitia dira hirigunerik garrantzitsuenak. Zarautzen eraginpean daude itsasaldeko herriak: Aizarnazabal, Aia, Zumaia, Getaria eta Orio. Azpeitiak bere eraginpean ditu barrualdekoak: Azkoitia, Zestoa, Errezil eta Beizama. Ekonomiari dagokionez, zerbitzuen sektorean eta industrian lanean ari den populazio kopurua berdintsua da (%40 inguru); lehen sektorean %4a da. Lehen sektoreak beste eskualdeetan baino pisu nabarmenagoa dauka hemen eta bereziki herri txiki batzuetan garrantzi handia dauka: Getarian, Aian, Beizaman, Errezilen, eta Orion. Lehen sektorearen barruan Getarian eta Orion arrantza da jarduera nagusia baina Getarian, hala ere, nekazaritza ekoizpena igo da txakolinaren produkzioa dela eta. Beizama, Errezil eta Aian nekazaritza etxerako baratzerak laburtzen da. Azoketan saltzeko produzitzen dutenak ere badaude hala ere.

Laginketaren emaitzak

Eskualde honetan guztira 13 elkarrizketa egin dira; 7 elkarrizketa Zarautzen, 2 elkarrizketa Getarian eta elkarrizketa bana Aian, Zumaian eta Beizaman. Guztira, 50 barietate fitxa bete ziren eta horietatik, 19 barietate ezberdin sailkatu dira.

Elkarrizketatu ditugun denak, bi ezik, jubilatutako dira. Gainera, jarraipenik gabekoak; haiek baratza utzitakoan inork landuko ez baitu. Honen arabera, jarraipena izango duten baratzeak %15a osatzen dute.

Gehienek baratzen ekoizpena azoketan saltzera bideratzen dute eta Zarautzeko azokan saltzen dituzte beren produktuak. Elkarrizketatuen artean nekazari bakar batek etxerako baratzea egiten zuen. % 85ak egiten duen nekazaritza mota konbentzionala da. Bi nekazarik nekazaritza ekologikoa egiten dute.

Erabiltzen dituzten haziak etxekoak dira, baina lehengo barietate batzuk baztertu dituzte eta geroz eta ohitura gehiago daukate haziak eta landareak erosteko. Elkartrukatzeko ohiturarik ez daukate.

Barietateen jatorria eta antzinatasunari dagokionean, %70a, belaunaldiz belaunaldi igaro diren barietateak dira eta 30 eta 50 urte bitarteko antzinatasuna dute. Elkartruke bidez lortutako barietateak, %30a osatzen dute eta 5 urteko antzinatasuna dute eta 20 urte baino gehiago duten erositako barietaterik ez da aurkitu.

Hasieran egindako 50 fitxetatik aurkitu direna barietate ezberdinen kopurua, 19 da.

Taula 16. Prospekzioaren ezaugarriak: Urola Kosta

Nekazaritza mota		Etixerako edo saltzeko		Jarraipena		Jatorria eta antzinatasuna		
Konbentzionala	Ekologikoa	Etixerako	Saltzeko	Bai	Ez	Etzekoa	Elkartrukea	Erositakoa
%85	%15	%8	%92	%15	%85	%70	%30	
						30-50	5	

Aurkitutako barietateen artean, erabiliena, Tolosako indaba da, elkarriketatu guztien gorde eta ereiten baitute. Eta, eskualde gehienetan gertatzen den antzera, *Phaseolus vulgaris* (Indaba-Leka) da espezie dibertsifikatuena. Kasu honetan, espezie honen 7 barietate aurkitu izan dira.

Kukurbitazeoen artean, tokiko pepinoa eta porrusaldarako kalabaza erein eta gordetzen dute; kalabaza porrusalda, 1 eta 2 nekazarik gorde eta ereiten dute hurrenez hurren.

Lekadunen artean, Indaba gorria, Gernikako indaba, Tolosako indaba, Tolosako indaba baxua, indaba zuria, indabaz uri baxua, tokiko ilarra eta leka igokaria dira gorde eta ereiten diren barietateak. Gehien erein eta gordetzen den barietatea, Tolosako indaba da, elkarriketatutako nekazari guztiek baitaukate. 6 nekazarik, indaba zuria gordetzen dute, 5 nekazarik indaba gorria, hiruk Gernikako indaba, bik leka igokaria eta indaba zuri baxua eta pertsona banak beste barietate guztiak.

Solanazeoei dagokienez, eta piperren artean, piper txorizeroa, piper lodia edo erretzeko piperra eta piper italiarra gorde eta ereiten dute eta tomateen artean soilik entsalada tomatea. Piper txorizeroa eta entsalada tomatea bi nekazarik gorde eta ereiten dute eta beste barietateak, nekazari banak.

Kenopodiazeoi dagokionez, sorpresa hartu dugu. Duela 10 urte Bakiotik ekarritako espinaka frantsesa gorde eta ereiten du nekazari bakar batek. Konposatuei dagokienez, letxuga gorria gorde eta ereiten du nekazari batek.

Liliazeoei dagokienez, tokiko porrua eta kipula zuria gorde eta ereiten du nekazari banak. Gramineoen artean, irina egiteko artoa eta arto berdea nekazari banak gordetzen du. Kruzifero eta unbeliferoei dagokienez, ez da barietaterik aurkitu.

6.3.1.3. Deba Barrena

Deba Barrena eskualdea, Gipuzkoako ipar-mendebaldean kokatzen da eta 6 herrik osatzen dute: Deba, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Mutriku eta Soraluez-Placencia de las Armas. Industria da, bere aktibitate ekonomiko garrantzitsuena eta batez ere makina-herramienta da aktibitate ugariena industrietan. Industria hedatuta dagoen herri hauen aldameneko herri txikietan, baserri asko dago, etxerako baratzea egiten dutenak. Batzuek, negutegiak ere badituzte eta merkatuetan saltzen dituzte bere produktuak.

Laginketaren emaitzak

Eskualde honetan guztira, 8 inkesta egin izan dira, Eibar, Elgoibar eta Mendaro herrietan. Eibarren, e inkesta bete ziren eta Mendaron eta Elgoibarren hiruna inkesta.

Guztira, 46 barietate fitxa bete ziren eta 18 barietate ezberdinetan sailkatu ziren.

Nekazaritza motari dagokionez, %75ak nekazaritza konbentzionala eta etxerako baratzea egiten dute. Jarraitasunari dagokionez, %75ak, ez dute jarraipenik; beraiek baratzea uztean ez dago inor baratze horiek landuko dituenik.

Barietateen jatorri eta antzinatasunari dagokionez, %72a, etxeko barietateak osatzen dute; belaunaldiz belaunaldi igaro diren barietateka dira eta 40 eta 60 urte arteko antzinatasuna dute. Elkartruke bidez lortutakoak, %28a osatzen dute eta 6 eta 15 urte arteko antzinatasuna dute. Azkenik, ez da lortu, 20 urte baino gehiago duten barietate komertzialik.

Taula 17: Laginketaren ezaugarriak: Deba Behera.

Nekazaritza mota		Etxerako edo saltzeko		Jarraipena		Jatorria eta antzinatasuna		
Konbentzional	Ekologikoa	Etxerako	Saltzeko	Bai	Ez	Etxekoa	Elkartrukea	Erositakoa
%75	%25	%75	%25	%25	%75	%72	%28	
						40-60	6-15	

Eskualde honetan, azpimarratu beharra dago, barietate erabiliak, indaba gorria eta Tolosako indaba, piper txorizeroa eta entsalada tomatea direla. Indaba gorria eta entsalada tomatea 6 elkarriketatuk gorde eta ereiten dute eta beste bi barietateak bosna pertsonak.

Familiak, eskualde honetan ez da aurkitu kukurbitazeoen familiakoen barietaterik.

Lekadunei dagokionez, indaba gorri iluna, indaba gorria, Tolosako indaba, baba handia eta leka igokaria aurkitu dira. Indaba gorria 6 elkarriketatuk gorde eta ereiten dute, Tolosako indaba 5 elkarriketatuk, baba handia 3 elkarriketatuk, leka igokaria 2 elkarriketatuk eta indaba gorri iluna pertsona bakar batek.

Solanazeoei dagokionez, 2 barietate piper eta 3 barietate tomate aurkitu dira. piperren kasuan, piper morroa/lodia eta piper txorizeroa aurkitu izan dira eta 3 eta 5 nekazarik gordetzen dituzte hurrenez hurren. Tomateen kasuan, berriz, entsalada tomatea, eskegitzeko tomatea eta peradun tomatea aurkitu dira eta azken hauek, 6, 1 eta 2 nekazarik kontserbatzen dituzte hurrenez hurren.

Kenopodiazeoen kasuan, pertsona bakar batek tokiko zerba kontserbatzen du. Konposatuen kasuan ere, pertsona bakar batek, haritz formako orria duen letxuga kontserbatzen duela ikusi da. Bestetik, kruziferoen artean, 2 pertsonak, neguko aza eta arbi beltza kontserbatzen jarraitzen dute. Liliazeoei dagokienez, porru berdea eta kipula gorria dira aurkitu diren barietate bakarrak, eta bina pertsonak kontserbatzen dituzte eta bukatzeko, gramineoen artean, 2 pertsonak, irina egiteko artoa gordetzen dute.

6.3.1.4. Tolosaldea

Tolosaldea eskualdea, Gipuzkoako erdi ipar-mendebaldean kokatzen da. 30 herrik osatzen dute eskualde hau, baina hauetatik garrantzitsuenak, Abaltzizketa, Albizur, Aleiza, Altzo, Amezketeta, Asteasu, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Legorreta eta Tolosa dira. Industria de sektore nagusia eta Tolosako herrian eta inguruetan kokatzen dira industri lantegi gehienak. Beste herri txikiak, gehienak, nekazaritza dute lanbide, baina proportzio baxuago batean. Baserri gehienak, bere kontsumorako baratzea dute, baina baten batzuk, asteroko merkatuetan saltzen dituzte ortuariak.

Laginketaren emaitzak

Tolosaldea eskualdean 10 inkesta burutu dira guztira; 4 inkesta Asteasun, 3 inkesta Hernialden, 2 inkesta Anoetan eta inkesta bakar bat Tolosan. Orotara, 60 barietate-fitxa bete ziren eta 15 barietate ezberdin sailkatu ziren.

Nekazaritza motari dagokionez, %90ak nekazaritza konbentzionala egin ohi du eta portzentaia berak, (%90) ere, ez dauka jarraitasunik baratzeetan, hots, nekazari hauek baratze uztea, ez dago inor baratze horiek erabiliko dituenik. Inkestatutako 10 pertsonetatik, %80ak berak ekoiztako produktuak kontsumitzen ditu.

Barietateen jatorriari dagokionean, elkarrizketatutako pertsonak ziurtatu zuten, erabiltzen dituzten barietateetatik, %95a etxekoak zirela, hots, belaunaldi belaunaldi igaro diren barietateak zirela. Elkartruke bidez lortu ziren barietateak ordea, %5a osatzen dute. Honi lotuta, etxeko barietateen antzinasunari dagokionez, 30 eta 50 urte bitartekoak dira eta elkartruke bidez lortutakoak, 7 eta 15 urte artekoak dira. Ez dira, 20 urte baino zaharragoak diren barietaterik aurkitu.

Taula 18: laginketaren ezaugarriak: Tolosaldea.

Nekazaritza mota		Etxerako edo saltzeko		Jarraipena		Jatorria eta antzinasuna		
Konbentzional	Ekologikoa	Etxerako	Saltzeko	Bai	Ez	Etxekoa	Elkartrukea	Erositakoa
%90	% 10	% 80	% 20	% 10	% 90	%95	%5	
						30-50	7-15	

Egindako elkarrizketekin, 60 fitxa barietate bete ziren eta horietatik, 15 barietate ezberdin sailkatu ziren.

Eskualde honetan aurkitu diren barietate ugariak, Tolosako indaba, Ibarako piperra eta piper txorizeroa dira. Tolosako indaba, elkarrizketatutako pertsona guztiek gordetzen dute eta piper txorizeroa eta Ibarako piperra, 9 elkarrizketatuk gordetzen dute.

Lekarien artean, 3 barietate ezberdin aurkitu dira: Tolosako indaba, Tolosako indaba baxua eta baba handia. Lehen aipatu den legez, Tolosako indaba elkarrizketatu guztiek gordetzen dute (10) eta beste barietateak, pertsona banak.

Solanazeoen kasuan, eskualde honetan elkarriketatu diren pertsonak, ibarrako piperra, piper lodia, piper txorizeroa eta tomate entsalada kontserbatzen dute. Ibarrako piperra eta piper txorizeroa, 9 pertsonak kontserbatzen dute, piper lodia 4 pertsonak eta tomate entsalada 6 pertsonak.

Kenopodiazeoan kasuan, barietate bakar bat aurkitu da, tokiko zerba, zeina, 5 pertsonak konsterbatzen duten. Kruziferoekin jarraituz, aza barietate 2 topatu dira; neguko aza eta udako aza eta bazka arbi barietate bat ere. Neguko aza, 3 elkarriketatuko gordetzen dute eta beste barietateak, pertsona banak.

Azkenik, liliazeoen artean, porruaren 2 barietate aurkitu dira (porru berdea eta porru horia), baita, kipularen beste 2 barietate (kipula gorria eta kipula zuria). Kipula zuria, 4 elkarriketatuk gordetzen dute, porru horia hiruk, kipula gorria bik eta porru berdea pertsona bakar batek.

6.3.1.5. Goierri

Eskualde hau, Gipuzkoako hegoaldean kokatzen da, eta Nafarroako iparraldearekin muga egiten du. Eskualde honetako herri garrantzitsuenak honako hauek dira: Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Lazkao, Legazpi, Ordizia, Olaberria, Ormaiztegi, Urretxu, Zegama eta Zumarraga. Industria da jarduera ekonomiko nagusia, nahiz eta herri txikietan oraindik, nekazaritza konbentzionala egiten jarraitu. Eskualde hau, artzaintzarekin lotura estua dauka, baita Idiazabal gaztaren ekoizpenarekin ere.

Laginketaren emaitzak

Eskualde honetan ere, 10 inkesta burutu dira; 3 inkesta Ezkio-Itsason, 2 inkesta Olaberrian, inkesta 1 Lazkaon eta 4 inkesta Ormaiztegin. Guztira, 81 barietate fitxa bete ziren eta horietatik, 14 barietate ezberdinetan sailkatu ziren.

Elkarriketatu ziren pertsona guztiek (%100), nekazaritza konbentzionala egin ohi dute, etxerako baratzeekin eta inork ere ez dauka jarraipenik, beraz, hauek baratzea uztean, ez dago inor, baratze horiek landatuko dituenik. Hazien jatorriari dagokionean, %93a, etxeko haziak dira, belaunaldiz belaunaldi igaro diren barietateak dira. Bestalde, %7a, elkartruke bidez lortutako barietateak dira. honi lotuta, barietate hauen antzinatasun eta erabilera kontuan izanda, barietate zaharrenak, belaunaldiz belaunaldi igaro diren barietateak dira eta 30 eta 50 urte bitarte dute eta elkartruke bidez lortutakoak berriz, 5 eta 15 urte bitarte dituzte.

Taula 19: Laginketaren ezaugarriak: Goierri

Nekazaritza mota		Etxerako edo saltzeko		Jarraipena		Jatorria eta antzinatasuna		
Konbentzionala	Ekologikoa	Etxerako	Saltzeko	Bai	Ez	Etxekoa	Elkartrukea	Erositakoa
%100		%100			%100	%93	%7	
						30-50	5-15	

Identifikatu diren 15 barietateetatik, ugarienak, indaba gorria, Tolosako indaba, tokiko zerba eta piper txorizeroa dira. aipatu diren azken barietate hauek, elkarriketatu guztiek landatzen dituzte.

Familiaka, barietate bakarra topatu da kukurbitazeoen artean: kalabaza porrusalda eta pertsona bakarrak landatzen du. Lekariei dagokionean, 2 barietate indaba aurkitu dira, Tolosako indaba eta indaba gorria, baba barietate bat, baba handia, eta leka igokaria. Tolosako indaba eta indaba gorria elkarrizketatu guztiek landatzen dute, leka igokaria 6 pertsonak, baba handia ordea pertsona bakar batek.

Solanazeoen artean, piper barietate 2 (piper lodia eta piper txorizeroa) eta tomate barietate bat (entsalada tomatea) topatu dira. Piper txorizeroa, elkarrizketatutako pertsona guztiek, landatzen dute, piper lodia 6 nekazarik eta entsalada tomatea pertsona bakar batek landatzen du. Kenopodiazeoen kasuan, tokiko zerba soilik sailkatu da eta elkarrizketaturiko pertsona guztiek landatzen dute.

Kruziferoen artean, neguko aza aipatzen da, 5 nekazarik gordetzen dutelarik. Liliazeoen artean, ordea, porrua berdea, kipula gorria eta kipula zuria sailkatu dira. kipularen 2 barietateak, elkarrizketatuetatik, 8 pertsonak landatze dute eta porru berdea 4 pertsonak. Eta bukatzeko, gramineoen artean, arto barietate bat topatu da; txakin artoa eta pertsona bakar batek landatzen du.

6.3.1.6. Donostialdea

Donostialdea eskualdea, herrialdearen ipar-mendebaldean kokatzen da. Eskualde honetako herri garrantzitsuenak, Andoain, Astigarraga, Donostia, Hernani, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Errenteria, Urnieta eta Usurbil dira. Bere klima atlantikoa da eta hortaz, tenperaturak freskoak dira udan eta neguan eta prezipitazio ugariak. Jarduera ekonomiko nagusia industria da, eta kostaldeko herrietan arrantza, baina auzo batzuetan oraindik nekazaritza da jarduera nagusia; genienak etxerako baratzea egiten duten. pertsona zaharrak.

Laginketaren emaitzak

Eskualde honetan, orotara 11 elkarrizketa burutu dira 4 herritan: inkesta 1 Astigarragan, 4 inkesta Andoainen, 3 inkesta Hernanin eta beste 3 inkesta Urnietan. Guztira, 82 fitxa barietate bete ziren eta 19 barietate ezberdinetan sailkatu ziren.

Elkarrizketatu ziren pertsonen %91ak, nekazaritza konbentzionala egiten du, etxerako baratzeak ditu eta ez daukate jarraipenik bere baratzeak uzten dituztenean. Jatorri eta antzinatasunari dagokionean, %90a, etxeko barietateak osatzen dute; belaunaldiz belaunaldi igaro diren barietateak eta 30 eta 70 urte arteko antzinatasuna dute. Elkartruke bidez lortu diren barietateak, %10a osatzen dute eta 5 eta 15 urte bitarteko antzinatasuna dute. Ez da 20 arte baino zaharragoak diren barietate komertzialik aurkitu.

Taula 20: Laginketaren ezaugarriak: Donostialdea

Nekazaritza mota		Etixerako edo saltzeko		Jarraipena		Jatorria eta antzinatasuna		
Konbentzionala	Ekologikoa	Etixerako	Saltzeko	Bai	Ez	Etxekoa	Elkartrukea	Erositakoa
%91	%9	%91	%9	%9	%91	%90	%10	
						30-70	5-15	

Aurkitutako barietateen artean, ugariak Tolosako indaba, leka igokaria, piper txorizeroa eta entsalada tomatea dira. Tolosako indaba, elkarrizketaturiko pertsona guztiek landatzen dute, piper txorizeroa hamar pertsonen, entsalada tomatea bederatzi pertsonen eta leka igokaria zortzik.

Kukurbitazeoen artean, bi barietate topatu dira; kalabaza cabello de angel eta kalabaza porrusalda. Bi hauek, pertsona batek eta lauk, landatzen dituzte hurrenez hurren.

Tolosako indaba eta leka igokaria dira, lekarien artean aurkitu diren barietate bakarrak. Elkarrizketaturiko baserriar guztiek landatzen dute Tolosako indaba eta 8 beserriarrek, ordea, leka igokaria. Solanazeoekin jarraituz, piper lodia, pikillo piperra, pipermin txikia, piper txorizeroa, entsalada tomatea, tomate morea eta peradun tomatea aurkitu dira. Piper txorizeroa eta entsalada tomatea, elkarrizketaturiko 10 eta 9 pertsonen landatzen dute hurrenez hurren, piper lodia, ordea, 4 pertsonen, pipermin txikia eta peradun tomatea, 2 nekazarik eta azkenik, tomate lila pertsona bakar batek.

Kenopodiaseoei dagokionean, tokiko zerba soilik behatu da, 3 pertsonen landatzen dutelarik. konposatuaren artean, berriz, udaberriko letxuga eta neguko letxuga aurkitu ditugu, nekazari banak landatzen dutelarik.

Unbeliferoen artean, tokiko perrexila soilik aurkitu da, eta hau elkarrizketaturiko 4 pertsonen soilik landatzen dute eta liliaseon artean ordea, porru berdea, kipuila gorria eta kipula zuria behatu dira. kipula gorria, 6 pertsonen landatzen dute, porru berdea, hiruk eta kipula zuria bik.

6.3.1.7. Bidasoa Behera

Bidasoa Behera eskualdea, Gipuzkoako ipar-mendebaldean kokatua dago. Udallerriak, Hondarribia eta Irun dira. Klima atlantikoa da, tenperaturak leunak dira udan eta neguan, itsasoan anplitude termikoa egiten duelako eta prezipitazioak oso ugariak dira. jarduera ekonomiko nagusia, industria eta arrantza dira, baina oraindik ere, auzo batzuetako baserrietan, baratzeak dituzte bere kontsumorako. Hondarribian, Txingudiko badiaren maldetan, nekazariak ez diren pertsona askok, lur-zatiaren jabe dira eta bertan, bere barazkiak landatzen dituzte etxerako produktuak lortuz.

Laginketaren emaitzak

Eskualde honetan, orotara, 11 elkarrizketa burutu dira, 2 herritan sakabanatuta; 8 inkesta egin izan dira Hondarribian eta 3 Irunen. Guztira, 79 barietate-fitxa bete ziren eta hauek 12 barietate ezberdinetan sailkatu ziren.

Elkarrizketatu diren pertsona guztiek, nekazaritza konbentzionala egiten dute. Bestetik, %91ak etxerako baratzea egiten dute, etxerako produktuak lortuz eta guzti hauek ere, ez daukate ondorengorik, bere baratzea landuko dituztenik, beraiek uztean. Barietateen jatorri eta antzinatasunari dagokionean, %84a, belaunaldi belaunaldi igaro diren barietateak dira, etxekoak, eta 45 eta 70 urte arteko antzinatasuna dute. Beste barietate batzuk, elkartruke bidez lortutakoak dira, %16a hain zuzen eta 6 eta 17 urte arteko antzinatasuna dute. Ez dira, 20 urte baino zaharragoak diren barietate komertzialik aurkitu.

Taula 21: Laginketaren ezaugarriak: Bidasoa Behera.

Nekazaritza mota		Etxerako edo saltzeko		Jarraipena		Jatorria eta antzinatasuna		
Konbentzionala	Ekologikoa	Etxerako	Saltzeko	Bai	Ez	Etxekoa	Elkartrukea	Erositakoa
%100		%91	%9	%9	%91	%84	%16	
						45-70	17-6	

Egin izan diren elkarrizketekin, 79 fitxa-barietate bete ziren eta horietatik, 12 barietate ezberdinetan sailkatu ziren.

Topatu ziren barietateen artean, gehientsuenak, Tolosako indaba, leka igokaria, piper txorizeroa eta kipula gorria dira. Tolosako indaba eta piper txorizeroa, elkarrizketatutako pertsona guztiek landatzen dute, leka igokaria eta kipula gorria, ordea, 10 eta 9 pertsonok gordetzen dituzte hurrenez hurren.

Kukurbitazeoen artean, kalabaza porrusalda eta kalabazin berdea topatu dira. Kalabaza porrusalda, 7 pertsonok landatzen dute eta kalabazin berdea seik. Tolosako indaba eta leka igokaria, lekarien artean aurkitu diren barietate bakarrak dira eta 10 eta 11 pertsonok landatzen dituzte hurrenez hurren.

Solanazeoen kasuan, ordea, piper barietate 2 aurkitu dira, piper lodia eta piper txorizeroa eta tomate barietate bat, entsalada tomatea. Piper txorizeroa, elkarrizketatu guztiek gordetzen dute, piper lodia, zazpik eta entsalada tomatea, 2 nekazarik.

Kenopodiazeoen artean, tokiko zerba soilik aurkitu da berau, 5 nekazarik landatzen dute eta konposatuen artean, letxuga kizkurra soilik aurkitu da, nekazari bakar batek landatzen duelarik. Tokiko perrexila, unbeliferoen artean aurkitu den barietate bakarra da eta 8 nekazarik landatzen dute. Amaitzeko, liliazeoen artean, kipula gorria eta kipula zuria soilik aurkitu dira, eta hauek, 9 eta 2 nekazarik gordetzen dute hurrenez hurren.

6.3.2 Emaitzak barietateen arabera

22. taulan, Gipuzkoan behatu diren barietate guztiak biltzen dira, eskualdeka.

22. taula: Gipuzkoan eskualde bakoitzean dauden barietateak (kurtsibaz eta azpimarratuta, gehien gorde eta ereiten den barietatea eta parentesi artean, zenbat nekazarik mantentzen duen barietatea)

Familiak	Deba Behera	Debagoiena	Urola Kosta	Tolosaldea	Goierri	Donostialdea	Bidasoa Behera
Kukurbitazeoak	Tokiko pepinoa (1)	Tokiko pepinoa(1)	Tokiko Pepinoa(1)		Kalabaza porrusalda (1)	Kalabaza cabello de angel (1)	Kalabaza porrusalda (7)
	Kalabazin berdea (1)	Kalabazin berdea (1)	Kalabaza porrusalda (2)			Kalabaza porrusalda (4)	Kalabazin berdea (6)
Lekadunak	Gernikako indaba (1)	Gernikako indaba (2)	Gernikako indaba (3)	<u>Tolosako indaba (10)</u>	<u>Indaba gorria (10)</u>	<u>Tolosako indaba (11)</u>	<u>Tolosako indaba (11)</u>
	<u>Indaba gorria (6)</u>	Indaba gorria (1)	Indaba gorria (5)	Tolosako indaba baxua(1)	<u>Tolosako indaba (10)</u>	<u>Leka igokaria (8)</u>	<u>Leka igokaria (10)</u>
	Indaba gorri iluna (1)	<u>Tolosako indaba (4)</u>	<u>Tolosako indaba (13)</u>	Baba handia (1)	Baba handia (1)		
	<u>Tolosako indaba (5)</u>	Indaba zuria (1)	Tolosako indaba baxua (1)		Leka igokaria (6)		
	Baba handia (3)	Indaba zuria baxua (1)	Indaba zuria(1)				
	Leka igokaria (2)	Tokiko ilarra (1)	Tokiko ilarra (1)				
		Leka goranzkoa (1)					
Solanazeoak	Piper lodia (3)	lbarrako piperra (1)	Piperra italiarra (1)	<u>lbarrako piperra (9)</u>	Piper lodia/morroa /erretzekoa (6)	<u>Piper txorizeroa (10)</u>	Piper lodia (7)
	<u>Piper txorizeroa (5)</u>	Piper lodia/morroa/erretzekoa (1)	Piperra lodia / erretzekoa (1)	Piper lodia/erretzekoa/morroa(4)	<u>Piper txorizeroa (10)</u>	Pipermin txikia (3)	<u>Piper txorizeroa (11)</u>
	<u>Entsalada tomatea (6)</u>	Aretxabaletako mozkorra tomatea/arrosa(2)	Piperra Gernika/txorizeroa (2)	<u>Piper txorizeroa (10)</u>	Entsalada tomatea (1)	<u>Entsalada tomatea (9)</u>	Entsalada tomatea (2)
	Eskegitzeko tomatea (1)	Entsalada tomatea (1)	Entsalada tomatea 3)	Entsalada tomatea (6)		Tomate morea (1)	
	Peradun tomatea (2)	Tomate kizkurra (1)				Peradun tomatea (3)	
		Tomate zapala(1)					

Familiak	Deba Behera	Debagoiena	Urola Kosta	Tolosaldea	Goierri	Donostialdea	Bidasoa Behera
Kenopodiaceoak	Tokiko zerba (1)	Tokiko zerba (1)		Tokiko zerba (5)	<i>Tokiko zerba (10)</i>	Tokiko zerba (3)	Tokiko zerba (5)
Konposatuak	Haritz formako letxuga (1)	Tokiko letxuga (2)	letxuga gorria (1)				Uraza kizkurra (1)
		Neguko letxuga (1)					
		Udaberriko letxuga (1)					
Kruziferoak	Neguko aza (2)	Neguko aza(3)		Neguko aza (3)	Neguko aza(5)	Neguko aza (1)	
	Arbi beltza (1)	Arbi zuria (1)		Udaberriko aza/udako aza (1)		Udaberriko aza (1)	
				Bazka arbia(1)			
Liliazeoak	Porru berdea (2)	Tokiko porrua(3)	Tokiko porrua (1)	Porru berdea(1)	Porru berdea (4)	Kipula gorria (6)	<i>Kipula gorria (9)</i>
	Kipula gorria (2)	<i>Kipula gorria (5)</i>	kipula zuria (1)	Porru horia (3)	Kipula gorria (8)	Kipula zuria (2)	Kipula zuria (2)
		Kipula zuria (2)		Kipula gorria (2)	Kipula zuria (8)		
		Kipula horia (2)		Kipula zuria (4)			
Unbeliferoak		Tokiko perrexila (1)				Tokiko perrexila (4)	Tokiko perrexila (8)
Gramineoak	Irina egiteko artoa		Arto horia (1)		Txakin artoa (1)		
			Irina egiteko artoa (3)				
Kopurua guztira	18	25	19	15	14	17	12

6.4. Bizkaiko laginketa

Bizkaian laginketak ezaugarri bereziak ditu. Aurreko urteetan hiru eskualdeetan oso lan antzekoak egin baitziren. Beraz hiru azpiatal agertzen dira; aurtengo prospekzioaren datuak, aurreko urtetakoak eta Bizkaia osokoak.

6.4.1. Emaitzak lagindutako eskualdearen arabera

Bizkaian, osatua dago jada eskualde guztie laginketa. Arazo gehiago egon da ordea, Durangaldea eta Arratia-Nerbioi eskualdeetan, benetan ahalegin handiagoa behar izan delako elkarrizketa kopuru minimoa lortzeko.

6.4.1.1. Plentzia-Mungia

Plentzia- Mungia izenez ezagutzen den eskualdea, Bizkaiko iparraldean kokatzen da. Eskualde hau osatzen duten udalerriak, Arrieta, Bakio, Barrika, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Gorniz, Laukiz, Lemoiz, Maruri-Jatabe, Meñaka, Mungia, Plentzia, Sopela eta Urduliz dira. Ibai garrantzitsuena, Butroi ibaia da, Mungiatik igarotzen dena. Ekonomiari dagokionez, gaur egun industria dugu jarduera nagusia. Industri guneak Mungia eta Urdulizen kokatzen dira. Azken urteetan gorakada nabarmena jaso du zerbitzuen alorreko jarduerak. Nekazaritzan populazioaren %2,4k dihardu bakarrik. Nekazaritza eremuak herri nagusietatik kanpo kokatzen dira eta baratx txiki eta baserriei lotutakoak dira. Gehienek autokontsumorako baratze txikia daukate, nahiz eta azoketan saltzen dituzten baten batzuk ere egon.

Eskualde honetan 9 elkarrizketa burutu dira; 2 elkarrizketa Gamiz-Fikan, 3 elkarrizketa Mungian eta elkarrizketa bana Laukizen, Gatikan, Maruri-Jataben eta Bakion. Orotara, 75 barietate fitxa bete ziren eta horietatik, 35 barietate ezberdin sailkatu ziren.

Elkarrizketatuetatik gehienak 60 urtetatik gorakoak dira, eta bakarrik ustiakuntzen ia laurden batek (%22a) jarraipena izango du baratzean.

Gehienek, etxerako baratzea egiten dute, eta geratzen direnak, saltzeko baratzea, produktuak azoketan saltzen dituztelarik, Mungiako azokan nahiz Bilboko azokan. Etxerako baratzea dutenak %56a osatzen dute.

Elkarrizketatuen artean nekazaritza konbentzionala egiten dutenak % 78a osatzen dute. Gordetzen dituzten haziak, gehienak etxeakoak dira, urte askotan zehar belaunaldi batetik bestera pasatzen joan direnak. Inguruko artean elkartrukatzeko ohitura izan dute, eta orain ere bai, baina askoz ere gutxiago.

Guztira, eskualde honetan egindako 76 barietate fitxetatik, 36 barietate ezberdinetan sailkatu dira.

Barietateen jatorria eta antzinasnari dagokionez, belaunaldiz belaunaldi igaro diren barietateak, %88a osatzen dute eta 10 eta 50 urte bitarteko antzinasuna dute. Elkartruke bidez lortutako barietateak, %11 osatzen dute eta 6 eta 10 urte bitarteko antzinasuna dute, eta %1 da, barietate komertzialek osatzen duten portzentaia eta 20 urteko antzinasuna dute. Barietate komertzialen kasuan, barietate bakar bat aurkitu da, indaba fabada granjina barietatea.

23. taula. Laginketaren ezaugarriak: Plentzia-Mungia

Nekazaritza mota		Etxerako edo saltzeko		Jarraipena		Jatorria eta antzinasuna		
Konbentzionala	Ekologikoa	Etxerako	Saltzeko	Bai	Ez	Etxekoa	Elkartrukea	Erositakoa
%78	%22	%56	%44	%22	%78	%88	%11	%1
						10-50	6-10	20

Bete diren 75 barietate fitxetatik abiatuta, 35 barietate sailkatu ziren. Maiz agertzen diren barietateak, Tolosako indaba, piper txorizeroa, entsalada tomatea, tokiko zerba eta tokiko porrua dira. Piper txorizeroa, 6 nekazarik kontserbatzen dute et abeste barietateak 5 elkarrizketatuk. Beste eskualde batzuetan gertatzen zen antzera, espezie dibertsifikatuena, *Phaseolus vulgaris* (indaba-baina) espeziea da. espezie honen, 8 barietate ezberdin aurkitu dira.

Kukurbitazeoan artean, kalabazin berdea, porrusalda kalabaza eta *cabello de angel* kalabazaren haziak gorde eta ereiteko ohitura daukate. Hauetatik gehien gordetzen dena, porrusalda kalabaza izan ohi da, inkestatutako 9 nekazaritik, ia erdiak gordetzen baitute, 4 nekazarik hain zuzen kalabazin berdea, 2 nekazarik gorde eta ereiten dute. Beste barietatea, *cabello de angel* kalabaza, nekazari batek erein eta gordetzen du.

Lekadunen familiari dagokionez, indaba gorria, indaba gorri-iluna, indaba tolosarra, Gernikako indaba, arroz indaba, indaba beltza, indaba zuria, fabada indaba, leka goranzkoak eta tokiko ilarra gorde eta ereiteko ohitura dute. Lekari hauetatik, gehien gorde eta ereiten dena, indaba tolosarra da, hots, inkestatutako bederatzi nekazaritik, bost nekazarik gorde eta ereiten dute. Beste barietateak, nekazari gutxi batzuek erein eta gordetzen dituzte; indaba gorri iluna, 4 nekazarik gorde eta ereiten dituzte, indaba gorria, fabada indaba eta indaba zuria bi nekazarik gorde eta ereiten dituzte, indaba beltza, goranzko lekak ,tokiko ilarrak ,Gernikako indaba eta arroz indaba, nekazari banak gorde eta ereiten dute.

Solanazeoen familiakoak piperrak eta tomateak topatu ditugu soilik. Piperrei dagokienez, piper txorizeroa, piper lodia edo erretzeko piperra, pikillo piperra, piperminaren haziak gorde eta ereiten dituzte. Tomateei dagokienez, entsalada tomatea, esekitzeko tomatea, pikoluze tomatea eta tomate zapala erein eta gordetzeko ohitura daukate. Piper txorizeroa eta entsalada tomatea dira gehien gordetzen direnak, piper txorizeroa inkestatutako 9 nekazarietatik, 6 nekazarik gorde eta ereiten dute eta entsalada tomatea ordea, 5 nekazarik. Beste barietateak, nekazari gutxi batzuek gorde eta ereiten dute; inkestatutakoan artean, soilik hiruk gorde eta ereiten dute tokiko pipermina eta pertson abanak, ordea, eskegitzeko tomatea, tomate zapala eta pikoluze tomatea.

Kruziferoei dagokienez, nekazari banak neguko aza eta arbi zuria gordetzen eta ereiten du.

Konposatuei dagokienez, neguko letxuga eta txikoria besterik ez da gorde eta ereiten. Neguko letxuga 2 nekazarik gorde eta ereiten dute eta txikoria, ordea, nekazari bakar batek.

Kenopodiazeoen artean, tokiko zerba, espinaka frantsesa eta giza kontsumorako erremolatxa gorriaren haziak gorde eta ereiten dituzte. Hautatik gehien ereiten dena, tokiko zerba izan ohi da, 5 nekazarik gorde eta ereiten dutelarik. Beste barietateak, espinaka frantsesa eta erremolatxa gorria, nekazari banak gorde eta ereiten dute.

Liliazeoen artean, kipula gorria, kipula zuria, Zallako kipula gorria, *bonbilla* kipulina eta tokiko porrua dira gorde eta ereiten diren barietateak. Hautatik gehienek, bost nekazarik, tokiko porrua gorde eta ereiten dute. Beste barietateei dagokienez, 4 nekazarik, kipula gorriaren haziak gorde eta ereiten dituzte, 3 nekazarik kipula zuria, eta nekazari banak, Zallako kipula gorria eta *bonbilla* kipulina.

Unbeliferoen artean, gordetzen den bakarra txiribia da, eta soilik eskualde honetan gordetzen da.

Gramineoen artean, artoak gordetzen dira; txakin artoa eta irina egiteko artoa, soilik nekazari banak gorde eta ereiten dutelarik.

6.4.1.2. Bilbo Handia

Eskualde hau osatzen duten udalerrietatik, Bilbo da nagusia, Bizkaiko hiriburua delarik. Honen aldameneko herriek osatzen dute eskualdea: Getxo, Berango, Leioa, Erandio, Sondika, Loiu, Derio, Zamudio, Lezama, Larrabetzu, Galdakao, Zaratamo, Arrigorriaga, Basauri, Etxebarri, Alonsotegi, Barakaldo, Sestao, Portugalete, Santurtzi, Trapagaran, Ortuella, Zierbena, Abanto y Zierbana eta Muskiz. Ekonomiari dagokionez, industria eta zerbitzuak dira jaun eta jabe eskualde osoan. Lehen sektorea udalerrri gehienetan oso murriztuta dago, etxerako baratzea egiten duten baserri bakar batzuetara. Hala ere, Nerbioiko eskumako udaletan (Txorierrin batez ere) baratzak ugariagoak dira.

Laginketaren emaitzak

Eskualde honetan laginketa Erandio, Leioa, Basauri, Derio, Zamudio, Loiu eta Larrabetzu herrietan egin da. Orotara 15 elkarrizketa egin dira eta bete diren 107 barietate fitxetatik, 36 barietate ezberdinetan sailkatu ziren.

Herri hauetan elkarrizketatutako nekazariak, 3 ezik, denak ziren 60 urtetik gorakoak. Jarraipenik izango ez duten baratzak % 80a osatzen dute.

Gehienek, etxerako baratzea egiten duten arren, badaude, hiru nekazari, azoketan euren produktuak saltzen dituztenak, Bilboko azokan eta Derioko azokan hain zuzen ere. Etxerako baratzea egiten dutenak, %80a osatzen dute.

Erabiltzen duten hazia etxekoa da, urteetan zehar eta belaunaldiz belaunaldi nekazari batetik bestera iragaten joan dena. Elkartrukatzeko ohitura mantentzen da oraindik, baserritar batzuen artean.

Gehienek, nekazaritza konbentzionala egiten dute, % 93ak. Nekazaritza ekologikoa egiten duen nekazari gazte bat ere badago.

Barietateen jatorri eta antzinatasunari dagokionean, %86a, belaunaldiz belaunaldi igari diren barietateak dira eta 6 eta 80 urte arteko antzinatasuna dute. Elkartruke bidez lortu diren barietateak ordea, %16a osatzen dute eta 6 eta 10 urte arteko antzinatasuna dute. 20 urte baino zaharragoak diren barietate komertzialik ez da aurkitu ordea. .

24. taula. Laginketaren ezaugarriak: Bilbo Handia

Nekazaritza mota		Etxerako edo saltzeko		Jarraipena		Jatorria eta antzinatasuna		
Konbentzionala	Ekologikoa	Etxerako	Saltzeko	Bai	Ez	Etxekoa	Elkartrukea	Erositakoa
%93	%7	%80	%20	%20	%80	%86	%14	
						6-80	6-10	

Bete ziren 107 barietate fitxetatik, 36 barietate ezberdin sailkatu ziren. Aurkitutako barietate guztien artean, sarrien agertzen direnak, Tolosako indaba, piper lodia eta piper txorizeroa dira, inkestatutako 15 pertsonetatik, 10ek kontserbatzen baitituzte. Eta kasu honetan ere, espezie dibertsifikatuena, *Phaseolus vulgaris* (indaba-leka) da, 7 barietate ezberdinekin.

Kukurbitazeoei dagokienez, kalabazin berdea, porrusalda kalabaza, potimarron kalabaza eta bazka kalabaza gorde eta ereiten dute. Hauetatik gehien gorde eta ereiten dena, porrusalda kalabaza da, elkarrizketatutako hamabost nekazarietatik, bostek gorde eta ereiten baitu. Beste barietateak, nekazari banak gorde eta ereiten ditu. Potimarron kalabaza barietatea, eskualde horretan soilik aurkitu da.

Lekadunei dagokienez, indaba tolosarra, Gernikako indaba, indaba zuria, indsaba zuria baxua, indaba gorria, leka goranzkoa eta baxukoa, tokiko ilarra, baba handia eta baba ertaina gorde eta ereiten dira. Hauetatik gehien gordetzen dena, indaba tolosarra da, elkarrizketatutako nekazaritik, hamarrek gordetzen baitute. Beste barietateak, nekazari gutxi batzuek gorde eta ereiten dituzte; horrela, 3 nekazarik, leka igokaria, indaba zuria eta Gernikako indaba gordetzen dute, 2 nekazarik, tokiko ilarra, indaba gorria eta indaba zuria baxua eta nekazari banak, baba handia, baba txikia eta leka baxua.

Solanazeoen familian, piperren artean, piper txorizeroa, piper lodia edo erretzeko piperra gorde eta *cuernocabra* piperra erein eta gordetzen dituzte eta tomateen artean, tomate zapala, puntaluze tomatea, entsalada tomatea eta tomate morea. Piperren artean, gehien gordetzen direnak piper txorizeroa eta piper lodia edo erretzeko piperra dira elkarrizketatutako nekazaritik, hamarrek gordetzen dutelarik. *Cuernocabra* piperra, ordea, nekazari bakar baten eskuetan dago. Tomateen artean, entsalada tomatea eta tomate zapala dira gehien gorde eta ereiten direnak, sei eta bost nekazarik gorde eta ereiten baitituzte hurrenez hurren. Beste barietateak, puntaluze tomatea eta tomate morea, nekazari bik eta batek gordetzen dute hurrenez hurren.

Kruziferoei dagokienez, arbi zuria da aurkitu den barietate bakarra, bera, nekazari baten eskuetan dagoelarik.

Konposatuei dagokienez, tokiko letxuga, udako letxuga, letxuga gorria, neguko letxuga, tokiko eskarola, tokiko elkatxifa eta tokiko txikoria dira aurkitu diren barietateak. Hala ere, oso gutxi gordetzen dituzte; 15 nekazaritik, tokiko letxuga 3 nekazarik gordetzen dute, 2 nekazarik txikoria eta tokiko alkatxofa eta udako eta neguko letxugak eta letxuga gorria, nekazari banak.

Kenopodiazeoen artean, tokiko zerba, bazka erremolatxa eta giza kontsumorako erremolatxa gorria edo erremolatxina dira atzeman ditugun barietateak. Tokiko zerba da gehien dagoena, 5 nekazarik baitute eta erremolatxina eta bazka erremolatxa, ordea, nekazari banak gorde eta ereiten dute.

Liliazeoei dagokienez, tokiko porrua, kipula gorria eta kipula zuria gorde eta ereiten dira, baina oso nekazari gutxi egieten dute. Tokiko porrua, da gehien gordetzen dena, bost nekazarik daukatelarik. Kipula zuriaren haziak hiru nekazarik gorde eta ereiten dituzte eta kipula zuriarenak ordea, nekazari bakar batek.

Gramineoen artean, artatxikerra eta txakin artoa aurkitu dira. Barietate hauek ere, oso nekazari gutxiren eskuetan daude; artatxikia, 4 nekazarik besterik ez dute, eta beste barietatea, nekazari batek gordetzen du.

Unbeliferoen familiako barietaterik ez da aurkitu.

6.4.1.3. Arratia- Nerbioi

Arratiako harana bezala ere ezagutzen da. Arakaldo, Arantzazu, Areatza, Arrankudiaga, Arteaga, Dima, Igorre, Orozko, Otxandio, Ugao eta Urduña udalerriek osatzen dute eskualdea. Nerbioi, Altube eta Arratia ibaiak dira eskualde honetatik zeharkatzen duten ibai garrantzitsuenak. Orografiari dagokionez, Gorbeia mendizerrak hartzen du eskualde gehiena. Ekonomiari dagokionez, sektore nagusia industria da eta industri guneak, Ugao, Otxandio, Igorre eta Urduñan daude. Bigarren sektore garrantzitsua nekazaritza eta abeltzaintza da, batez ere haragitarako behiak hazten dituzte. Nekazaritza estentsiboa oso gutxi egiten dute, gehienek etxerako baratzea besterik ez dute. Nekazaritzarako baldintzak ez dira oso onak eta baserriko baratzeetara eta bazka belardietara mugatuta dago.

Laginketaren emaitzak

Elkarrizketak, 3 herritan mugatu dira; Dima, Otxandio eta Zornotzara. Guztira, 12 elkarrizketa egin ziren; 2 elkarrizketa Zornotzan, 7 elkarrizketa Diman eta 3 elkarrizketa Otxandion. Eskualde honetan ere familiak aztertu dira jasotako datuak. Betetako 91 elkarrizketa-fitxetatik 29 barietate desberdin jo dira. Beraz baserrietan barietate asko errepikatzen dira.

Eskualde honetan tokiko barietateak erabiltzen duten eta elkarrizketatu ditugunak 60 urtetik gorakoak izan dira. Hiru nekazarik ezik, besteek jarraipenik ez dute izango (%75).

Etxeko haziak betidanik erabili izan dituztenak dira gehienak. Egindako inkestetan oso aspaldiko barietateak topatu ditugu; 70 urtetakoak dira asko eta gazteenak 10 urtetakoak. Azken kasu honetan haziak elkartruke bidez lortutakoak ziren. Elkartrukatzeko ohitura oraindik ere mantentzen da nekazari batzuen artean, hamabitik bik erabiltzen zituzten hazi batzuk era honetan lortu dituzte.

Denek egiten dute etxerako baratze txikia, eskualde honetan azoketan saltzeko ohiturarik ez dago. Abere hazkuntzan aritzeko ohitura handiagoa dute. Hala ere, badago baserri bat etxerako eta saltzeko baratzea egiten duena.

Egiten duten nekazaritza mota konbentzionala da, ez dago nekazaritza ekologikoa egiten duen pertsonarik.

Etxeko barietateak, belaunaldiz belaunaldi igaro diren barietateak, %88a osatzen dute, eta hauek, 20 eta 70 urte arteko antzinatasuna dute. Elkartruke bidez lortutako barietateak, %11a osatzen dute eta 10 urteko antzinatasuna dute, eta erositakoak edo komertzialak, %1a, 20 urteko antzinatasuna dute.

25. taula. Laginketaren ezaugarriak: Arratia-Nerbioi

Nekazaritza mota		Etxerako edo saltzeko		Jarraipena		Jatorria eta antzinatasuna		
Konbentzionala	Ekologikoa	Etxerako	Saltzeko	Bai	Ez	Etxekoa	Elkartrukea	Erositakoa
%100		%92	%8	%25	%75	%88	%11	%1
						20-70	10	20

Bete ziren 91 fiitxa-barietateetatik, 29 barietate ezberdin kontsideratu dira. hortaz, baserrietan, barietate asko errepikatzen dira. maiztasun handiena duten barietateak, piper txorizeroa, entsalada tomatea eta tokiko porrua dira. Barietate guzti hauek, 9 pertsonak kontserbatzen dituzte. Kasu honetan ere, *Phaseolus vulgaris* espeziea da dibertsifikatuena, 6 barietate ezberdin izanik.

Kukurbitazeoei dagokienez, porrusalda kalabaza, bazka kalabaza eta kalabazin berdea barietateak gordetzen dira. Ez dira asko hala ere gordetzen dituztenak; kalabaza porrusalda eta bazka kalabaza, elkarrizketatutako hamabi nekazarietatik bik soilik gorde eta ereiten dituzte, eta kalabazin berdea, nekazari bakar batek.

Lekadunen artean aniztasun handiena agertzen da, aurrean gertatu ohi den antzera; indaba gorria, Tolosako indaba, Gernikako indaba, indaba zuria, indaba zuria baxukoa, leka goranzkoa eta baba txiki eta handiak gorde eta ereiten dituzte. Hauetatik gehien gordetzen eta ereiten direnak Gernikako indaba, indaba gorria, baba txikia eta leka igokaria, 5, 7, 4 eta 5 nekazarik gordetzen baitituzte hurrenez hurren. 3 nekazarik, indaba zuri baxua etab aba handia kontserbatzen dute eta beste barietateak, nekazari banak gordetzen dituzte.

Solanazeoei buruz, piperren artean, piper txorizeroa, piper lodia edo erretzeko piperra eta pikillo piperra gorde eta ereiten dute. Guztietatik, gehien gorde eta ereiten direnak piper txorizeroa eta piper lodia edo erretzeko piperra, 9 eta 5 nekazarik gorde eta ereiten dituztelarik hurrenez hurren eta pikillo piperra, nekazari bakar batek gordetzen du. . Tomateen artean barietate bakarra topatu dugu; entsalada tomatea, eta hau ere, elkarrizketatutako 9 daukate.

Kruziferoei dagokienez, bazka-arbia eta neguko aza gordetzen dute soilik, nekazari gutxi batzuek. Hala nola, bazka-arbia 2 nekazarik gordetzen dute eta neguko aza nekazari bakar batek gordetzen du.

Konposatuei dagokienez, udaberriko letxuga, udako letxuga, letxuga kizkurra eta letxuga lisoa gordetzen da eta ereiten da. Gutxi batzuk dira, ordea; udako letxuga 3 nekazarik gordetzen dute eta beste 3 barietateak, udaberrikoa, lisoa eta kizkurra, nekazari banak.

Antzeko egoera dago kenopodiazeoen familiako tokiko zerbarekin; bi nekazarik soilik gordetzen baitute.

Liliazeoen artean, kipula zuria, kipula gorria, tokiko porrua eta *bonbilla* kipulina gorde eta ereiten dute. Gehien gorde eta ereiten direnak tokiko porrua eta kipula gorria dira, 8 eta 6 nekazarik gordetzen dutelarik hurrenez hurren.

Unbeliferoei dagokienez, tokiko perrexila nekazari batek gordetzen du.

Gramineoen artean irina egiteko artoa eta arto txikia gordetzen dute, oso gutxi, hala ere; irina egiteko artoa 4 nekazarik gordetzen dutelarik eta arto txikia nekazari batek.

6.4.1.4 Durangaldea

Bizkaiko hego ekialdeko eskualdea da eta Araba eta Gipuzkoarekin muga egiten du. Oiz mendia eta Anboto-Alluitzek osatzen duten mendilerroen artean kokatzen da. Durangaldea eskualdea. Bedia, Lemoa, Zornotza, Mallabia, Iurreta, Izurtza, Abadiño, Atxondo, Elorrio, Zaldibar, Ermua, Mañaria, Berriz, Garai eta Durango udalerriek osatzen dute. Bertatik igarotzen den ibai nagusia Ibaizabal da. Ekonomiari dagokionez, jarduera nagusiak industria eta zerbitzuak dira. Durangoko lautadako lur lau eta emankorretan nekazaritzak izan zuen hedapena oso murriztuta geratu da urbanizazio prozesuen ondorioz. Nekazaritza jarduera murriztu bezala azaltzen da (populazioaren %1,6ak dihardu bakarrik), herri txikietan eta hiri eremutik kanpo dauden baserrietan. Baserri gehienek autokontsumorako baratzea daukate eta gutxi batzuk negutegiak.

Laginketaren emaitzak

Durangaldean 15 elkarrizketa egin ziren Elorrio, Berriz, Abadiño, Iurreta eta Zaldibar herrietan. Hala nola, Abadiñon 6 elkarrizketa, Iurretan 5 elkarrizketa, Berrizen 2 elkarrizketa eta Elorrian eta Zaldibarren bana. Orotara, 93 fitxarietate bete ziren eta horietatik, 31 barietate ezberdin sailkatu ziren.

Elkarrizketatu denak bi ezik, 60 urtetik gorakoak ziren eta beren baratzeetan inork ez du jarraituko baratzea utziko dutenean (%83ak jarraipenik gabe).

15 nekazarietatik hiruk azoketan saltzeko baratzea egiten dute. Elkarrizketatu denek, hala ere, antzina azoketan saltzen zituzten beren produktuak. Beraz, gaur egun %80ak etxerako baratzea egiten du.

Bik ezik besteek nekazaritza konbentzionala egiten dute da. Nekazaritza ekologiko egiten duten hauek, gazteenak izan ohi dira; % 17a.

Eskualde honetan, elkartrukatzeko ohitura mantentzen dute inguruko baserrien artean eta bi nekazarik bertako barietateak era honetan eskuratu zituzten.

Aurkitutako barietateen jatorri eta antzinatasunari dagokionean, %83ak, etxeko barietateak osatzen dute; belaunaldiz belaunaldi igaro diren barietateak dira eta 40 eta 100 urte arteko antzinatasuna dute. Elkartruke bidez lortutakoak, %7a, 10 urteko antzinatasuna dute eta bestetik, ez dira topatu, 20 urte baino zaharragoak diren barietate komertzialik.

26. taula. Laginketaren ezaugarriak: Durangaldea

Nekazaritza mota		Etxerako edo saltzeko		Jarraipena		Jatorria eta antzinatasuna		
Konbentzionala	Ekologikoa	Etxerako	Saltzeko	Bai	Ez	Etxekoa	Elkartrukea	Erositakoa
%83	%17	%80	%20	%17	%83	%83	%7	
						40-100	10	

Egindako 93 barietate-fitxetatik 31 barietate desberdin sailkatu dira. Beraz, eskualdean asko dira errepikatzen dira barietateak. Maiztasun askoz behatzen diren barietateak, Tolosako indaba, entsalada tomatea, piper txorizeroa eta tokiko porrua dira. Piper txorizeroa 11 pertsonen kontserbatzen dute, Tolosako indaba 10 nekazarik et abeste barietateak, 9 nekazarik barietate bana. *Phaseolus vulgaris* espeziea (indaba-leka) da honetan ere dibertsifikatuena, 7 barietate ezberdin dituelarik.

Kukurbitazeoi dagokienez, kalabaza porrusalda eta kalabazin berdea gordetzen dira, nahiz eta oso nekazari gutxik gorde; porrusalda kalabaza 2 nekazarik soilik gordetzen dute eta kalabazin berdea nekazari bakar batek.

Lekadunei dagokionean, Gernikako indaba, indaba tolosarra, indaba gorri-iluna, indaba zuria baxukoa, indaba gorri txikia, leka goranzkoa eta baba txikiak gorde eta ereiten dira. Hauetatik gehien gordetzen dena, indaba tolosarra da, hamar nekazarik gorde eta ereiten dutelarik. Beste barietateak, nekazari gutxik gorde eta ereiten dituzte; leka goranzkoa lau nekazarik, baba txikia bi nekazarik eta Gernikako indaba, indaba gorri-iluna, indaba zuria baxukoa, indaba gorri txikia nekazari banak.

Solanazeoen artean, piper txorizeroa, piper lodia edo erretzeko piperra, eta pikillo piperra gorde dira. Tomateen artean, entsalada tomatea, pikoluzete tomatea, tomate zapala eta limoi tomatea gordetzen dira. Gehien gordetzen direnak, piper txorizeroa, piper lodia edo erretzeko piperra, eta entsalada tomatea dira, 11, 5 eta 9 nekazarik gordetzen dutelarik hurrenez hurren. Beste barietateak, nekazari gutxik gordetzen dituzte; 3 nekazarik, limonero tomatea gordetzen dute, bik, pikoluzete tomatea eta pikillo piperra eta tomate zapala nekazari bakar batek gordetzen du.

Kruziferoen artean, nafar aza, Holanda aza edo neguko aza eta bazka arbia aurkitu dira, nahiz eta gutxi batzuek izan gordetzen dituztenak; nafar aza eta bazka arbia nekazari banak gordetzen dute eta Holanda aza edo neguko aza lau nekazarik gorde eta ereiteko ohitura dute.

Konposatuen artean, letxuga gorria, *reina de mayo* letxuga eta tokiko letxuga gorde eta ereiten dute. Tokiko letxuga hiru nekazarik gordetzen dute, eta letxuga gorria eta *reina de mayo* letxuga nekazari banak.

Kenopodiazeoei dagokienez, bazka erremolatxa eta tokiko zerba gorde eta ereiten dira eta nekazari banak gordetzen dituzte.

Liliazeoen artean, kipula gorria, kipula zuria, tokiko kipulina, porru berdea eta tokiko porrua gorde eta ereiten dute. Hauetatik gehienak, kipula gorria, 5 nekazarik eta tokiko porrua 9k gordetzen dute. Beste barietateen kasuan, kipula zuria 3 nekazarik eta kipulina eta porru berdea nekazari banak.

Gramineoen artean, irina egiteko artoa lau nekazarik besterik ez dute gordetzen. Unbelifero familiako barietaterik ez da aurkitu.

6.4.1.5 Gernika-Bermeo

Urdaibai izenez ere ezagutzen da eta Bizkaiko iparraldean kokatzen da. Eskualde hau Bermeo, Busturia, Ea, Elantxobe, Errigoiti, Ereño, Forua, Arteaga, Gernika-Lumo, Ibarrangelu, Kortezubi, Mendata, Morga, Mundaka, Murueta, Muxika, Nabarniz eta Sukarrieta udalerriek osatzen dute. Orografiari dagokionez, hegoaldean Oiz eta iparraldean Sollube mendiak daude, Oka ibaia ardatz garrantzitsuena izanik, eskualdearen erditik igarotzen da. Ekonomiari dagokionez, jarduera nagusia industria eta zerbitzuak dira. Aipatzekoa da sektoreak Bermeon duen garrantzia arrantzari zor diola. Herri txikietan (Errigoiti, Morga, Ereño, Nabarniz, Mendata, Muxika, Kortezubin) lehen sektoreko populazioa nahiko handia da, %8 ingurukoa, beste eskualdeekin alderatuz behintzat.

Laginketaren emaitzak

Eskualde honetan, 24 elkarrizketa egin dira; 4 elkarrizketa Forun, hiruna, Ajangiz, Gernika-Lumo eta Kortezubin, bina Muxikan eta Arratzun eta bana, Ibarrangelu, Gautegiz-Arteaga, Ereño, Errigoiti, Mendata, Nabarniz eta Bermeon. Guztira, 174 fitxa-barietate bete dira eta horietatik 40 barietate ezberdin sailkatu dira.

Elkarrizketatu diren gehienak 60 urtetik gorakoak dira, hiru nekazari ezik, gazteagoak baitira. Haiek baratza uztean inork ez du hartuko (baratzetan jarraipena %18koa, beraz).

Elkarrizketatutako guztiek, saltzeko baratzea egiten dute, Gernikako azokan eta Bermeoko azokan saltzen dituztelarik bere produktuak.

Gehienek egiten duten nekazaritza mota konbentzionala da (%94). Nekazari gazte batek, hasi berria, nekazaritza ekologikoa egiten du.

Erabiltzen dituzten haziak, gehienak etxeakoak dira, urte askotan zehar izan dituztenak eta belaunaldiz belaunaldi iragaten joan direnak. Oraindik ere elkartrukatzeko ohitura geratzen da, baina oso nekazari gutxi egiten dute.

27. taula. Laginketaren ezaugarriak: Gernika-Bermeo

Nekazaritza mota		Etixerako edo saltzeko		Jarraipena		Jatorria eta antzinatasuna		
Konbentzionala	Ekologikoa	Etixerako	Saltzeko	Bai	Ez	Etxekoa	Elkartrukea	Erositakoa
%94	%6		%100	%82	%18	%96	%2	%2
						15-100	5-60	20-40

Egindako, 174 elkarrizketa fitxetatik, 40 barietatetan sailkatu dira. Beraz, asko errepikatzen dira. Gehien errepikatzen diren barietateak, Gernikako indaba, piper lodia eta piper txorizeroa dira. Gernikako indaba 17 nekazarik gordetzen dute eta piper bi barietateak (lodia eta txorizeroa), 11 eta 16 nekazarik gordetzen dituzte hurrenez hurren. Phaseolus vulgaris espeziea, 7 barietate ezberdinekin, dibertsifikatuena da.

Kukurbitazeoei dagokienez, tokiko pepinoa, porrusalda kalabaza, bazka kalabaza, kalabazin berdea eta kalabazin hori-zuria aurkitu dira eskualde honetan. Hauetatik gehien aurkitzen diren barietateak, porrusalda kalabaza eta kalabazin berdea dira; elkarrizketatutako nekazarietatik, 8 eta 7k gorde eta ereiten baitituzte. Kalabazin hori-zuria, soilik, 4 nekazarik daukate eta bazka kalabaza eta tokiko pepinoa, nekazari banak.

Lekadunen familian, hainbat barietate aurkitu dira: indaba fabada, Gernikako indaba, indaba gorria, indaba marroia, Tolosako indaba, indaba zuria baxua, leka igokaria, tokik oilarra, baba handia eta baba txikia eta frantses belarra. Gehien kontserbatzen direnak, Gernikako indaba, indaba gorria, indaba zuria et aleka igokaria dira. elkarrizketatuetatik, 17 nekazarik, Gernikako indaba kontserbatzen dute, zortzinak indaba gorria eta indaba zuria eta 9 nekazarik leka igokaria. Oso nekazari gutxik gordetzen dituzte beste barietateak: Tolosako indaba 6 pertsonak gordetzen dute, baba txikia eta tokik oilarra, 3 eta 4 nekazarik hurrenez hurren, indaba zuria baxua eta indaba marroia bina nekazarik eta baba handia eta frantses belarra nekazari banak.

Solanazeoei dagokienez, piper, tomate eta berenjenak erein eta gordetzen dituzte. Piperren artean, piper txorizeroa edo Gernikako piperra, piper lodia edo erretzeko piperra, Ibarako piperra, pipermina eta pikillo piperra gordetzeko ohitura dago. Tomateen artean, entsalada tomatea, puntaluze tomatea, limoi tomatea eta tomate zapala erein eta gordetzen dira. Berenjenari dagokionez, tokiko berenjena gordetzen du nekazari batek. Gehien gorde eta ereiten direnak, piper txorizeroa, piper lodia edo erretzekoa, entsalada tomate eta tomate udarekara dira. Piper txorizeroa, 16 nekazarik gordetzen du, piper lodia edo erretzekoa 11 nekazarik, eta entsalada tomatea eta tomate peraduna edo puntaluzea 9 eta 8 nekazarik. Beste barietateak, oso nekazari gutxik mantentzen dituzte; tomate zapal eta pipermina nekazari binak, eta Ibarako piperra, limoi tomatea eta tokiko berenjena nekazari banak.

Kruziferoei dagokienez, neguko aza edo Holanda aza izenez ere ezaguna dena, Nabarnizko arbia eta bazka arbia eta bazka arbi frantsesa aurkitu dira, oso nekazari gutxik erabili arren. Neguko aza edo Holanda aza 5 nekazarik besterik ez dute eta beste barietateak nekazari banak.

Konposatuei dagokienez, 2 nekazarik soilik lechuga kizkurra gordetzen dute.

Tokiko zerba da kenopodiazeoen familian gorde eta ereiten den barietate bakarra, nahiz eta arrakasta askorik ez izan nekazarien artean, soilik 6 nekazarik gordetzen baitute.

Lilizeoen artean, tokiko porrua, kipula gorria, Zallako kipula gorria, kipula horia eta kipula zuria gorde eta ereiten dira. Gehien gordetzen dena kipula gorria da, 8 nekazarik egiten dutelarik. Tokiko porrua eta kipula zuria, launa nekazarik mantentzen dute eta beste barietateak, nekazari banak.

Unbeliferoetatik, tokiko perrexila aurkitu da, nekazari baten eskuetan.

Gramineoen artean, irina egiteko txakin artoa eta arto horia gordetzen dira; txakin artoa 3 nekazarik gordetzen du eta arto horia nekazari batek.

6.4.1.6 Markina -Ondarroa

Lea-Artibai izenez ere ezagutzen da eta Bizkaiko ipar-ekialdean kokatzen da. Eskualde hau Etxabarriko San Andres elizatea, Ipazter, Lekeitio, Mendexa, Gizaburuaga, Amoroto, Berriatua, Ondarroa, Aulesti, Markina-Xemein, Munitibar eta Ziortza-Bolibar dira. Lea eta Artibai dira eskualdea zeharkatzen duten ibai garrantzitsuenak. Ekonomia jarduera nagusiak industria eta zerbitzuak dira. Hala ere, lehen sektorean populazio handiak dihardu %13. Ondarroan eta Lekeition, lehen sektorearen barruan arrantza da jarduera nagusia. Nekazaritzak herri txikietan garrantzi handia mantentzen du oraindik. Eremu menditsua da baina klima oso leuna eta egokia da baratzeetarako (ziklo luzeko espezieentzat behintzat). Baserri gehienek etxerako baratze txikia dute baina batzuk oraindik azoketan ere saltzen dute.

Laginketaren emaitzak

Eskualde honetan, 17 laginketa egin dira, Etxebarri (5), Bolibar(3), Markina (3), Lekeitio (1), Ondarroa (1), Aulestia (1), Ispazter (1) eta Berriatua (1) herrietan banatuak. 115 fitxa-barietate bete ziren, eta horietatik, 48 barietate ezberdin sailkatu ziren. Elkarrizketatu direnen artean, gehienak, beste eskualdetan ez bezala gazteak izan dira. Egiten duten baratzea txikia da; etxerako baratzea eta ez dago azokan bere produktuak saltzen dituen inor ere ez.

Haziak, etxeakoak dira, urteetan zehar belaunaldiz belaunaldi iragandakoak eta urte askotakoak, eta elkartrukea mantentzen da, bi nekazarik horrela lortu baitituzte bere haziak.

Egiten duten nekazaritza mota konbentzionala da. Horien artean ez zegoen nekazaritza ekologikoa egiten duen nekazaririk.

Barietateen jatorri eta antzinatasunari dagokionean, gehina (%88), etxeko hazika dira, belaunaldi belaunaldi iragan diren barietateak, eta 20 eta 50 urte arteko antzinatasuna dute. Beste barietateak, 512ak, elkartruke bidez lortutakoak dira eta 5 eta 20 urte arteko antzinatasuna dute. Eskualde honetan ez dira aurkitu 20 urte baino zaharragoak diren barietaterik.

28. taula. Laginketaren ezaugarriak: Markina- Ondarroa.

Nekazaritza mota		Etxerako edo saltzeko		Jarraipena		Jatorria eta antzinatasuna		
Konbentzionala	Ekologikoa	Etxerako	Saltzeko	Bai	Ez	Etxekoa	Elkartrukea	Erositakoa
%100		%100		%63	%37	%88	%12	
						20-50	5-20	

Egindako 115 elkarrizketa fitxak, 48 barietatetan sailkatu dira. sarrien agertzen diren barietateak, piper txorizeroa, entsalada tomatea eta puntaluze tomatea dira, 23, 8 eta 9 nekazarik gordetzen dituztelarik hurrenez hurren. *Phaseolus vulgaris* espeziearen dibertsitatea oso altua de eskualde honetan; 11 barietate ezberdin aurkitu dira.

Kukurbitazeoen artean, kalabazin berdea, kalabaza porrusalda eta pepinoa barietateak aurkitu dira. kalabaza porrusalda, elkarrizketatutako zortzi nekazarietatik, bi nekazarik soilik gorde eta ereiten dute eta pepinoa eta kalabazin berdea nekazari banak.

Lekadunei dagokienez, maiztasun gehiago dago. Indaba asturiarra, Gernikako indaba, indaba astuariarra handia, indaba gorria, indaba gorria baxua, Tolosako indaba, indaba zuria, indaba zuria baxua, baba handia, leka igokaria, leka Beltza Bidania, Errioxako leka eta tokiko ilarra aurkitu dira. gehin kontserbatzen diren barietateak, indaba gorria, Genrikako indaba eta indaba zuria dira; elkarrizketatutako pertsonetatik, 5 nekazarik Gernikako indaba eta indaba gorria gordetzen dute, lau nekazarik, indaba zuria et aleka igokaria, 2 nekazarik, indaba zuria baxua, indaba gorria baxua eta Tolosako indaba eta beste barietateak nekazari banak gordetzen ditu.

Solanazeoi dagokienez, piper txorizeroa, piper lodia edo erretzeko piperra, *cuernocabra* piperra eta piper italiarra aurkitu dira piperren artean eta tomateen artean, tomate zapala, entsalada tomatea, entrena toamtea, tres cantos tomatea, puntaluze tomatea, lila tomatea, limonero tomatea eta tomate kizkurra. Gehien gorde eta ereiten direnak, piper txorizeroa, entsalada tomatea eta puntaluze tomatea dira. Izan ere, piper txorizeroa, elkarrizketatutako 14 nekazarik dauka, entsalada tomatea 8 nekazarik dute, eta puntaluze tomatea 9 nekazarik. Beste barietateak, leku gutxitan aurkitu dira; 2 nekazarik tomate zapala dute eta beste barietateak (piper italiarra, tomate entrena, tomate limonero, tres cantos tomatea eta tomate kizkurra), nekazari banak gorde eta ereiten dute. Huez gaina, tokiko berenjena ere topatu da, berau, elkarrizketatu batek gordetzen duela.

Kruziferoen artean, neguko aza, *corazon de buey* aza eta bazka arbia gordetzen eta ereiten dute. Barietate hauek baserri banatan topatu dira.

Konposatuen artean, tokiko letxuga, letxuga kizkurra eta *hoja de roble* letxuga erein eta gordetzen dute. Tokiko letxuga 4 nekazarik gorde eta ereiten dute eta beste barietateak nekazari banak mantentzen ditu. Kenopodiazeoen artean, tokiko zerba gorde eta ereiten dute lau nekazarik eta nekazari batek, tokiko espinaka gordetzen du.

Liliazeoen artean, tokiko porrua, porru horia eta kipula gorria erein eta gordetzen dute, ia nekazari gehienek. Elkarrizketatutako 17 nekazarietatik, bosna nekazarik kipula gorria eta tokiko porrua gordetzen dute eta bakar batek porru horia.

Gramineon artean, arto horia, arto gozoa, palomitak egitekoa rtoa eta irina egiteko artoa gordetzen dute. Irina egiteko artoa bi nekazarik gordetzen dute eta beste barietateak nekazari banak.

6.4.2.1- Enkarterriak

Enkarterri, Bizkaiko mendebaldeko eskualdea da. Mugakide, iparraldean Kantauri itsasoa, mendebaldean Kantabria, hegoaldean Burgos eta ekialdean Bilbo Handia eskualdeak ditu. Enkarterri osatzen duten udalerrriak 10 dira: Gordexola, Zalla, Güeñes, Galdames, Sopuerta, Turtzioz, Artzentales, Balmaseda, Lanestosa eta Karrantza Harana. Eskualde honetan jarduera nagusia hirugarren sektorea da, baina lehen sektorean dihardutenen kopurua batz bestekoa baino handiagoa da (%6,7a). Aipatzekoa da Karrantza Haranan %34a horretan diharduela, abeltzaintzan nagusiki.

Laginketaren emaitzak

Guztira, 18 elkarrizketa egin ziren, 17 Karrantzan eta 1 Zallan. Esan daiteke Enkarterriko mendebaldeko eremuan, nekazaritza sektore indartsuena gordetzen duena, lan oso osoa burutu zela. Guztira, 47 fitxa-barietate bete ziren eta horietatik, 25 barietate ezberdin sailkatu ziren.

Elkarrizketa hauek, prospekzioaren aurretik egin izan dira, beste elkarrizketa eredu bat erabiliz eta ondorioz, datu batzuen homogenitatea eragozten da; nekazaritza mota, erositako barietateen jatorria, noiztik erabiltzen diren, jarraipena eta elkartrukatzeko ohitura. Hala ere, aipatu daiteke, barietateen jatorria etxekoa dela, belaunaldi belaunaldi igarotako barietateak direla eta 5 eta 40 urte arteko antzinatasuna dutela.

Taula 29: Laginketaren ezaugarriak: Enkarterriak

Nekazaritza mota		Etxerako edo saltzeko		Jarraipena		Jatorria eta antzinatasuna		
Konbentzionala	Ekologikoa	Etxerako	Saltzeko	Bai	Ez	Etxekoa	Elkartruketa	Erositakoa
%100		%100			%100	%100		
						5-40		

Egindako 47 barietate-fitxetatik eskualde honetan 25 barietate desberdinetan sailkatu ziren. Maizen erabiltzen diren barietateak, Guriezoko indaba eta Tolosako indaba dira, 5 eta 4 nekazarik gordetzen dituzte hurrenez hurren. Kasu honetan ere, *Phaseolus vulgaris* da espezie dibertsifikatuena, 13 barietate ezberdinekin.

Kukurbitazeoan artean, porrusalda kalabaza eta *cabello de angel* kalabaza aurkitu dira soilik, eta hauek, nekazari banak soilik erein eta gordetzen dituzte.

Lekadunei dagokienean, indaba marroiak, Arabako indaba txikia, ama birjina indaba, Tolosako indaba, Guriezoko indaba, fabada indaba, indaba zuri txikia, indaba gorria, indaba zuria, Gernikako indaba, frijol beltza, leka igokaria eta tokiko ilarra aurkitu dira. Hauen artean gehien erein eta gordetzen direnak tolosako indaba eta Guriezoko indabak dira; 5 eta 4 nekazarik gorde eta ereiten baitituzte hurrenez hurren. Beste barietateak, nekazari gutxik gorde eta ereiten dituzte; ama birjina indaba eta Arabako indaba txikia hiruna nekazarik, indaba marroiak, indaba zuria eta Gernikako indabak, bina nekazarik eta beste guztiak, fabada indaba, indaba gorri txikia, indaba zuri txikia, indaba gorria, frijol beltzak, goranzko leka eta tokiko ilarra, nekazari banak.

Solanazoei dagokienez, pipermina, tomate nanoa eta piper lodia edo erretzekoa gorde eta ereiten dute. Hiru barietate hauek nekazari banak mantentzen dituzte.

Kruziferoei dagokienez, bazka arbia erein eta gordetzen du nekazari bakar batek. Konposatuen artean tokiko letxuga ere gorde eta ereiten du nekazari bakar batek.

Liliazoei dagokienez, kipula gorri-zuria, tokiko porrua eta Zallako kipula gorria gorde eta ereiten da. Kipula gorria hiru nekazarik mantentzen dute eta beste biak nekazari banak. Gramineoi dagokienez, irina egiteko artoa gorde eta ereiten du nekazari batek. Kenopodiazeo eta unbeliferoen familiako barietaterik ez da aurkitu.

6.4.3 Emaitzak barietateen arabera

30. taulan, Bizkaiko eskualde guztietan agertu diren barietateak laburbiltzen dira.

Taula 30: Bizkaian eta eskualde bakoitzean dauden barietateak (kurtsibaz eta azpimarratuta gehien gordetzen diren barietateak eta parentesien artean ereiten dituztenen elkarrizketatu kopurua)

Familiak	Plentzia-Mungia	Bilbo Handia	Arratia -Nerbioi	Enkarterriak	Durungaldea	Gernika- Bermeo	Markina -ndarroa	
Kukurbitazeoak	<i>Cabello de angel</i> kalabaza (1)	Bazka kalabaza (1)	Bazka Kalabaza (2)	<i>Cabello de angel</i> kalabaza (1)	Porrusalda kalabaza (2)	Tokiko pepinoa(2) Bazka kalabaza (1)	Tokiko Pepinoa (1)	
	Porrusalda kalabaza (4)	Porrusalda kalabaza (5)	Porrusalda kalabaza (2)	Porrusalda kalabaza (1)	Kalabazin berdea (1)	Porrusalda kalabaza (7)	Kalabaza cabello de angel (1)	
	Kalabazin berdea (2)	Potimarron kalabaza (1)	Kalabazin berdea (1)			Kalabazin berdea (7)	Porrusalda kalabaza (2)	
		Kalabazin berdea (1)		Kalabazin hori zuria (4)	Kalabazin berdea (1) Kalabazin zuri-horia (1)			
Lekariak	Arroz indaba (1)	Gernikako indaba (3)	Gernikako indaba (5)	Indaba ama birjina (3)	Gernikako indaba (1)	Fabada indaba (1)	Indaba asturiana (1)	
	Fabada indaba (2)	Indaba gorria (2)	Indaba gorria (7)	Indaba Arabako txikia(3)	Indaba gorria (1)	<u>Gernikako indaba (17)</u>	Gernikako indaba (5)	
	Gernikako indaba (1)	<u>Tolosako indaba (10)</u>	Tolosako indaba (1)	Frijol beltza (1) Fabada indaba (1)	Indaba gorri txikia (1)	Indaba gorria (8)	Indaba asturiarra handia (1) <u>Indaba gorria(5)</u>	
	Indaba gorria (2)	Indaba zuria (3)	Indaba zuria (1)	Gernikako indaba (2)	Indaba gorri iluna (1)	Indaba marroia (1)	Indaba gorria baxua (2)	
	Indaba gorri-iluna (4)	Indaba zuria baxukoa(2)	Indaba zuria baxukoa(2)	Indaba gorria (1)	<u>Tolosako indaba (10)</u>	Tolosako indaba (6)	<u>Tolosako indaba (2)</u>	
	Indaba zuria (2)	Baba ertaina(1)	Baba handia(2)	Indaba gorri txikia (1)	Indaba zuri baxukoa (1)	Indaba zuria (8)	Indaba zuria (4)	
	<u>Tolosako indaba (5)</u>	Baba handia (1)	Baba txikia (4)	<u>Guriezoko indaba (5)</u>	Baba txikia (2)	Indaba zuri baxua (2)	Indaba zuri baxukoa(2)	
	Lekak igokaria (1)		Leka igokaria (5)	Indaba marroia (2)	Leka gorakoa (4)	Baba handia (2)	Baba handia(1)	
				<u>Tolosako indaba (4)</u>		Baba txikia (3)	Baba txikia (1) Leka beltza Bidania (1)	
	Tokiko ilarra (1)	Leka gorakoa (3)			Indaba zuria(2)		Leka gorakoa (9)	Leka Errioxa (1)
		Leka baxukoa (1)			Indaba zuri txikia(1)		Tokiko ilarra (4)	Leka igokaria (4)
		Tokiko ilarra (2)					Frantses belarra (1)	Tokiko ilarra (1)
					Leka igokaria(1)			
				Tokiko ilarra				

Familiak	Plentzia-Mungia	Bilbo Handia	Arratia -Nerbioi	Enkarterri	Durungaldea	Gernika- Bermeo	Markina -Ondarroa						
Solanazeoak	Piper lodia edo erretzekoa (3)	<i>Cuernocabra</i> piperra (1)	Piper lodia edo erretzekoa edo pipermorrea (5)	Piper lodia edo erretzekoa edo pipermorrea (1)	Piper lodia edo erretzekoa (5)	Ibarrako piperra (1)	<i>Cuernocabra</i> piperra (1)						
	Pikillo piperra (1)	<i>Piperra lodia edo erretzekoa edo pipermorrea (10)</i>	Pikillo piperra (1)	Tokiko Pipermina (1)	Pikillo piperra(2)	<i>Piper lodia edo erretzekoa (11)</i>	Piper italiarra (1) Piperra lodia edo erretzekoa (2)						
	Tokiko Pipermina (2)	<i>Piperra txorizeroa(10)</i> Tomate morea(1)	<i>Piperra txorizeroa(9)</i>	Tomatea nanoa (1)	<i>Piperra txorizeroa (11)</i>	Tokiko pipermina (2) <i>Piper txorizeroa (Gernikakoa) (17)</i>	<i>Piper txorizeroa (13)</i> Tomate entrena (1)						
	<i>Piper txorizeroa (6)</i>	Entsalada tomatea (6)	<i>Entsalada tomatea (9)</i>		<i>Entsalada tomatea (9)</i>	<i>Entsalada tomatea/borobila (8)</i>	<i>Entsalada tomate borobila (8)</i>						
	<i>Entsalada tomatea (5)</i>	Tomate zapala (5)						Limonero tomatea (1)					
	Pikoluze/peradun tomatea (1)	Tomate puntaluzea (2)					Limonero tomatea (3)	Limonero tomatea (1)	Tomate morea (1)				
	Tomate zapala (1)												
	Eskegiteko tomatea(1)										Puntaluze /peradun tomatea (2)	<i>Puntaluze tomatea (peraduna) (9)</i>	<i>Puntaluze tomatea (9)</i> Tomate kizkurra (1)
											Tomatea zapala(1)	Tomate zapala (2)	Tomate tres cantos (1)
												Tokiko berenjena (1)	Tomate zapala (2) Tokiko berenjena (2)
Kruziferoak	Neguko aza(1)	Arbi zuria (1)	Neguko aza (1)	Bazka arbia (1)	Holanda aza (neguko aza) (4)	Holanda aza (neguko aza) (5)	<i>Corazon de buey</i> aza (1) Neguko aza (1)						
	Arbi zuria (1)		Bazka-arbia (2)		Bazka arbia (1)	Nafar aza/udako/udaberriko aza (1)	Arbia zuria /Nabarnizko arbia (1)	Bazka arbia (2)					
						Bazka arbia (1)	Bazka arbi frantsesa (1)						
							Bazka arbia (1)						
Konposatuak	Tokiko txikoria (1)	Tokiko letxuga (3)	Udaberriko letxuga (1)	Tokiko letxuga(3)	Tokiko letxuga (3)	Letxuga kizkurra (2)	Tokiko letxuga (4) Uraza kizkurra (1)						
	Neguko letxuga(2)	Letxuga gorria(1) Neguko letxuga (1) Udako letxuga (1) Tokiko eskarola (3) Tokiko alkatxofa (2) Tokiko txikoria (2)	letxuga kizkurra (1)		Udako letxuga (3)		<i>Reina de mayo</i> letxuga (1)		<i>Hoja de roble</i> letxuga (1)				
			letxuga lisoa (1)										

Familiak	Plentzia-Mungia	Bilbo Handia	Arratia -Nerbioi	Enkarterri	Durangaldea	Gernika-Bermeo	Markina-Ondarroa
Kenopodiaceoak	<u>Tokiko zerba (5)</u>	Tokiko zerba (5)	Tokiko zerba (2)		Bazka erremolatxa (1)	Tokiko zerba (6)	Tokiko zerba (4)
	Espinaka frantsesa (1)	Bazka erremolatxa (1)			Tokiko zerba (1)		Udako espinaka (1)
	Erremolatxa gorria (erremolatxina) (1)	Erremolatxa gorria (erremolatxina) (1)					
Liliaceoak	<u>Tokiko porrua (5)</u>	Tokiko porrua (5)	<u>Tokiko porrua (9)</u>	Tokiko porrua (1)	<u>Tokiko porrua (9)</u>	Tokiko porrua (4)	Tokiko porrua (5)
	<u>Kipula gorria (4)</u>	Kipula gorria (3)	<u>Kipula gorria (6)</u>	Kipula gorria(3)	Porru berdea (1)	Kipula gorria (8)	Porru horia (1)
	Zallako kipula gorria (1)	Kipula zuria (1)	<u>Bonbilla kipulina (1)</u>	Zallako kipula gorria (1)	Kipula gorria (5)	Kipula horia (1)	Kipula gorria (5)
	Kipula zuria (3)		Kipula zuria (2)		Kipula zuria (3)	Kipula gorria Zalla (1)	
	<u>Bonbilla kipulina (1)</u>				Tokiko Tipulina (1)	Kipula zuria (4)	
Unbeliferoak	Tokiko txiribia(1)		Tokiko perrexila(1)			Tokiko perrexila (2)	Tokiko perrexila (2)
Gramineoak	Irin artoa (1)	Artatxikerra (4)	Irin artoa (4)	Irin artoa (1)	Irin artoa (4)	Txakin artoa (3)	Irin artoa (2)
	Txakin artoa (1)	Txakin artoa (2)	Arto txikia (1)			Artoa gozoa(1)	
						Arto horia (2)	
						Palomitak egiteko artoa (1)	
35	36	29	25	31	40	48	

6.5. Emaitzen laburpena, EEA mailan

Emaitzetan bildu dena laburbiltzeko, ondoren aurkezten diren taulak bideratu dira. tauletan, eskualde bakoitzean egindako elkarrizketetatik jasotako informazioa biltzen da. 31.taulan, herrialde eta eskualde bakoitzean, egindako inkesta kopurua, betetako barietate-fitxa kopurua eta topatutako barietate kopurua agertzen da.

Horrela, herrialdeka eta eskualdeka, Araban, guztira 61 inkesta egin ziren eta 330 barietate fitxa bete ziren, zeinetatik, 54 barietate ezberdin sailkatu zirelarik. Arabako ibarra eskualdea izan zen, inkesta kopuru handiena bildu zena (14 inkesta). Bestetik, Errioxa Araban, Arabako Lautadan eta Kantauri Arabarrean, soilik, inkesta kopuru minimoa bete zen (8 inkesta). Betetako barietate fitxerik dagokionean, Araba Mendialdean, bete ziren fitxa gehien, 107 guztira baita, bertan aurkitu ziren, barietate ezberdinen kopuru handiena. Arabako Lautadan ordea, 10 barietate fitxa soilik bete ziren eta 9 barietate ezberdin bakarrik aurkitu ziren. Honek, Arabako mendialdean dagoen barietate dibertsitate handia erakusten digu.

Gipuzkoako herrialdeari dagokionez, 71 baserri edo baratze lafindu ziren eta 429 fitxa barietate bete ziren. Horietatik, 50 barietate ezberdin sailkatu ziren. Eskualdeka, Urola Kostan egin ziren inkesta edo elkarrizketa gehien (13 inkesta), Deba Beheran eta Debagoienan ordea, minimoa bakarrik bete zen (8 inkesta). Barietate-fitxa kopuru gehien bete zen eskualdea, Goierri da (81 barietate-fitxa). Debagoienan ordea, 41 barietate fitxa soilik bete ziren eta berau izan da barietate ezberdinen kopuru altuena behatu dena (25 barietate ezberdin).

Eta bukatzeko, Bizkaian, 107 inkesta egin ziren, eta 702 fitxa barietate bete ziren. Azken hautatik, 88 barietate ezberdin sailkatu ziren. Gernika-Bermeo eskualdean egin ziren inkesta kopuru gehien (24 inkesta) eta Plentzia-Mungia eskualdean, soilik 9 inkesta egitera heldu ginen. Gernika-Bermeo eskualdea izan zen baita, barietate fitxa kopuru handiena bildu zena, 174 hain zuzen, hala ere, barietate kopuru handiena aurkitu zen eskualdea, Markina-Ondarroa izan zen, 48 barietate ezberdinekin. Barietate fitxa kopuru gutxien Enkarterrietan bildu ziren, soilik 47 fitxa, eta azken eskualde honetan ere, barietate kopuru gutxien bildu zen, 25 barietate ezberdin.

Hortaz, EAEn, orotara, 239 inkesta egin ziren, 1461 barietate fitxa bete ziren eta 96 barietate ezberdin aurkitu ziren. (taula 31).

Taula 31: Elkarrizketa kopurua, bearietate fitxa kopurua, barietate ezberdinen kopurua, herrialde eta eskulade arabera.

Herrialdea	Eskuladea	Elkarrizketa kopurua	Barietate fitxa kopurua	Barietate kopurua
Bizkaia	Plentzia-Mungia	9	75	35
	Bilbo Handia	15	107	36
	Arratia-Nerbioi	12	91	29
	Enkarterriak	18	47	25
	Durungaldea	11	93	31
	Gernika-Bermeo	24	174	40
	Markina-Ondarroa	18	115	48
<i>Guztira</i>	<i>8</i>	<i>107</i>	<i>702</i>	<i>88(barietate ezberdin)</i>
Gipuzkoa	Deba Behera	8	46	18
	Urola Kosta	13	50	19
	Tolosaldea	10	60	15
	Goierrri	10	81	14
	Debagoiena	8	41	25
	Bidasoa Behera	11	79	12
	Donostialdea	11	72	17
<i>Guztira</i>	<i>7</i>	<i>71</i>	<i>429</i>	<i>50 (barietate ezberdin)</i>
Alava	Gorbeialdea	12	39	23
	Araba Ibarrek	14	49	21
	Kantauri Arabarra	8	75	25
	Arabako lautada	8	19	9
	Araba Mendialdea	11	107	30
	Errioxa Arabarra	8	41	15
<i>Guztira</i>	<i>6</i>	<i>61</i>	<i>330</i>	<i>54(barietate ezberdin)</i>
<i>EAE guztira</i>	<i>21</i>	<i>84</i>	<i>1461</i>	<i>95(barietate ezberdin)</i>

Bestetik, elkarrizketetatik jasotako informazioarekin, nekazaritza mota, baratzeen jarraipena, hazien jatorria eta antzinatasuna, eta barietateen kontsumoa, 32.taula osatu da, herrialdeka eta eskualdeka.

Herrialdeka, Araban, barietateen jatorri eta antzinatasunari dagokionez, %63 eta %84an artean, etxeko haziak erabiltzen dira, belaunaldiz belaunaldi igarotako barietateak. Etxeko haziak gehien erabiltzen dituen eskualdea, Gorbeialdea eta Arabako Lautada dira eta gutxien, Arabako Ibarrek. %26 eta %37 artean, elkartruke bidez lortutako haziak erabiltzen dira. Modu honetan lortutako haziak erabiltzen dituzten eskualdeak, Arabako ibarrek eta Kantauri Arabarra dira. Barietateen antzinatasunari so eginez, zaharrenak etxekoak dira, 20 eta 65 urte artean kokatzen dira, eta gazteenak, elkartruke bidez lortutakoak, 5 eta 20 urte artean. Herrialde honetan ez da behatu, 20 urte baino zaharragoak ziren barietate komertzialik.

Nekazaritza motari dagokionean, gehienak nekazaritza konbentzionala egiten dute. Hala ere, Kantauri Arabarrean, %37ak, nekazaritza ekologikoa egiten dute. %37 da ere, eskualde honetan dagoen baratzeen jarraitasuna, beste eskualdeetan, ez dago jarraitasunik baratzeetan. Eta bukatzeko, eskualde honetan, %37 da ere, salmenatan diharduten bakarrak, beste eskualdeetan etxerako baratzea soilik egiten baitute.

Gipuzkoan, etxeko hazien erabilera, belaunaldiz belaunaldi igaro diren hazien erabilera, oso hedatua dago (%70-95), eta hauek, aldi berean, zaharrena ere badira, 30 eta 70 urte artekoak dira. Barietate zaharrenak Donostialdea eta Bidasoa Beheran aurkitu dira. Elkartruke bidez lortutako haziak, %5 eta %28 arteko erabilera eta 5 eta 17 urte arteko antzinatasuna dute. Elkartruke bidez lortutako haziak, zaharrenak, Bidasoa Behera eskualdean aurkitu dira.

Nekazaritza motari dagokionean, eskualde gehienetan, nekazaritza konbentzionala egiten dute (%75-100), baina nekazaritza ekologikoa ere indarrez sartu da, %9 eta 25 artean egiten baita, eskualde guztietan, Bidasoa Behera eta Goierria eskualdetan ezik. Nekazaritza mota hau gehien egiten den eskualdea, Deba Behera da. Jarraitasuna, nekazaritza motarekin lotuta dago; nekazaritza konbentzionala egiten duten nekazariak, gehientsua bere baratzetan jarraipenik ez duten pertsona zaharrak dira. Ordea, jarraipena dutenak, nekazaritza ekologikoa egiten dutenak dira.

Bizkaian, barietateen jatorria dela eta, gehienak, etxeko haziak dira (%83-100); belaunaldiz belaunaldi igaro diren haziak. Aldi berean, hauek, barietate zaharrenak dira, 100 urte baino zaharragoak diren barietateak aurkitu baitira, Durangaldea eta Gernika-Bermeo eskualdetan. Elkartruke bidez lortutako barietateak, %2-12 arteko erabilera dute eta zaharrebak, 20 urtekoak dira, eta azkenik, komertzialak, %1-2 artean erabiltzen dira, Plentzia-Mungia, Gernika-Bermeo eta Arratia-Nerbioi eskualdetan eta 20 eta 40 urte arteko antzinatasuna dute.

Nekazaritza motari dagokionez, gehientsuak, nekazaritza ekologiko egin ohi du (%83-100) eta zati txiki batek, (%6-22), nekazaritza ekologikoa egiten du, kasu gehienetan pertsona gazteak. Eskualde gehienetan jarraipenik ez dagone arren, Gernika-Bermeo eskualdean, jarraitasun tasa oso altuan aurkitu da (%82). Eta bukatzeko, gehienak, etxerako baratzea dute, baina eskualde baztuetan eta batez ere Gernika-Bermeo eskualdean, gehienak saltzeko baratzea egiten dute.

Laburbiltzeko, EAEn, barietateen jatorri eta antzinatasunari dagokionean, eskualde guztietan etxeko haziak erabiltzen dira, belaunaldiz belaunaldi igaro diren haziak. Proporzio txiki batek, bere haziak auzokoen artean trukatzuz lortu ditu eta bi nekazari, soilik, erositako haziak erabiltzen dituzte (Gernika-Bermeo eta Arratia -Nerboi eskualdeetan). Barietateen antzinatasunak aditzera ematen digu, barietate zaharrenak, Gernika-Bermeo, Plentzia-Mungia eta Durangaldeen aurkitzen direl, gutxienez 100 urte dituzten barietateak aurkitu baitira. Hala ere, eskualde guztietan, 40 urte baino zaharragoak diren barietateak erabiltzen dira.

Nekazaritza motari dagokionez, gehienak, nekazaritza konbentzionala egiten du. 11 eskualdetan soilik, nekazaritza mota hau egiten da soilik, eta gainerako eskualdetan nekazaritza mota biak, nahiz eta ekologikoa beti proporzio baxuagoan. Azken nekazaritza mota hone proporzio altuenak, Deba Behera eta Plentzia-Mungia eskualdetan aurkitu dira.

8 eskualde dira, etxerako baratzea soilik egiten duten eskualdeak. Beste eskualdetan, Gernika-Bermeo eta Urola Kosta bezalako eskualdetan merkatuetako salmenta oso hedatua dago, eta gehienak, bere produktuan merkatuetan saltzen dituzte.

Jarraipenari dagokionean, 7 eskualdetako baratzeek ez dute jarraitasunik, baina Gernika-Bermeo eta Markina-Ondarroa bezalako eskualdetan, jarraitasuna handiagoa da (%82 eta %63 hurrenez hurren).

Horrela, datu guztiak bateratuta, EAEn, erabiltzen diren barietate gehienak, etxeakoak dira (%84), besteak, elkartruke bidez lortutakoak %15a osatzen dute eta komertzialak, %1a osatzen dute. Antzinasunari so eginez, zaharrenak, etxeako barietatak dira, 6 eta 100 urte biarte dituzte, elkartruke bidez lortutakoak, 5 eta 60 urte artean dituzte eta komertzialak, 20 eta 40 urte artean. Nekazaritza mota dela eta, %94ak, nekazaritza konbentzionala egiten du eta %6ak nekazaritza ekologikoa. Elkarriketatutako nekazarien %81ak azpimarratzen du, ez daukala bere baratzeetan jarraitasunik eta bukatzeko, elkarriketatuen %77ak, etxerako baratzea egiten duela baieztatu du (taula 32).

Herrialdea	Eskualdea	Jatorria eta antzinatasuna			Nekazaritza mota		Jarraipena		Etxerako edo saltzeko	
		Etxekoa	Elkartruketa	Erositakoa	Konbentzionala	Ekologikoa	Bai	Ez	Etxerako	Saltzeko
Araba	Gorbeialdea- Zuia	%84/20-60	%16 5-20		%100			%100	%100	
	Araba Ibarrak	%63/20-65	%37 5-20		%100			%100	%100	
	Kantauri Arabarra	%74/20-65	3%6 5-15		%63	%37	%13	%87	%63	%37
	Arabako Lautada	%84/45-65	%16 7-15		%100			%100	%100	
	Araba Errioxa	%83/45-60	%17 8-10		%100			%100	%100	
	Arabako Mendialdea	%78/45-65	%22 6-15		%100			%100	%100	
	<i>Laburpena</i>	<i>%63-84 /20-65</i>	<i>%16-37 5-20</i>		<i>%63-100</i>	<i>%37</i>	<i>%13</i>	<i>%100</i>	<i>%63-100</i>	<i>%37</i>
Gipuzkoa	Debagoiena	%93/30-60	%7 10-15		%87	%13	%13	%87	%25	%75
	Urola Kosta	%70/30-50	%30 5		%85	%15	%15	%85	%8	%92
	Deba Behera	%72/40-60	%28 6-15		%75	%25	%25	%75	%75	%25
	Tolosaldea	%95/30-50	%5 7-15		%90	%10	%10	%90	%80	%20
	Goierni	%93/30-50	%7 5-15		%100			%100	%100	
	Donostialdea	%90/30-70	%10 5-15		%91	%9	%9	%91	%91	%9
	Bidasoa	%84/45-70	%16 17-6		%100		%9	%91	%91	%9
	<i>Laburpena</i>	<i>%70-95/ 30-70</i>	<i>%5-28 5-17</i>		<i>%75-100</i>	<i>%9-25</i>	<i>%9-25</i>	<i>%75-100</i>	<i>%8-100</i>	<i>%9-92</i>

Herialdea	Eskualdea	Jatorria eta antzinatasuna			Nekazaritza mota		Jarraipena		Etixerako edo saltzekoa	
		Ettxekoa	Elkartruketa	Erositakoa	Konbentzionala	Ekologikoa	Bai	Ez	Etixerako	Saltzeko
Bizkaia	Plentzia-Mungia	%88/10-50	11 6%-10	%1-20	%78	%22	%22	%78	%56	%44
	Bilbo Handia	%86/6-80	%14 6-10		%93	%7	%20	%80	%80	%20
	Arratia -Nerbioi	%88/20-70	%11 10	%1 20	1%00		%25	%75	%92	%8
	Durungaldea	%83 40-100	%7 10		%83	%17	%17	%83	%80	%20
	Gernika-Bermeo	%96 15-100	%2 5-60	%2 20-40	%94	%6	%82	%18		%100
	Markina -Ondarroa	%88 20-50	%12 5-20		%100			%100	%100	
	Enkarterriak	%100 5-40			%100			%100	%100	
	<i>Laburpena</i>	%83-100 6-100	%2-12 5-20	%1-2 20-40	%83-100	%6-22	%17-82	%18-100	%56-100	%8-100
EAE	<i>Guztira -batezbestekoa</i>	%84 6-100	%15 5-60	%1 20-40	%94	%6	%19	%81	%77	%23

Oro har, EAEn, nekazaritzako espezie guztietako barietateak gordetzen dira, nahiz eta, espezieen arabera, barietate kopuruaren arteko aldea oso handia izan (14,22, eta 30 taulak).

Badira espezie guztietako barietateak gordetzen dituzten nekazariak, hau da, inoiz hazirik erosi ez dutenak, betidanik etxeak edo auzokoen artean elkartrukaturako haziak erabili izan dituztenak. Talde horretakoak dira elkarrizketatu guztien %84.

Elkarrizketatu diren baserrietan, 26 espezie eta 95 barietate aurkitu dira guztira (ikus II. Eranskina). Barietate desberdin gehien dituen espeziea, indaba da (*Phaseolus vulgaris* L.). Espezie horrek 22 barietate desberdin ditu lagindutako eskualdeetan. Aipatu beharreko beste hiru espezie tomatea (*Lycopersicon esculentum* Mill.), piperra (*Capsicum annum* L.) eta letxuga (*Lactuca sativa* L.) dira; 11 tomate barietate, 8 piper barietate eta 9 letxuga barietate aurkitu dira. Beraz, espezie horietan, dibertsitate handiagoa dagoela baieztatu daiteke. (33. taula)

Aurkitu diren espezie eta barietateen artean, dibertsitate handiena duten horiek dira, aldi berean, erabilera askotarikoena dutenak. Hala nola, espezie erabilienak indaba (*Phaseolus vulgaris* L.), tomatea (*Lycopersicon esculentum* Mill.), piperra (*Capsicum annum* L.), letxuga (*Lactuca sativa* L.), kalabaza eta kalabazina (*Cucurbita* sp) dira.

Taula 33: Familia eta espeziearen arabera, bakoitzak duen barietate kopurua, barietatea eta EAEn dagoen kopuru totala.

Familia	Espezia	Ezpezioko barietate kopurua	Barietatea	Guztira EAEn
Kukurbitazeoak	<i>Cucumis sativus</i>	1	Pepinoa	10
	<i>Cucurbita maxima Duchense</i>	4	Bazka kalabaza	8
			Kalabaza cabelle de ángel	6
			Kalabaza porrusalda	59
	<i>Cucúrbita pepo</i>	2	Kalabaza potimarron	1
Leguminosak	<i>Phaseolus vulgaris volúbilis</i>	16	kalabazina berdea	35
			Kalabazina zuri horia	8
			Indaba ama birgina begiak	3
			Leoiko indaba	1
			Genevilla indaba	1
			Indaba asturiarra	1
			Indaba fabada	4
			Gernikako indaba	46
			gigante asturiarra indaba	1
			Indaba gorria	59
			indaba gorri iluna	6
			Guriezoko indaba	5
			indaba marroia	3
			Tolosako indaba	112
			indaba zuria	39
			Leka igokaria	79
	Errioxako leka	1		
	Bidania leka beltza	2		
	<i>Phaseolus vulgaris nanus</i>	6	indaba pinta arabarra	31
			indaba arroz	7
			indaba gorria baxua	9
			Leka baxua	2
	<i>Phaseolus coccineus</i>	1	Tolosako indaba baxua	5
			indaba zuria baxua	13
			Frijol beltza	1
	<i>Vicia faba</i>	3	Baba handia	19
			baba ertaina	1
<i>Pisum sativum</i>	1	baba txikia	10	
		Tokiko ilarra	15	
		<i>Medicago sativa</i>	1	Alfalfa
Solanazeoak	<i>Capsicum annum</i>	8	piperra cuernocabra	20
			piperra italiarra	12
			lbarrako piperra	6
			piperra morrona/lodia/erretzekoa	80
			pikillo piperra	12
			pipermína txikia	4
			pipermína tokikoa	6
			piperra txorizeroa	125
	<i>Lycopersicum esculentum</i>	12	aretxabaletako mozkorra/arrosa	2
			Tomatea	4
			Tomate nanoa	4
			Tomatea entrena	1
			entsalada Tomatea	87
			Eskegitzeko Tomate	5
			Limonero Tomatea	6
			Tomate morea	5
			pikoluze/puntaluze Tomatea	41
			pera Tomate	13
	rizado Tomatea	3		
tres cantos Tomatea	1			
Tomate zapala	12			
<i>Solanum melogena</i>	1	Tokiko berenjena	3	
Kenopodiazeoak	<i>Spinacea oleracea</i>	1	Tokiko espinaka	3
	<i>Beta vulgaris L.forma rubra</i>	2	Erremolatxa gorria	2
			Bazka erremolatxa	2
<i>Beta vulgaris L.forma cycla</i>	1	Tokiko zerba	59	

Konposatuak	<i>Lactuca sativa</i>	9	Tokiko letxuga	16
			Letxuga gorria	11
			Neguko letxuga	7
			Udaberriko letxuga	4
			Haritz hostodun letxuga	1
			Reina de mayo letxuga	2
			Letxuga kizkurra	9
			Udako letxuga	4
			Letxuga leuna	1
			Tokiko eskarola	3
Kruziferoak	<i>Cichorium enduvia L.</i>	1	Tokiko endibia	1
	<i>Cichorium intybus L.</i>	1	Tokiko alkatxofa	5
Kruziferoak	<i>Brassica oleracea</i>	3	Tokiko txikoria	3
			Aza corazon de buey	1
			Neguko/Holanda aza	30
			Udaberri/udako/nafar aza	2
			Arbi beltza	1
Kruziferoak	<i>Brassica rapa L. Var rapa L.</i>	4	Arbi zuria	4
			Bazka arbia	9
			Bazka arbi frantsesa	1
			Tokiko perrexila	22
Umbelíferoak	<i>Petroselinum hortense Hoffman</i>	1	Tokiko txiribia	1
	<i>Pastinaca sativa</i>	1	Tokiko porrua	49
Liliazeoak	<i>Allium ampeloprasum var porrum</i>	3	Porru berdea	12
			Porru horia	5
			Kipula gorria	68
	<i>Allium cepa</i>	4	Kipula horia	3
			Kipula zuria	38
			Zallako Kipula gorria	4
	<i>Allium fistulosum</i>	1	Kipulina bonbilla	3
Gramineoak	<i>Zea mays</i>	6	Arto horia	4
			Arto gozoa	1
			Palomitak egiteko artoa	1
			Artatxikia	8
			Txakin artoa	7
			Irina egiteko artoa	16

Badaude espezie eta barietate batzuk, bereziki eskualde batean edo bitan soilik aurkitu direnak. 34.taulan, eskualde batean soilik aurkitu diren espezie eta barietateak agertzen dira.

34.taula: Eskualde bakar batean soilik agertu diren espezie eta barietateak.

Espeziea	Barietatea	Aurkitu den eskualdea
<i>Cucurbita maxima</i> <i>Dúchense</i>	Kalabaza potimarrón	Bilbo Handia
<i>Phaseolus vulgaris</i> <i>volúbilis</i>	Ama Birjina indaba	Enkarterriak
	<i>Leoiko indaba</i>	Montaña Alavesa
	<i>Genevilla indaba</i>	Montaña Alavesa
	<i>Bidania beltza leka</i>	Markina-Ondárroa
<i>Phaseolus</i> <i>coccineus</i>	<i>Errioxako leka</i>	Markina-Ondárroa
<i>Phaseolus</i> <i>coccineus</i>	Frijol beltza	Enkarterriak
<i>Medicago sativa</i>	Frantses belarra	Gernika-Bermeo
<i>Vicia faba</i>	Baba ertaina	Bilbo -Handia
<i>Lycopersicum</i> <i>esculentum</i>	<i>Tres cantos Tomatea</i>	Markina-Ondárroa
	<i>Entrena Tomatea</i>	Markina-Ondárroa
	<i>Aretxabaletako mozkorra/</i> <i>arrosa tomatea</i>	Debagoiena
<i>Lactuca sativa</i>	<i>reina de mayo Letxuuga</i>	Durungaldea
	<i>Letxuga leuna</i>	Arratia-Nerbioi
<i>Cichorium intybus</i>	<i>Tokiko endibia</i>	Araba Mendialdea
<i>Brassica oleeacea</i>	<i>corazón de buey aza</i>	Markina -Ondarroa
<i>Brassica rapa</i> L. <i>Var rapa</i> L.	<i>Arbi beltza</i>	Deba Behera
<i>Brassica rapa</i> L. <i>Var rapa</i> L.	<i>Bazka arbi frantsesa</i>	Gernika-Bermeo
<i>Pastinaca sativa</i>	Tokiko txiribia	Plentzia-Mungia
<i>Zea Mays</i>	<i>Arto gozoa</i>	Markina-Ondarroa
<i>Zea Mays</i>	<i>Palomitak egiteko artoa</i>	Markina-Ondarroa

Hurrengo taulan, (35.taula), elkarrengandik urrun dauden bi eskualdetan aurkitu diren barietateak agertzen dira.

35.taula: Elkarrengandik urrun dauden eskualde bitan agertu diren barietateak.

Espeziea	Barietatea	Aurkitu den eskualdea
<i>Phaseolus vulgaris volúbilis</i>	<u>Indaba marroia</u>	<u>Enkarterriak</u> <u>Gernika-Bermeo</u>
<i>Phaseolus vulgaris nanus</i>	<u>Arroz indaba</u>	<u>Plentzia-Mungia</u> <u>Arabako Mendialdea</u>
<i>Lycopersicum esculentum</i>	<u>Tomate kizkurra</u>	Gorbeialdea -Zuia Markina-Ondarroa
<i>Lycopersicum esculentum</i>	Tomate nanoa	Enkarterriak <u>Gorbeialdea</u>
<i>Allium cepa</i>	Kipula horia	Gernika-Bermeo Debagoiena

Etan bukatzeko, 36.taula, hurbil dauden bi eskualdetan aurkiyu diren espezie eta barietateak agertzen dira.

36.taula: Elkarrengandik hurbil dauden eskualde bitan aurkitu diren espezie eta barietateak.

Espeziea	Barietatea	Aurkitutako eskualdea
<i>Cichorium enduvia</i>	Tokiko eskarola	Plentzia-Mungia Bilbo Handia
<i>Cichorium intybus</i>	Tokiko txikoria	Plentzia-Mungia Bilbo Handia
<i>Allium fistulosum</i>	Kipulina bonbilla	Plentzia-Mungia Arratia-Nerbioi

Eskualde batean edo bitan aurkitu diren barietateak izatea honako arrazoi hauek lirateke:

- o Barietate hori ingurune, lurzoru eta klima konkretu batera moldatua egotea eta beste ingurune batean arrakastarik ez izatea.
- o Eskualde horretako ohiturei eta usadioei lotuta egotea.
- o Hurbil edo urrun dauden bi eskualdetan agertzen direnean, elkartruke bidez lortutako barietateak direla esan daiteke.

Eskualde guztietan 50-60 urte baino gehiagoko erabilpena jarraitua zuten barietateak topatu dira. Eskualde batzuetan, 100 urte inguruko barietateak ere aurkitu dira: Durangaldean (kalabazin berdea, porrusalda kalabaza, piper lodia, piper txorizeroa, entsalada tomatea, puntaluze tomatea, tokiko zerba, nafar aza, Holanda aza, porru berdea, kipula gorria, kipula zuria eta kipulina) eta Gernika-Bermeon (Nabarnizko arbi zuria), esaterako.

7. EBALUAZIOA

Laginketa edo prospekzioan bildu diren datuek edo informazioak, Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen nekazaritzako baliagai genetikoaren egoera marrazten digute. Datu hauen tratamendua, bi norabidetan bideratu izan da; alde batetik, tokiko barietateak mantentzen dituzten eta barietate hauen iraupena bermatzen duten pertsonen buruzko informazioa aztertu da, eta bestetik, aurkitutako material genetikoaren ere hartu da kontuan.

7.1. Tokiko barietateak gordetzen dituzten baserritarrak

Landaretza eta fauna basatiarekin gertatzen den ez bezala, nekazaritzako baliagaiak, gizakien partehartzea behar dute: nekazari profesionalak izan nahiz barri kontsumorako baratze txikia daukaten baserritarrak izan. Barietate baten iraupena, neurri handi batean baserritar hauen eta barietate hauek landatzen diren baratzeen geroaren menpe dago. Nekazaritzako dibertsitatearen iraupena arriskuan jartzen duten faktoreak eta mantentzeko faktoreak ezagutu nahi badira, kontserbatze lana egiten duten nekazariak ezagutzea interesgarria litzateke. Populazio hau ez dator bat, lehen mailako sektorearekin; sektorean merkaturako produktore gehienek tokiko barietateak ez dituztelako erabiltzen, baserri batzuetan, nahiz eta nekazaritza jarduera utzi, baratzea egiten jarraitzen baitute eta azkenik, badaude nekazariak izan ez eta baratze zaletasuna dutelarik, tokiko barietateak erabiltzen hasi direnak.

Ikerketa lan honen 6. atalean aurkeztutako datuek tokiko barietateak kontserbatzen dituzten baserritar edo nekazari gehienak, 60 urtetik gorakoak direla agertzen du (elkarrizketatutako guztien %80a osatzen dute). Populazio nekazariaren zahartzea ezaguna da. 1999an egindako nekazaritzako erroldak adierazten zuen nekazaritzako ustiaketen % 54,2tan nagusiak 60 urtetik gorakoak zirela. Hortaz, nekazaritza biodibertsitatea berez zahartuta dagoen lehen sektorearen nekazari zaharrenen eskuetan dagoela ondoriozta daiteke.

Inkestaren atal batean, nekazariak edo baserritarrak baratza uztean norbaitek jarraitzeko aukera aztertzen zen. Azterketak datu argi bezain kezkarriak azaltzen ditu; jarraipena izango ez zuten baratzeak %81a osatzen dute.

Ekoizpen sistemari dagokionez, elkarrizketatu diren nekazari edo baserritarren artean, etxerako baratzea egiten dutenak eta azoketan saltzeko baratzea daukatenak aurkitu dira. Lehenengoak, kopuru handiagoa osatzen dute; elkarrizketatutako nekazari guztien %77a. aurrean aipatu dugun legez, datu hau, arretaz hartu behar dugu. Etxerako egiten dutenak, bi taldetan sailka daitezke.

- Lehenengo azpitalde honetan abeltzainak ez direnak sartuko ziren. Orokorrean, baratzea txikia dute, baserri inguruan eta ekoizpena ere baxua da. Hauen artean, nekazari batzuk, badituzte negutegi txikiak ere, neguan ere barazkiak hazteko edo hazitegiak prestatzen dituztenean, hauek babesteko. Bere baratzeetan, kalabaza barietateak, indabak eta leka barietateak, tomate eta piper barietateak, tokiko zerba, tokiko porrua, kipula gorria eta zuria eta neguko aza da ohikoena.

- Beste azpitaldea, aldi berean baratzezain eta abeltzain diren pertsonak osatzen dutena da. Baratzeak, giza kontsumorako izateaz gain, animalien kontsumorako laboreak ereiten dira. Kasu hauetan, bazka erremolatxa, bazka arbia, bazka kalabaza eta arto espezieak erabiltzen dira. Ekoizpen eta hedapen handiagoko soroak izaten dira, baserriaren inguruetan. Kasu hau, batez ere, Arratia- Nerbioi eta Goierri eskualdeetan behatu da.

Salmentarako baratzea egiten dutenak, ordea, baratze handiagoa daukate eta gutxi batzuek negutegiak ere badituzte. Espezie batzuetan, batez ere tomateak, lekak eta porruen kasuan, barietate komertzialak erabiltzen dituzte. Baratze hauek, espezieei dagokienean dibertsitate handiagoa ohi dute, etxerako baratzea egiten dutenak baino, erosleei produktu gehiago eskaini behar baitiete. Baina, beraiek ekoiztu eta eskaintzen dituzten tokiko barietateak gutxi dira. Azoketan saltzen duten nekazari profesionalen artean, %33ak tokiko barietate bat baino gehiago erabiltzen dituzte.

Azken datu hauek, biodibertsitatearen kontserbazioan, barazkiak edo produktuak saltzen ez dituzten ustiaketa txikiak daukaten garrantzia adierazten dute. Ustiaketa hauek, tokiko barietateak lantzen dituzten arren, ezin dituzte nekazaritzarako ingurumen dirulaguntzak jaso. Foru Aginduetan jasotzen diren laguntza hauek, laboreen azalera minimo batzuk ezartzen dituzte, baserritar hauek dituztenekin konparatuta handiegia.

Kultibo estentsiboetatik propio diren 4 espezieetako barietateak aurkitu ditugu: artoa, bazka-arbia, bazka-kalabaza eta bazka-erremolatxa. Hala ere, barietate hauek hektarea erdia baino txikiagoko soroetan azaldu zaizkigu, ia baratze espezieentzat bideratzen diren azalerak. Beraz, ez du merezi analisi berezia egitea.

Tokiko barietateez aritzean eta beraien jatorria eta antzinasuna aztertzean, elkarrizketatuen % 85ak etxeko haziak erabiltzen ditu eta belaunaldiz belaunaldi igaro diren haziak dira. Bestetik, elkarrizketatutako baserritar guztien artetik %15ak barietateak elkartrukearen bidez lortu dituzte eta % 2ak oso aspaldian erositako haziak erabiltzen dituzte. Bi nekazarik baieztatu dutenaren arabera, baserrian 100 urte inguru daramatzaten barietateak erabiltzen dituzte. Denbora tarte hau, barietate komertzial gutxi batzuek lortu duten "errekorra" da.

Etxeko barietateetatik eratorritako hazien portzentaia altuak elkarriketatutako pertsonen baratzeez jarraipenik ez izateak sortzen duen kezka areagotzen du. Baratzeeetako %81ek ez badu jarraipenik eta, indarrean den legearen arabera, bertako haziak ezin badira oparitu ez saldu erregistratuta ez egoteagatik, elkarriketatutako pertsonen %81ek darabiltzan barietateak galtzeko arrisku bizian egon daitezke.

Gorago adierazi dugun bezala, pertsonen %15ek elkartrukearen bitartez lortzen ditu haziak. Nekazarien esanetan, elkartrukeak, barietatea hobetzen du, bai bere ezaugarriei dagokionean eta bai ekoizgarritasunari dagokionean. Nola edo hala, beste baldintza batzuetan haztea barruko gene aniztasuna emendatzeko baliagarria da. Hogeita lau nekazariren esanetan, haien tokiko barietateen kontserbazioari atxikituta dagoen praktika bat da.

Hala ere, elkartrukatzeko ohitura hauek, barietateen komertzializazioa arautzen duen legediaren kontra dagoen usadioa da. Hazi eta mintegiko landareei dagokion, Martxoaren 30eko 11/1971 legeak, eta bere ondoriozko beste araudiek eta halaber, elkartrukea debekatu zuten. Eta gaur egun indarrean dagoen Uztailaren 26ko 30/2006ko Legeak ez du debekua erabat ezabatu. Nahiz eta horrela izan, elkartrukatzeko ohitura hau mantendu da urteetan zehar. Modu berean, lege honen ez betetzeak, barietateak gaur egun arte izatea ahalbidetu du.

Beste behin ere, badirudi hazien elkartrukearen eta landako hazien iraupenaren arteko loturak oso estuak direla. Horregatik, debeku horren lege erreforma presazkoa da. Kontuan hartu behar da elkarriketatutako pertsonen artean inork ez duela legez kanpokotzat jotzen hazien elkartrukea, areago, jarduera zilegitzat jotzen du.

Barietateen antzinatasunari dagokionez, etxeko tokiko barietateek 100 urte bitarteko antzinatasuna dute eta zaharrenak Durangaldea eta Gernika-Bermeo eskualdeetan daude, Bizkaian. Elkartrukearen bitartez lortutako haziek 5 eta 20 urte bitarteko antzinatasuna dute eta, azkenik, hazi komertzial "naturalizatuek" 20 eta 40 urte bitartean dute.

Elkarriketatuen artean, nekazaritza ekologikoa egiten dutenak eta legezko zigilua dutenak, %6a osatzen dute. EAEn errolatuta dauden nekazaritza ekologiko ustiapenak, %1 baino gutxiago osatzen dute. Guk elkarriketatutakoaren artean kopurua handiagoa da ordea, beraz, tokiko barietateak erabiltzen dituzten nekazari ekologikoen kopurua nahiko altua da. Nekazaritza ekologikoaren eta tokiko barietateen arteko erlazioa agerian geratzen da. Garcia Lopezek azaltzen du eta iragarpen iluna zabaltzen du. Industria agrokimikoan oinarrituta dauden ereduaren garapenak, tokiko barietateak edo barietate tradizionalak desagerraraziko ditu denbora igaro ahala, baina horrekin batera, historia, identitate kulturala eta patrimonioa ere galduko dira eta ondorengo belaunaldiek ez dute izango ezagutzeko betarik. (Garcia Lopez, F.,1997)

Baina hala ere, nekazaritza ekologikoan, ez dago argi bariedade hauek kontserbazioa. Hazi ekologikoak erabiltzearen kontrolak, bariedadeen erabilera murriztu ahal baitute. Arazoa da, nekazari hauen haziak, zertifikazio baten menpe daudela, kasu batzuetan ezik (espezie horretan hazi ekologikoak ez daudenean edo egokiak ez direnean) eta baserrian bertan lortutako haziak erabiltzera edo agiri ekologikoa duten haziak erostera behartuta daude. Tokiko bariedade gehienak erregistratuta ez daudenez, ezin daitezke saldu eta nekazari hauek ezin dituzte eskuratu. Une honetan ziurtagiri ekologikoa duten hazia erosteko beharra zabaltzen den heinean, tokiko bariedadeak erabiltzearen aukerak geroz eta txikiagoak dira. Azken horren inguruan hausnarketa egin beharko litzateke lehenbailehen, nekazaritzan biodibertsitatea gordetzeko interesa dutenen aldetik.

7.2-Bertako bariedadeen erabileraren hedapena

Aurrerago aipatu dugun legez, herrialde bakoitzean eskualdeka egin da laginketa. Behin lehen entitate/pertsonekin kontaktua eginda, eskualde gehienetan nahiko erraza izan da haziak gordetzen dituzten pertsonak aurkitzea (ikus 6. atala). Hala ere, Bizkaiko Arratia-Ibaizabalen eta Durangaldean eta Arabako Gorbeialdean tokiko bariedadeak dituzten nekazariei eginiko elkarrizketak urri xamarra izan dira, eta honakoak izan daitezke horren arrazoiak.

Joera hori oso kezagarria da, ingurune bakoitzari hobekien egokitutako bariedadei eta pertsona bakar batek bere hazia kudeatzeak dakarren independentziari uko egitea delako.

- Eskualde batzuetan oso nekazari gutxiak gordetzen dituzte haziak; gero eta ohitura handiagoa dute landareak edo haziak erosteko. Joera hori, batez ere, Gipuzkoako Urola-Kosta, Deba Behea, Deba Garaia eta Goierrin eta Arabako Gorbeialdean aurkitu da, baina beste eskualdetan ere, erosteko joera hori areagotzen doa. Batez ere hiru arrazoiengatik ari da hori gertatzen:
 - o Mintegien kopurua handitu delako.
 - o Azoketan landareak saltzen dituzten saltzaileen kopurua ere emendatu egin delako.
 - o Haziak urtero-urtero biltzeak lan handia dakarrenez, batzuk ez dute astirik ez gogorik izaten haziak gordetzeko. Jada jubilatuta daudenek lan asko dela diote.
- Arratia-Nerbioien, Gorbeialdean eta Goierrin abeltzaintzak eta artzaintzak nekazaritzak baino garrantzi handiago aizan dute. Beraz, baratzea oso baserri gutxitan lantzen denez, zailago gertatzen da haziak aurkitzea. Edonola ere, aurreko epigrafean aipatzen den joerak eskualde horietan ere eragina izan duela esan behar da, beste eskualde batzuetan baino indar handiagoz, beharbada.
- Gorbeialdeko eskualdean neguak oso gogorak izan ohi dira. Hazitegian erein behar diren espezieen erretzea baldintza meteorologikoen menpe dagoenez, klima hotzeko tokietan, haziak zailtasunak izaten ditu behar bezala erretzeko. Ondorioz, bariedade horiek baztertu egiten dituzte, edo

horien ordez landareak erosi, eta temperatura hotzak iragan ostean landatzen dituzte.

- Arabako Errioxan, mahastiek lurraldean duten indarra dela eta, baratzeak txikiagoak eta urriagoak direla pentsatzera eraman gaitzake, barietate gutxiak. Dena dela, ingurunearen klima lehorrak eta baratzeak ureztatze ur ugariaren faltak ere badute horrengan eraginik. Baratze gehienak txikiak dira, norbere kontsumora zuzenduak.

Eskualde bakoitzean aurkitu diren barietateen egoera aztertzeko, on Jose Migel Barandiaranek zuzendu zuen *Alimentación doméstica en Vasconia* liburuan aipatzen diren barietateekin egin da konparaketa. Lan etnografiko horrek, gerra aurretik eta ostean baserrietan zeuden elikagaien balorazio bat egiten du

36. taula. *Alimentación doméstica en Vasconia*

Tomatea
Zerba
Txikoria
Orburua
Alberjina
Aza
Kuia
Kuiatxo
Luzokerra
Eskarola
Ziazerba
Uraza

Liburuak aipatzen dituen barietate gehienak prospekzioan aurkitu dira, eta emaitzak honako taulan agertzen dira (37. taula).

37.taula. J.M. Barandiaranen *Alimentación domestica en Vasconia* liburuaren arabera, euskal baserrietan zeuden jakien balorazioa familiaren, espezie zientifikoaren eta konbentzionalaren eta barietatearen arabera sailkatuta

Familiak	Espeziea	Espeziea	Barietatea
Lekadunak	<i>Phaseolus vulgaris</i>	Indabak edo lekak	Babarrun gorria Babarrun beltza Indaba pintoa/Tolosakoa/zuri-beltza
		Lekak edo kapartzarrak edo potxak	Ama Birjinaren indabak Karrantzan
	<i>Vicia faba</i>	Babak	Baba beltzak Baba zabalak Babatxoak Baba handiak
Solanazeoak	<i>Capsicum annuum</i>	Piperra	Piper gorria Piper berdea Piper lehorra Piper txorizeroa pipermorra kristal piperra pikillo piperra Pipermina

Lekadunen barietateak aipatzen ditu, indabak edo lekak (*Phaseolus vulgaris*), kasu, eta horien artean daude babarrun gorria, babarrun beltza eta indaba pintoa edo Tolosakoa edo zuri-beltza. Leka edo potxen (*Phaseolus vulgaris*) kasuan, Ama Birjinaren indabak aurkitu ziren. Babei (*Vicia faba*) dagokienez, baba beltzak, baba zabalak, babatxoak eta baba handiak aurkitu ziren. Eta, azkenik, piperren (*Capsicum annuum*) artean, piper gorriak, berdeak, lehorrak, txorizeroak, pipermorroak, kristal piperrak, pikillo piperrak eta piperminak aurkitu ziren.

EAEn egindako prospekzioan aurkitu dira aipatutako barietate guztiak, kristal motako piperra izan ezik. Litekeena da barietate hori galdu izana edota prospekzioa egin ez den baserriren batean baino ez geratzea.

Bestalde, J.M. Barandiaranek *Alimentación domestica en Vasconia* liburuan aipatzen ez dituen barietate asko aurkitu ditugu prospekzioan. Halako kasuak dira erremolatxa, tomate, zerba, orburu, txikoria, alberjina, aza, kuia eta kuiatxo, luzoker, eskarola, uraza eta ziazerba hainbaten barietateak.

Zaragozako INIaren Germoplasma bankuan dauden espezieak kontutan hartuz gero, aurkitutako barietate gehienak agertzen dira, EAEko hainbat herritako barietateen hazien laginak baitaude(38. taula)

38. taula: Zaragozako Germoplasma Bankuan (INIA) dauden barietateak, EAEko laginketa egin zutenean aurkitutakoak, familiaren, espeziearen eta aurkitutako lekuaren arabera sailkatuak.

Familia	Espezia	Barietatea	Eskualdea	Udalerrria	Lurraldea	
Kukurbitazeoak	<i>Cucumis sativus</i>	Luzokerra	Arabako Haranak	Gobiaran Zanbrana	Araba	
	<i>Cucúrbita pepo</i>	Kuiatxo berdea	Arabako Haranak	Gobiaran		
		Kuiatxo zuria	Arabako Haranak	Gobiaran		
	<i>Cucúrbita máxima Dúchense</i>	Porrusalda kuia/Kuia luzea	Arabako Haranak	Gobiaran		
			Arabako Kantaurialdea	Laudio		
		Kuia marroia	Urola Kosta	Antzuola	Gipuzkoa	
		Bazka kuia	Enkarterriak	Zalla	Bizkaia	
			Gernika-Bermeo	Kortezubi		
			Arratia-Nerbioi	Orozko Zeanuri		
	Zirikilote kuia	Bilboaldea	Zaratamo			
Lekadunak	<i>Phaseolus vulgaris volúbilis</i>	Indaba pintoa	Deba Behea	Deba	Gipuzkoa	
		Tolosako babarrun beltza	Donostialdea	Oiartzun		
			Tolosaldea	Tolosa, Villabona		
Solanazeoak	<i>Capsicum annuum</i>	Pipermorroa edo erretzeko piperra	Urola Kosta	Azkoitia	Gipuzkoa	
			Donostialdea	Oiartzun		
			Plentzia-Mungia	Mungia	Bizkaia	
			Durangaldea	Zaldibar Berriz		
			Gernika-Bermeo	Gautegiz-Arteaga,		
			Markina-Ondarroa	Berriatua		
		Pipermina	Donostialdea	Oiartzun	Gipuzkoa	
Solanazeoak	<i>Capsicum annuum</i>	Piper txorizeroa	Enkarterriak	Karrantza, Zalla,	Bizkaia	
			Gernika-Bermeo	Kortezubi Gautegiz-Arteaga		
			Durangaldea	Berriz		
			Bilboaldea	Zamudio		
	<i>Lycopersicon esculentum Mill</i>	Aretxabaletako mozkorra Tomatea	Urola Kosta	Antzuola	Gipuzkoa	
			Tomate nanoa	Enkarterriak	Zalla	Bizkaia
			Tomate laua	Gernika-Bermeo	Gautegiz-Arteaga	
				Bilboaldea	Zamudio	
			Limonero tomatea	Gernika-Bermeo	Gautegiz-Arteaga	
			Lila tomatea	Bilboaldea	Zaratamo	
			Tomate udarekara	Bilboaldea	Zaratamo	
	Tomate puntaluzea	Markina-Ondarroa	Berriatua			
	<i>Solanum melogena</i>	Tokiko alberjinia	Arabako Haranak	Gobiaran	Araba	
Kenpodiazeoak	<i>Beta vulgaris L. Forma cycla</i>	Tokiko zerba	Arabako Haranak	Gobiaran	Bizkaia	
			Enkarterriak	Karrantza		
			Bilboaldea	Zamudio		
	<i>Beta vulgaris L. forma rubra</i>	Erremolatxa gorria Bazka erremolatxa	Enkarterriak	Karrantza	Araba	
Arabako Haranak			Gobiaran			

Familia	Espezia	Barietatea	Eskualdea	Udalerrria	Lurraldea	
Kruziferoak	<i>Brassica oleracea</i>	Idi bihotz aza	Urola Kosta	Azkoitia	Gipuzkoa	
		Aza kizkurra	Durangaldea	Abadiño	Bizkaia	
		Hoandako aza	Gernika-Bermeo	Gernika Forua		
		Arbia	Gernika-Bermeo	Nabarniz		
		Bazka arbia	Gernika-Bermeo	Gautegiz Arteaga		
Konposatuak	<i>Lactuca sativa</i>	Tokiko uraza	Arabako Lautada	Aguraina	Araba	
			Arabako Mendialdea	Kanpezu		
		Neguko uraza	Durangaldea	Mallabia	Bizkaia	
	<i>Cichorium enduvia</i>	Eskarola	Bilboaldea	Zamudio		
Unbeliferoak	<i>Petroselinum Hortense Hoffman</i>	Perrexila	Arabako Haranak	Zambrana Gobiaran	Araba	
			Arabako Kantaurialdea	Laudio		
			Arabako Lautada	Agurain		
			Arabako Mendialdea	Kanpezu		
			Deba Garaia	Elgoibar Oñati	Gipuzkoa	
			Enkarterriak	Karrantza Zalla	Bizkaia	
			Gernika-Bermeo	Arratzu		
			Bilboaldea	Zamudio		
Lilizeoak	<i>Allium ampeloprasu m var porrum</i>	Tokiko porrua	Arabako Haranak	Zambrana	Araba	
			Arabako Kantaurialdea	Laudio		
			Durangaldea	Berriz	Bizkaia	
			Markina-Ondarroa	Markina		
			Bilboaldea	Zaratamo		
			Porru horia	Urola Kosta	Azpeitia	Gipuzkoa
			Porru berdea	Arabako Mendialdea	Kanpezu	Araba
			<i>Allium cepa</i>	Tipula gorria	Arabako Haranak	Gobiaran
	Arabako Kantaurialdea	Laudio				
	Tolosaldea	Ibarra			Gipuzkoa	
	Deba Garaia	Oñati				
	Plentzia-Mungia	Mungia			Bizkaia	
	Enkarterriak	Zalla				
	Durangaldea	Berriz, Abadiño, Mallabia				
	Gernika-Bermeo	Gautegiz-Arteaga				
	Tipula horia	Tolosaldea	Ibarra,	Gipuzkoa		
Urola Kosta		Azpeitia				
Deba Behea		Elgoibar				
Tipula zuria		Deba Garaia	Oñati			

Izenei bagagozkio Zaragozako bankuan jasota dauden barietate guztiak aurkitu ditugu prospekzio lan honetan, lurralde osoa ez ikertu arren. Tentuz hartu behar dira datu hauek; INIAko teknikariek oso eremu zehatzetan jaso zituzten haziak alde batetik, eta beste aldetik duela 15-25 urteetako datuk dira. Beraz, ez du ezer esaten 80-90 urteetatik atzera galdu omen diren barietateez, baina pozgarria da azkeneko 15 urteetan galdutako barietateen berri ez izatea.

Bestetik, Carravedok eta Ruiz de Galarretak argitaratutako *Variedades autóctonas de tomate del País Vasco* ikerlanean, EAeko tomate barietateen karakterizazioa egin zuten. Horretarako, 94 tomate barietate erabili zituzten. Laginketan jaso diren tomate barietateekin erkatuz, denak aipatzen dira lan horretan.

Aurkitutako barietateen artean kasu bitxia da txiribia. Aurreko lanetan ez zen aipatzen bere erabilpena Euskal Herrian eta espezie horretako hazia ere ez da lehenago jaso gure lurraldean. Txiribia, Gauthier L. F.-k idatzitako "Hortalizas, variedades tradicionales en peligro de extinción" artikuluan, *Chirivia tudesca* barietatea galtzear dagoela dio, kontsumitzaileentzako probetxuzkoa ez delako. Plentzia-Mungian aurkitutako txiribia (*Pastinaca sativa*) desagertzear dagoen barietatea ezik baratz espeziea dela esan dezakegu.


Hiru lurralde historikoetako eskualdeak kontuan hartuz gero, eskualde askotan ugariak diren beste barietate batzuk ere badira. Hurrengo taulan (39. taula) eta irudian (4. irudia) barietate erabilienak agertzen dira, lurraldeka.

4. irudian ikusi dezakegun bezala, Tolosako babarruna eta piper txorizeroa dira barietate hedatuenak. Kukurbitazeoen artean, porrusalda kuia zabalduago dago Gipuzkoan eta Bizkaian Araban baino. Lekadunen taldean, babarrun gorria eta Tolosakoa dira iparraldeko bi lurraldeetan (Bizkaian eta Gipuzkoan), baina Tolosakoak zabalpen handiagoa du Gipuzkoan. Hala ere, gernikako indabak pisu handia du Bizkaian eta oso gutxi dago Gipuzkoan eta Araban. Lekadunekin amaitzeko, indaba igokariak antzeko hedadura du hiru lurraldeetan.

Solanazeoen taldean, pipermorroa eta piper txorizeroa edo Gernikakoa hedatuago daude Bizkaian. Antzekoa gertatzen da entsaladarako tomatearen eta pikoluze tomatearen kasuetan. Aitzitik, tomate udarekara oso zabaldua dago Araban, baina ez gainerako lurraldeetan. Tokiko zerba, kenopodiazeoen familiako barietatea, zabalduago dago Gipuzkoan eta Bizkaian. Azkenik, antzekoa gertatzen da tipula gorriarekin; iparraldeko lurraldeetan zabalduago dago, Bizkaian eta Gipuzkoan, alegia. (38. taula eta 4. irudia)

39. taula: 3 lurraldeetan gehien hedatutako bariatateak, familiaren eta espeziearen arabera sailkatuta.

Familia	Espezia	Bariatatea	Kopuruak lurraldeka		
			Bizkaia	Gipuzkoa	Araba
Kukurbitazeoak	<i>Cucúrbita máxima</i> <i>Dúchesne</i>	Porrusalda kuia	24	14	21
Lekadunak	<i>Phaseolus vulgaris volubilis</i>	Babarrun gorria	26	22	11
		Tolosako babarruna	38	64	10
		Gernikako indaba	35	6	5
		Indaba igokaria	27	28	24
Solanaezeoak	<i>Capsicum annuum</i>	Pipermorro/piper lodi/erretzekoa	38	26	16
		Piper txorizeroa/Gernikakoa	64	47	14
	<i>Lycopersicum esculentum</i>	Entsaladako tomatea	44	28	15
		Pikoluze/puntaluze tomatea	23	5	0
		Tomate udarekara	0	0	13
Kenopodiazeoak	<i>Beta vulgaris L. forma cycla</i>	Tokiko zerba	23	25	11
Liliazeoak	<i>Allium cepa</i>	Tipula gorria	34	32	2



4. irudia: Bariatate hedatueneren errepresentazioa lurraldeka.

Bariatate hauek eskualdean batean baino gehiagotan aurkitu dira. Beraz, ingurune, lur edo klima ezberdinetara egokitzea lortu duten bariatateak dira. Halaber, kontsumitzaileen ikuspuntutik azal daiteke beren hedadura: bariatate preziatuenak eta kontsumituenak dira, eta euskal sukaldaritzarekin lotura zuzena duten produktuak izan ohi dira. Prospekzio lanean sakonduz gero, ondorio argiagoak atera zitezkeen.

Jaso diren hainbat bariedade, urte askoan erabili dira eta horregatik esan dezakegu bariedadeak direla. Bariedade komertzialak diren ala ez egiaztatzeko karakterizazio estudioa eta azterketa genetikoak egitea beharrezkoa litzateke. (40. taula) Bariedade horiek bariedade komertzialen zerrendan daude; kasu batzuetan tokiko materialetatik datoz (Tolosako babarruna) eta beste batzuetan neurri txikiagoan.

Aurkitutako bariedadeen artean, lekadunetatik hasita, indaba beltza (*Phaseolus coccineus*) eta indabak (*Phaseolus vulgaris*) aurkitu genituen Enkarterrietan; Tolosako babarruna Bizkaiko eta Gipuzkoako eskualde guztietan eta Arabako Kantaurialdean eta Mendialdean; Gernikako indaba Bizkaiko eskualde guztietan, Gipuzkoako Urola Kostan, Deba Garaian eta Behean, eta Arabako Gorbeialdean eta Kantaurialdean; azkenik, Arabako indaba pintoa aurkitu dugu Arabako eskualde guztietan eta Bizkaiko Plentzia-Mungia eskualdean. (40. taula)

Solanazeoei dagokienez, piperren artean piper lodia edo erretzekoa, pikillo piperra eta Italiako piperra. Pipermorroa 3 herrialdeetan aurkitu genuen, Arabako Errioxan izan ezik. Pikillo piperrak ez du pipermorroak beste hedadura; Durangaldea, Plentzia-Mungia eta Arratia-Nerbioi eskualdeetan aurkitu da Bizkaian, Donostialdean Gipuzkoan eta Arabako Kantaurialdean, Mendialdean eta Errioxan. Italiako piperra, aldiz, Bizkaiko Markina-Ondarroa eskualdean, Gipuzkoako Urola Kostan eta Arabako Mendialdean eta Errioxan aurkitu da. Tomateen artean, komertzialtzat jotzen diren hiru tomate bariedade aurkitu ditugu; entrena tomatea eta *tres cantos* tomatea Bizkaiko Markina-Ondarroan aurkitu dira, eta eskegitzeko tomatea, aldiz, Bizkaiko Plentzia-Mungia eskualdean, Gipuzkoako Deba Behean eta Arabako Haranetan aurkitu dugu. (40. taula)

Konposatuen familiako bi uraza bariedade aurkitu dira; *maiatzeko erregina* uraza Bizkaiko Durangaldean, eta haritz hosto uraza Bizkaiko Markina-Ondarroa eskualdean. Kruziferoen atalean, komertzialtzat jotzen ditugun 2 arbi bariedade eta aza bariedade bat aurkitu dira; idi bihotz aza Bizkaiko Markina-Ondarroa eskualdean aurkitu dugu. Arbi beltza Gipuzkoako Deba Behean aurkitu da eta arbi zuria, aldiz Bizkaiko Plentzia-Mungia, Gernika-Bermeo eta Bilboaldea eskualdeetan. (40. taula)

Azkenik, unbeliferoen familian, tokiko txiribia aurkitu dugu Bizkaiko Plentzia-Mungia eskualdean eta liliazeoen artean, Zallako tipula gorria aurkitu dugu Bizkaiko Enkarterrietan, Gernika Bermeon eta Plentzia-Mungian eta Arabako Kantaurialdean. (40. taula)

Ikus daitekeenez, kontuan hartzen diren zenbait bariedade ia EAE osoan zabaldua daude, piper morroaren eta Tolosako babarrunaren kasuan bezala. Bariedade komertzialak izateak, bertako bariedadeak zabaltzen lagun dezake.

40. taula: prospekzioan aurkitutako bertako barietateak, normalean jatorri komertzialeko barietateak izaten dira. Familiaren, espeziearen, izen komertzialaren, eskualdearen eta lurraldearen arabera banatzen dira.

Familia	Espezia	Barietatea	Izen komertziala	Eskualdea	Lurralde
Lekadunak	<i>Phaseolus coccineus</i>	Indaba beltza	Indaba beltza	Enkarterriak	Bizkaia
	<i>Phaseolus vulgaris volúbilis</i>	Tolosako babarrunak	Tolosako babarrunak	Eskualde guztiak	Bizkaia
				Eskualde guztiak	Gipuzkoa
		Gernikako indabak	Gernikako indabak/ gernikarrak	Ar. Kantaurialdea Ar. Mendialdea	Araba
				Eskualde guztiak	Bizkaia
				Urola Kosta Deba Garaia Deba Behea	Gipuzkoa
	<i>Phaseolus vulgaris nanas</i>	Arabako indaba pintoa	Arabako indaba pintoa	Plentzia-Mungia	Bizkaia
	Eskualde guztiak	Araba			
Solanaizeoak	<i>Lycopersicum esculentum</i>	<i>Tres cantos</i> tomatea	<i>Tres cantos</i> tomateak	Markina-Ondarroa	Bizkaia
		<i>Entrena</i> tomatea	<i>Entrena</i> tomatea	Markina-Ondarroa	Bizkaia
		Eskegitzeko tomatea	Eskegitzeko tomatea (eskegitzeko japoniarra)	Deba Behea	Gipuzkoa
				Plentzia-Mungia	Bizkaia
				Arabako Haranak	Araba
	<i>Capsicum annuum</i>	Piper morroa/ piper lodia/ erretzekoa	Pipermorroa kontserban (2, 3 eta 4)	Eskualde guztiak	Bizkaia
				Eskualde guztiak	Gipuzkoa
				Eskualde guztiak Arabako Errioxa izan ezik	Araba
		Pikillo piperra	pikillo piperra	Durangaldea Plentzia-Mungia Arratia-Nerbioi	Bizkaia
				Donostialdea	Gipuzkoa
				Ar. Kantaurialdea Ar. Mendialdea Arabako Errioxa	Araba
				Markina-Ondarroa	Bizkaia
				Urola Kosta	Gipuzkoa
	Italiako piperra	Italiako piper gozoa (TMR)	Ar. Mendialdea Arabako Errioxa	Araba	
Konposatuak	<i>Lactuca sativa</i>	<i>Maiatzeko erregina</i> uraza	<i>Maiatzeko erregina</i> uraza	Durangaldea	Bizkaia
		Haritz hosto uraza	Haritz hosto uraza	Markina-Ondarroa	Bizkaia
Kruziferoak	<i>Brassica oleracea</i>	Idi bihotz aza	Idi bihotz aza	Markina-Ondarroa	Bizkaia
	<i>Brassica napus</i>	Arbi beltza	Arbi beltz azukretua	Deba Behea	Gipuzkoa
		Arbi zuria	Nabo blanco globo cuello violeta	Gernika-Bermeo Plentzia-Mungia Bilboaldea	Bizkaia
Deba Garaia	Gipuzkoa				
Unbeliferoak	<i>Pastinaca sativa</i>	Tokiko txiribia	Guerneseyko txiribi erdi luzea	Plentzia-Mungia	Bizkaia
Liliazeoak	<i>Allium cepa</i>	Zallako tipula gorria	Zallako tipula gorria/morea	Gernika-Bermeo Plentzia-Mungia Enkarterriak	Bizkaia
				Ar. Kantaurialdea	Araba

7.3. Azoketan saltzen diren tokiko barietateak

Kontsumitzaileen eskuetara hel daitezkeen tokiko barietateak zein diren aztertzeke asmoz, eskualdeetan astero egiten diren azoka edo merkatuak bisitatu genituen: lau Bizkaian eta beste lau Gipuzkoan. Datu hau interesgarritzat hartzen da eskaera komertzialak tokiko barietatearen kontserbazioaren mesedegarri delako, batez ere etxerako baratze gehien jarraikortasun falta kontutan hartuz.

Merkatu handietan nahiz txikietan Euskal Herriko produktuak diren eta sormarka duten barietateak egon ohi dira salgai: Gernikako indaba, Tolosako indaba eta Arabako pikarta indaba barietateak, Ibarako pipermina eta Gernikako piperra.

Astero egiten diren azoka txikietan, produktu horiez gain, beste tokiko barietateak ere aurki ditzakegu. Hori sarriago ikusi ohi da Bizkaiko azoketan, Gipuzkoakoetan baino; Gipuzkoako azoketan, saltzen diren tokiko barietateak lekadunetara mugatzen dira.

7.3.1. Bizkaiko azoketako tokiko barietateak

Kukurbitazeoei dagokienez, gehien saltzen diren produktuak kalabaza porrusalda eta kalabazin berdea dira (41. taula).

Lekadunen artean, gehien saltzen direnak indaba gorrien familiakoak dira, batez ere Gernikako indaba (indaba tolosarra, nekazariarentzat indaba pintoa), indaba beltza edo Tolosako indaba, eta indaba gorria. Indaba zuriak ez du horiek bezain harrera onik. Gainera, azken urteotan, salduenak diren lekadun horien prezioek izandako gorakadak direla eta, azoketan saltzen duten nekazariak ez dute barietate horiek mantentzeko arazorik.

Bestalde, gainerako lekadunek (leka, ilar eta babak, adibidez) ez dute horren harrera onik nekazari saltzaileen artean. Leken kasuan, nekazariak barietate komertzialak nahiago dituzte, tokiko barietatea baino, leka handiagoa delako eta, leka lehortzean, alea indaba zuri gisa aprobeitza dezaketelako.

Solanazeoei dagokienez, tomatea eta piperra arrakasta duten espezieak dira, bertoko barietateak batez ere. Tomateen kasuan, entsalada tomatea eta puntaluze tomatea oso harrera ona izaten du, eta azoka gehienetan tokiko barietateak erabiltzen dituzte. Baina azken urteotan, beste barietateak zabaldu dira. Eusko Label kalitate markarako aukeratutako Jak barietatea, Monfaveteko (Frantzia) INRAn jatorria duena edo Raf barietate hibridoa horren adibideak dira. Bi arrazoiengatik batez ere gertatu da: alde batetik, nekazariaren ekoizpena bikoiztu egiten duelako eta beste barietateek baino kontserbazio denbora gehiago duelako, eta bestetik, erosleak tamaina handia baina homogeneoa duen produktua nahiago omen duelako. Barietate desberdinen promozio komertziala ikertzeak merezi du, populazio kontsumitzailearen "eskaeran" nola eragin duen aztertzeke.

Piperren kasuan, piper txorizeroak, berdetan zein lehortzerakoan jaten den piperra, piper lodia edo erretzeko piperra deritzonak arrakasta dute salmentetan. Pipermina, Ibarrako piperra, eta kristal piperra bezalako barietateak ere badute arrakasta, baina ez besteek bezainbestekoa.

Kenopodiazeoei dagokienez, tokiko zerba barietatea mantentzen dute oraindik ere, erosleen artean arrakasta baitauka.

Konposatuei dagokienez, batez ere urazen kasuan, hainbat barietate komertzial azaldu da azken urteotan. Tokiko uraza gisa ezagutzen denak zapore garratza du, berde ilun kolorekoa da eta hosto zimurrak ditu. Erosleak nahiago izaten ditu zapore gozoagoa duten barietateak. Beraz, urazen kasuan, tokiko barietateak ez du arrakastarik, eta nekazariak ez dute mantentzen.

Kruziferoen kasuan, neguko aza nekazari askok mantentzen duen barietatea da. Euskal Herrian, neguan aza jateko ohitura dago, baratzeetan neguan dagoen barazki bakarra baita —porruarekin batera—. Badaude beste barietate batzuk ere (udaberriko aza, nafar aza...), baina ez dute horren harrera onik erosleen artean, eta, beraz, nekazariak ez dituzte mantentzen.

Liliazeoei dagokienez, tipula gorria eta porrua dira gehien mantentzen diren barietateak. Tipula gorria, ganbaretan gorde eta negu guztian kontserbatu ahal delako; eta porrua, neguan jaten den barazki garrantzitsuena delako.

Gramineoei dagokienez, artoa da gordetzen den espeziea, batez ere irina egiteko barietatea; txakin artoa, irina egiteko aproposa delako. Irina, taloak eta ogia egiteko erabiltzen zen lehen, baina orain ez du hain harrera onik eta gutxi batzuek baino ez dute erosten.

7.3.2. Gipuzkoako azoketako tokiko barietateak

Gipuzkoan bisitatu diren azoketan, ordea, ikuspegia beste era batekoa da. Lekadunen eta liliazeoen familiako barietateak izan ezik, beste familietan barietate guztiak komertzialak dira. Nekazariak azken urteotan haziak edo landareak erosteko ohitura hartu dutela aitortzen dute. Lekadunen kasuan, Tolosako indaba edo indaba beltza mantentzen dute, haren prezio gorakaden ondorioz, baina gainerako indaba barietateak oso gutxi gordetzen eta mantentzen dituzte. Bestelako lekadunak ereiteko (lekak, babak eta ilarrak, esaterako) hazi komertzialak erabiltzen dituzte. Liliazeoen kasuan, tokiko porrua eta tipula gorria mantentzen dituzte, baina oso nekazari gutxi (41. taula).

41. taula: Bizkaiko eta Gipuzkoako asteroko merkatuetan komertzializatzen diren tokiko barietateak

Familia	Espeziea	Bizkaiko merkatuak	Gipuzkoako merkatuak
Kukurbitazeoak	<i>Cucurbita maxima Duchense</i>	Porrusalda kalabaza	
	<i>Cucurbita pepo</i>	Kalabaza berdea	
Lekadunak	<i>Phaseolus vulgaris volubilis</i>	Gernikako indabak	Tolosako indaba
		Indaba zuria	
Solanazeoak	<i>Lycopersicum esculentum Mill</i>	Entsalada tomatea	
		Puntaluze tomatea	
	<i>Capsicum annum</i>	Piper txorizeroa	
Piper lodia edo erretzekoa			
Kenopodiazeoak	<i>Beta vulgaris L. forma cycla</i>	Tokiko zerba	
Kruziferoak	<i>Brassica oleracea</i>	Neguko aza	
Liliazeoak	<i>Allium ampeloprasum var porrum</i>	Tokiko porrua	Tokiko porrua
	<i>Allium cepa</i>	Tipula gorria	Tipula gorria

7.3.3. Tokiko barietateen presentziaren bilakaera

Oro har, azoketan saltzen dutenak hiru faktoreren menpe daude:

- Ekoizpen handia
- Astia nahikoa izatea
- Eroslearen harrera eta gustuak

Gainera, askotan hazia ateratzeko garaia ekoizpen handia dutenean eta baratzeko lana ere emendatu egiten denean izaten da. Beraz, barietateen haziak lortzea eta horiek hazitegietan ereitea lan handia denez, praktikoagoa egiten zaie haziak edo landareak erostea.

Gainera, erosleak, garaiz kanpoko barazkiak eskatzen ditu askotan (neguan tomateak izatea, adibidez). Bertako barietateak ez dira horretarako oso egokiak, negutegian ez baldin badaude behintzat, eta kasu horitan ere, barietate komertzialak egokiagoak dira. Beraz, nekazariak barietate komertzialetara jotzera behartuta daude eroslearen nahia aseta utzi nahi badute behintzat.

Testuinguru honetan, ingurune, gizarte eta ekonomiaren abantailak eta denboraldiko baratzeko produktuei eta tokian eskuratutakoei buruzko heziketa arautuaren barruko eta kanpoko esfortzuak areagotzeko beharra nabaria da.

7.4. Galzorian dauden barietateen zerrenda

Jasotako informazio guztiaren arabera, galzorian kontsideratzen diren tokiko barietateei buruzko ondorengo balorazio hau eskaintzen da. Barietateak sailkatzeko erabilitako metodologia 4.5. atalean azaltzen da.

Jasotako datuekin familia eta espezieen arabera tokiko barietateak islatuak agertzen diren taula osatu da, non barietatearen errekonozimendu legala, tokiko barietateak lantzen dituzten EAE guztiko nekazari kopurua, aurkitutako barietateak kokatzen diren eskualde kopurua, barietate hauen hazia aurkitzeko zailtasuna, nekazariaren adina, ustiapenaren jarraikortasuna (belaunaldi txandaketa) eta barietate hauen merkatuetako salmenta agertzen diren. Aipatutako aldagai hauei eginiko balorazioarekin, berorien arriskuaren arabera sailkatu dira; AG= arriskurik gabe, A= arriskua, AL= arrisku larria eta MA= muturreko arriskua. (42. taula)

Arriskurik gabeko (AG) barietateen artean, bat bakarrik aurki daiteke, Tolosako indaba (barietate guztien %1). Arrisku (A) mailan sailkatzen diren barietateen artean, 2 aurki daitezke (barietate guztien %2); piper morroa/lodia/erretzekoa eta piper txorizeroa. Arrisku larri moduan sailkatu diren barietateen artean 25 aurki daitezke (barietate guztien % 26) eta amaitzeko, muturreko arriskudunak (MA) ,gainontzeko guztiak, guztira 68 (barietate guztien %71). (43. taula; 5. irudia)

Arrisku larrian aurkitzen diren kukurbitazeo barietatearen artean, luzokerra, porrusalda kalabaza, poti kalabaza marroia eta kalabazin berdea aurkitzen dira. Lekadunen artean, 9 barietate daude arrisku larrian: Arabako pinta indaba, Gernikako indaba, indaba gorria, indaba zuria, zurtoinmotzeko indaba zuria, leka igokaria, baba ertaina, baba handia eta tokiko ilarra. Cuernocabra piperra, italiar piperra, pikillo piperra, entsalada tomatea eta puntaluze tomatea dira maila honetan dauden solanazeoen familiako barietateak. Kenopodiazeoen artean, zerba aurkitzen da soilik eta konposatuen artean, *reina de mayo* uraza eta *hoja de roble* uraza. Amaitzeko, liliazeoen artean arrisku larrian aurkitzen direnak tipula gorria eta tokiko porrua dira eta gramineoen artean, arto goxoa eta irin artoa.

Muturreko arriskuan dauden barietateek, barietate guztien % 71 osatzen dute. Lehenik, kukurbitazeoak aipatuko ditugu, maila honetan 3 barietate dituztenak: bazka kalabaza, cabelle de angel kalabaza eta kalabazin zuri- horixka. Lekadunen artean, Amabirjinaren indaba, Leongo indaba, Genevillako indaba, arroz indaba, indaba asturiarra, fabada indaba, indaba asturiar erraldoia, zurtoinmotzeko indaba gorria, indaba gorri iluna, Guriezoko indaba, indaba marroia, zurtoinmotzeko Tolosako indaba, zurtoinmotzeko leka, Bidaniako leka beltza, Errioxako leka, frijol beltza eta alpapa daude. 14 dira solanazeoen mailan sailkatutako barietateak; Ibarrako piperra, tokiko pipermina, pipermin txikia, Aretxabaletako mozkorra tomatea, tomate nanoa, entrena tomatea, eskegitzeko tomatea, limonero tomatea, lila tomatea, tres cantos tomatea, tomate laua, puntaluze tomatea eta tokiko berenjena.

Kenopodiazeoen barruan 3 dira muturreko arriskuan dauden barietateak: tokiko espinaka, mahaiko erremolatxa eta bazka erremolatxa. Konposatuen artean, tokiko uraza, uraza gorria, neguko uraza, udaberriko uraza, uraza kizkurra, udako uraza, uraza lisoa, tokiko eskarola, tokiko endibia, tokiko alkatxofa eta txikoria dira muturreko arriskuan dauden barietateak. Kruziferoen artean, 7 barietate aurkitzen dira muturreko arriskuan: *corazón de buey* aza, neguko/Holandako aza, udako/ udaberriko/Nafarroako aza eta arbi beltza, zuria, bazaka eta bazaka frantses arbia. Unbeliferoen artean, tokiko perrexila eta tokiko txiribia dira muturreko arriskuan dauden barietateak eta liliazeoen artean, porru berdea, porru horia, tipula horia, Zallako tipula gorria, tipula zuria eta bonbilla tipulina. Amaitzeko, gramineoen artean, arto horia, krispeta artoa, txakin artoa eta arto txikia aurkitzen dira.

Lehen aipatu dugun moduan, guztira 3 dira arriskuan eta arriskutik kanpo dauden barietateak; arriskuan daudenak piper morroa eta piper txorizeroa dira, eta arriskurik gabekoa ordea, Tolosako indaba da.

42. taula: Galzorian dauden barietateak, familia, eta espezieen arabera sailkatuta. (MA= Muturreko Arriskua/ AG=Arriskurik Gabe/AL= Arrisku Larria/A=Arriskua)

Familia	Espeziea	Barietatea	Lege babesa	Nekazariaren kopurua	Eskualdeen kopurua	Hazia gordetzeko zailtasuna	Nekazariaren adina	Ustiaketaren jarraipena	Salmenta azoketan	Orotar a	Kalifikazioa
Kukurbitazeoak	<i>Cucumis sativus</i>	Tokiko pepinoa	0	1	3	6	1	2	0	13	AL
	<i>Cucúrbita maxima Duchesne</i>	Bazka kalabaza	0	0	1	6	1	1	0	9	MA
		Cabello de angel kalabaza	0	0	1	6	1	2	0	10	MA
		Porrusalda kalabaza	0	5	3	6	3	1	4	18	AL
		Optimaron kalabaza	0	0	1	6	1	4	0	12	AL
	<i>Cucúrbita pepo</i>	Kalabazin berdea	5	3	3	6	1	1	4	19	AL
		Kalabazin horia	0	0	1	6	1	0	0	8	MA
Lekadunak	<i>Phaseolus vulgaris volúbilis</i>	Amabirginaren indabak	0	0	1	6	1	0	0	8	MA
		Leongo indaba	0	0	1	6	1	0	0	8	MA
		Genevillako indaba	0	0	1	6	1	0	0	8	MA
	<i>Phaseolus vulgaris nanus</i>	Arabako pinta	5	3	3	6	1	1	0	19	AL
		Arroz indaba	0	0	1	6	1	0	0	8	MA
	<i>Phaseolus vulgaris volúbilis</i>	Indaba asturiarra	0	0	1	6	1	0	0	8	MA
		Fabada indaba	0	0	1	6	1	0	0	8	MA
		Gernikako indaba	5	4	3	6	1	1	4	20	AL
		Indaba Asturias erraldoia	0	0	1	6	1	0	0	8	MA
		Indaba gorria	0	5	5	6	3	1	0	20	AL
	<i>phaseolus vulgaris nanas</i>	Indaba gorria baxua	0	0	1	6	1	0	0	8	MA

Familia	Espezia	Barietatea	Lege babesa	Nekazarien kopurua	Eskualdeen kopurua	Hazia gordetzeko zailtasuna	Nekazariaren adina	Ustiake-taren jarraipena	Salmenta azoketan	Orotar a	Kalifikazioa
Lekadunak	<i>Phaseolus vulgaris volúbilis</i>	Indaba gorri iluna	0	0	1	6	1	2	0	10	MA
		Guriezoko indaba	0	0	1	6	1	0	0	8	MA
		Indaba marroia	0	0	1	6	1	0	0	8	MA
		Tolosako indaba	5	10	5	6	6	1	4	33	AG
	<i>Phaseolus vulgaris nanus</i>	Tolosako indaba baxua	0	0	1	6	1	0	4	8	MA
	<i>Phaseolus vulgaris volúbilis</i>	Indaba zuria	0	3	3	6	1	1	4	14	AL
	<i>Phaseolus vulgaris nanus</i>	Indaba zuria baxua	0	1	3	6	1	2	4	13	AL
	<i>Phaseolus vulgaris volúbilis</i>	Leka igokaria	0	7	5	6	3	1	0	22	A
	<i>Phaseolus vulgaris nanus</i>	Leka baxua	0	0	1	6	1	3	0	11	MA
	<i>Phaseolus vulgaris volúbilis</i>	Leka beltza Bidania	0	0	1	6	1	0	0	8	MA
		Errioxako leka	0	0	1	6	1	0	0	8	MA
	<i>Phaseolus coccineus</i>	Frijol beltza	0	0	1	6	1	0	0	8	MA
	<i>Vicia faba</i>	Baba ertaina	0	0	1	6	1	4	0	12	AL
		Baba handia	0	1	3	6	1	1	0	12	AL
		Baba txikia	0	1	1	6	1	1	0	10	MA
	<i>Pisum sativum</i>	Bertako ilarra	0	1	3	6	1	2	0	13	AL
	<i>Medicago sativa</i>	Alpapa	0	0	1	6	1	0	0	8	MA

Familia	Espezia	Barietatea	Lege babesa	Nekazarien kopurua	Eskualdeen kopurua	Hazia gordetzeko zailtasuna	Nekazariaren adina	Ustiake-taren jarraipena	Salmenta azoketan	Orotar a	Kalifikazioa
Solanazeoak	<i>Capsicum annuum</i>	Cuernocabra piperra	0	2	3	6	1	1	0	13	AL
		Ibarrako piperra	0	1	1	6	1	1	0	10	MA
		Piper italiarra	5	0	1	6	1	3	0	16	AL
		Piper lodia edo erretzekoa	5	8	5	6	3	1	4	28	P
		Pikillo piperra	5	1	3	6	1	1	0	17	AL
		Tokiko pipermina	0	0	1	6	1	0	0	8	MA
		Pipermin txikia	0	0	1	6	1	0	0	8	MA
		Piper txorizeroa	5	10	5	6	3	1	4	30	A
	<i>Lycopersicum esculentum</i>	Aretxabaletako mozkorra tomatea	0	0	1	6	1	3	0	11	MA
		Tomate nanoa	0	0	1	6	1	0	0	8	MA
		Entrena tomatea	1	0	1	6	1	0	0	9	MA
		Ensalada tomatea	1	8	5	6	3	1	4	24	A
		Eskegiteko tomatea	1	0	1	6	1	0	0	9	MA
		Limonero tomatea	0	0	1	6	1	0	0	8	MA
		Lila tomatea	0	0	1	6	1	2	0	10	MA
		Puntaluze tomate	0	1	1	6	1	1	0	10	MA
		Pikoluze tomatea	0	4	3	6	1	1	4	15	AL
		Tomate kizkurra	0	0	1	6	1	0	0	8	MA
		Tres cantos tomatea	1	0	1	6	1	0	0	9	MA
	Tomate laua	0	1	1	6	1	1	0	10	MA	
<i>Solanum melogena</i>	Tokiko berenjena	0	0	1	6	1	0	0	8	MA	

Familia	Espezia	Barietatea	Lege babesa	Nekazarien kopurua	Eskualdeen kopurua	Hazia gordetzeko zailtasuna	Nekazariaren adina	Ustiake-taren jarraipena	Salmenta azoketan	Orotar a	Kalifikazioa
Kenopodiaceoak	<i>Spinacea oleracea</i>	Tokiko espinaka	0	0	1	3	1	0	0	5	MA
	<i>Beta vulgaris L.forma rubra</i>	Mahaiko erremolatxa	0	0	1	3	1	3	0	8	MA
		Bazka erremolatxa	0	0	1	3	1	0	0	5	MA
	<i>Beta vulgaris L.forma cycla</i>	Zerba	0	5	5	3	3	1	4	17	AL
Konposatuak	<i>Lactuca sativa</i>	Tokiko zerba	0	1	1	6	1	1	0	10	MA
		Uraza gorria	0	1	1	6	1	2	0	11	MA
		Neguko uraza	0	0	1	6	1	2	0	10	MA
		Udaberriko uraza	0	0	1	6	1	3	0	11	MA
		<i>Reina de mayo</i> uraza	5	0	1	6	1	0	0	13	AL
		<i>Hoja de roble</i> uraza	5	0	1	6	1	0	0	13	AL
		Uraza kizkurra	0	0	1	6	1	1	0	9	MA
		Udako uraza	0	0	1	6	1	2	0	10	MA
		Uraza lisoa	0	0	1	6	1	0	0	8	MA
	<i>Cichorium enduvia L.</i>	Tokiko eskarola	0	0	1	3	1	2	0	7	MA
	<i>Cichorium intybus</i>	Tokiko endibia	0	0	1	3	1	0	0	5	MA
	<i>Cynara scolymus</i>	Tokiko alkatxofa	0	0	1	6	1	2	0	10	MA
	<i>Cichorium intybus</i>	Txikoria	0	0	1	3	1	3	0	8	MA

Familia	Espeziea	Barietatea	Lege babesa	Nekazarien kopurua	Eskualdeen kopurua	Hazia gordetzeko zailtasuna	Nekazariaren adina	Ustiake-taren jarraipena	Salmenta azoketan	Orotar a	Kalifikazioa
Kruziferoak	<i>Brassica oleracea</i>	Corazón de buey aza	0	0	1	0	1	0	0	2	MA
		Holanda aza (neguko aza)	0	3	3	0	1	1	4	8	MA
		Nafar aza (udako udaberriko aza)	0	0	1	0	1	0	0	0	2
	<i>Brassica napus</i>	Arbi beltza	5	0	1	0	1	4	0	11	MA
		Arbi zuria	5	0	1	0	1	3	0	10	MA
		Bazaka arbia	0	0	3	0	1	1	0	5	MA
		Bazka arbi frantsesa	0	0	1	0	1	0	0	0	2
Unbeliferoak	<i>Petroselinum hortense hoffman</i>	Tokiko perrexila	0	2	3	0	1	1	0	7	MA
	<i>Pastinaca sativa</i>	Tokiko txiribia	5	0	1	0	1	4	0	11	MA
Lilizeoak	<i>Allium ampeloprasum var porrum</i>	Tokiko porrua	0	4	3	3	1	1	4	12	AL
		Porru berdea	0	1	3	3	1	1	0	9	MA
		Porru horia	0	0	1	3	1	0	0	5	MA
	<i>Allium cepa</i>	Tipula gorria	0	6	3	3	1	1	4	14	AL
		Tipula horia	0	0	1	3	3	2	0	9	MA
		Zallako tipula gorria	5	0	1	3	1	0	0	10	MA
		Tipula zuria	0	0	1	3	1	2	0	7	MA
<i>Allium fistulosum</i>	Bonbilla tipulina	0	3	3	3	1	1	0	11	MA	


Familia	Espeziea	Barietatea	Lege babesa	Nekazarien kopurua	Eskualdeen kopurua	Hazia gordetzeko zailtasuna	Nekazariaren adina	Ustiake-taren jarraipena	Salmenta azoketan	Orotar a	Kalifikazioa
Gramineoak	<i>Zea mays</i>	Arto horia	0	0	1	3	1	0	0	5	MA
		Arto goxoa	0	0	1	6	1	4	0	12	AL
		Krispeta artoa	0	0	1	6	1	0	0	8	MA
		Txakin artoa	0	0	1	6	1	0	0	8	MA
		Arta txikia	0	0	1	6	1	1	0	9	MA
		Irin artoa	0	1	3	6	1	2	0	13	AL

43. taula: Barietateak arriskuaren arabera sailkatuak

Familia	Espeziea	Arrisku larrian	Muturreko arriskuan	Arriskurik gabe	Arriskuan
Kukurbitazeoak	<i>Cucumis sativus</i>	Tokiko pepinoa			
	<i>Cucúrbita maxima Duchesne</i>	Porrusalda kalabaza	Bazka kalabaza		
		Potimaron kalabaza	Cabello de angel kalabaza		
	<i>Cucúrbita pepo</i>	Kalabazin berdea	Kalabazin horia		
Lekadunak	<i>Phaseolus vulgaris volúbilis</i>	Arabako pinta Gernikako indaba Indaba gorria Indaba zuria Leka igokaria	Amabirginaren indabak Leongo indaba Genevillako indaba Indaba asturiarra Fabada indaba Indaba asturiar erraldoia Indaba gorri iluna Guriezoko indaba Indaba marroia Leka beltza Bidania Errioxako leka	Tolosako indaba	
	<i>Phaseolus vulgaris nanus</i>	Indaba zuria baxua	Leka baxua Arroz indaba Indaba gorria baxua Tolosako indaba baxua		
	<i>Vicia faba</i>	Baba ertaina Baba handia	Baba txikia		
	<i>Pisum sativum</i>	Bertako ilarra			
	<i>Medicago sativa</i>		Alpalpa		
	<i>Phaseolus coccineus</i>		Frijol beltza		

Familia	Espezia	Arrisku larrian	Muturreko arriskuan	Arriskurik gabe	Arriskuan
Solanazeoak	<i>Capsicum annuum</i>	Cuernocabra piperra Piper italiarra Pikillo piperra	Ibarrako piperra Tokiko pipermina Pipermin txikia		Piper lodia edo erretzekoa Piper txorizeroa
	<i>Lycopersicum esculentum</i>	Ensalada tomatea Pikoluze tomatea	Aretxabaletako mozkorra tomatea Tomate nanoa Entrena tomatea Eskegiteko tomatea Limonero tomatea Lila tomatea Tomate kizkurra Tres cantos tomatea Puntaluze tomate Tomate laua		
	<i>Solanum melogena</i>		Tokiko berenjena		
Kenopodiazeoak	<i>Beta vulgaris L. forma cycla</i>	Tokiko zerba	Tokiko espinaka		
	<i>Beta vulgaris L. forma rubra</i>		Mahaiko erremolatxa Bazka erremolatxa		
Konposatuak	<i>Lactuca sativa</i>	Reina de mayo uraza Hoja de roble uraza	Tokiko uraza Uraza gorria Neguko uraza Udaberriko uraza Uraza kizkurra Udako uraza Uraza lisoa		
	<i>Cichorium enduvia</i>		Tokiko eskarola		
	<i>Cichorium intybus</i>		Tokiko endibia		
	<i>Cynara scolymus</i>		Tokiko alkatxofa		
	<i>Cichorium intybus</i>		Txikoria		

Familia	Espezia	Arrisku larrian	Muturreko arriskuan	Arriskurik gabe	Arriskuan
Kruziferoak	<i>Brassica oleracea</i>		Corazón de buey aza Holanda aza (neguko aza) Nafar aza (udako udaberriko aza)		
	<i>Brassica napus</i>		Arbi beltza Arbi zuria Bazaka arbia Bazka arbi frantsesa		
Unbeliferoak	<i>Petroselinum hortense</i> Hoffman		Tokiko perrexila		
	<i>Pastinaca sativa</i>		Tokiko txiribia		
Liliazeoak	<i>Allium ampeloprasum var porrum</i>	Tokiko porrua	Porru berdea Porru horia		
	<i>Allium cepa</i>	Tipula gorria	Tipula horia		
			Zallako tipula gorria		
			Tipula zuria		
	<i>Allium fistulosum</i>		Bonbilla tipulina		
Gramineoak	<i>Zea mays</i>	Arto goxoa	Arto horia		
		Irin artoa	Krispeta artoa		
			Txakin artoa		
			Arta txikia		



5. irudia: Galtzeko zorian dauden barietateen proportzioak;
AL=Arrisku larria (GP), MA= Muturreko arriskua(EP), A=Arriskua (P) eta AG= Arriskurik gabe (SP).

8. ONDORIOAK

8.1. EEako tokiko barietateak

- Baratzetan oraindik barietate ugari kontserbatzen da: ikerketa honen barruan elkarrizketatutako pertsonen baratzetan tokikotzat dauzkagun 28 espeziaren 96 barietate aurki daitezke.
- Elkarrizketetan aurkitutako barietateen % 84, tokiko barietateak dira (baserrian bertan landutakoak), 100 urtetik gorako antzinasuna dutenak. Halaber, %15ek 5etik 60 urterako antzinasunarekin elkartrukatutako tokiko barietateen hazia osatzen du eta % 1 dira soilik erositako barietateak, 20tik 40 urtera bitarteko antzinasunarekin.
- Elkarrizketatutakoen artean, % 94k nekazaritza konbentzionala egiten du eta % 6ko gutxiengoak nekazaritza ekologikoa.
- Belaunaldi txandaketari dagokionez, elkarrizketatutakoen %81ek ziurtatu zuen ez zuela txandaketa posiblerik baratzak lantzeko beraiek ez daudenerako. Hori dela eta, lantzen dituen barietateak ezinbestez galduko dira.
- Halaber, elkarrizketatutakoen %77k autokontsumorako nekazaritza egiten du. Nahiz eta antzina, elkarrizketatutakoen gehiengoak lurra saltzeko lantzen zuen, gaur egun soilik autokontsumorako lantzen du.
- Hazia gordetzearen eta elkartrukatzearen ohiturak zuzenki erlazionatuta daude agrobiodibertsitatearen mantenu eta gehikuntzarekin, barietate baten irautea eta eskualde desberdinen mailako egokitzea baimentzen baitu.
- Tokiko barietate erabilienak Tolosako indaba beltza, Gernikako indaba, piper txorizeroa, piper lodia edo erretzekoa, entsalada tomatea, puntaluze tomatea, tokiko zerba, tokiko porrua eta tipula gorria dira.

- Zenbait barietate interes berezikotzat hartzen dira:
 - o Soilik eskualde batean aurkitu direlako: potimaron kalabaza, Amabirjinaren indaba, Leongo indaba, Genevillako indaba, Bidaniako leka beltza, Errioxako leka, frijol beltza, alpapa, baba ertaina, tres cantos tomatea, entrena tomatea, Aretxabaletako moxkorra tomatea, *reina de mayo* uraza, uraza lisoa, tokiko endibia, *corazón de buey* aza, arbi beltza, txiribia, arto goxoa eta krispeta artoa.
 - o Espeziearen barietate bakarra osatzen dutelako, txiribiaren kasua adibidez (*Pastinaca sativa*). Funtsezko garrantzia du aurkitutako barietateen artean. Zenbait lanetan txiribia galdutzat jo da baratzeetan.
- Hemen egindako barietateen sailkapena landareen eta hazien ezaugarrietan oinarritu da. Sailkapen zehatzerako ezaugarri botanikoen eta analisi genetikoaren azterketa egin beharko litzateke. Ikerketa horiek egin ondoren, sailkatutako barietateak gehiago edo gutxiago izango dira agian.

8.2. Landa barietateetan eragin txarra duten faktoreak

Oraingo azterketak eta orain hamarkada batzuk edo gehiagotakoak alderatuz gero ez da barietateen galera handiegirik antzematen, faktore ezberdinek berriz etorkizun hurbilean barietate askok izango duten etorkizunagatik beldurra eragiten dute. Horrela bada, mantentze egoera baloratzeko ereduaren arabera, barietateen %72 muturreko arriskuan daude, %27 arrisku larrian daude, %2 arriskuan eta %1 arriskutik kanpo. Agente ezberdinen artean, egoera honetan eragiten duten prozesuen eta faktoreen artean ondokoak nabarmentzen dira:

- o Elkarrizketako pertsona gehienen adina eta haien baratzak ustiatzeko ondorengo belaunaldi falta.
- o Bertako barietateak erabiltzen dituzten nekazari kopurua, oso kopuru baxua baita.
- o Baratzerako, erosotasunagatik, landareak eta haziak erosteko joera (denbora eta esfortzua aurrezteko), hori bigarren joera batek are larriago bihurtzen du, landa barietateen eskuragarritasuna txikiagoa baita eta barietate erregistratuak gehiago baitira. Barietatea erregistratzeak, mantentzeko, zenbait alderditan lagun badezake ere, erregistratzen direnak ez dira landa barietateak izaten gehienetan.

- o Erregistratuta ez dauden barietateak elkartrukatzeko dagoen debeku gogorra dela eta, nekazarien lana oztopatzen da, barietate guztiak lortzeko lana banatu ohi duten nekazari taldeak ezin izaten baitira arrazionalizatu.
- o Erregistratu gabeko haziak eta landareak saltzeko debekuak produkzio ekimen txikiak egiteko edozein saiakera oztopatzen du, bai eta ugaritzea eta hazia edo landarea saltzea ere.
- o Azken bi gogoetak bereziki txarrak dira nekazaritza ekologikoarentzat, azken honek erosketa agiria eskatzen du, oro har bertako hazi edo landare barietateak izaten ez direnak, nahiz eta gaur egun, oraindik ere, haziaren produkzioari berari atea zabalik uzten dizkion.

8.3- Landa hazien erabileran baikorki eragiten duten faktoreak

- Mantentzen den landa barietateen hazien edo landareen salmenta eta trukaketa mantentzen diren praktikak izan ohi dira eta ez la elkartrukatzen, saltzen edo erosten duten pertsonen arteko zilegizkotasuna zalantzan jartzen. Askotan horiek ez dute debekua bera ezagutzen eta ezagutzean, harridura azaltzen dute. Mantentze, berreskuratze eta agro-genetikaren hobetze aldera pertsona askok ohitura horiei eskaintzen dieten zilegizkotasuna, oinarri ederra osatzen dute legearen aldaketak eskatzeko eta legeak nekazariei boterea itzultzeko, nekazariak haien haziak askatasunez gorde eta trukatzeko eskubidea izan dezaten.
- Nekazaritza ekologikoa lantzen duten pertsonen papera oinarrizkoa da bertako barietate horien desagerpena saihesteko nekazaritza ekologikoan ohikoan baino erabiliago baitira eta mantentzeko konpromiso handia baitago.
- Baratzeetan belaunaldi gazteak sartzen aritzea ere baikorki eragiten ari da landa barietateen erabileran, pertsona horietako batzuen artean gogo eta konpromiso handia baitago bertako hainbat barietateen etorkizunarekin.
- Landa barietateetatik eratorritako produktuak lortzeko eskaria dago oraindik, horrek oinarri sendoa ematen du barietate gehiagoko eta handiagoko produktuak eskatzeko.

9. PROPOSAMENAK NEKAZARITZAKO BIODIBERTSITATE GALTZEA EKIDITEKO

EAEko landa barietateen ezagupenean sakondu

- Landa barietateen egoera zehatza ezagutzeko, ikerketa lanekin jarraitzea beharrezkoa da, bi ardatzen etorkizunerako lanetan:
 - o Lan honetan aurkezten diren datuek baratze sektorearen bioaniztasunaren gaur egungo egoera erakusten dute. Hala ere, landa barietateen errealitatea ez da estatikoa, dinamikoa baizik eta ez da baratza barietateetara soilik mugatzen. Ondorioz, etorkizuneko prospekzioak eta helburuak lantzea egokia izango litzateke:
 - Landa produkzioko beste sektore batzuetan prospekzioa osatu, senda belarren, laboreen edo fruituen kasuan adibidez.
 - Azpisektore bakoitzeko prospekzioei aldirokotasun zehatza ezarri, 10 edo 20 urte artekoa izan liteke bertako barietate bakoitzaren joerak ulertzeko, programen arrakasta maila ezagutzeko edo beraien aldeko ekimenak martxan jartzeko eta jarduera zehatzak eta berehalakoak eskatzen dituztenak ezagutzeko. Helburu honi derrigorrezkoa da idazpuru zehatzak jartzea dagokien instituzio publikoen aurrekontuetan.
 - o Landa barietateak sailkatzeko landareen eta hazien ezaugarriak erabili dira. Hala ere, sailkapen zehatzagoa egin ahal izateko, barietateen ezaugarri agroekonomikoak eta genetikoak lantzea beharrezko izango litzateke. Horretarako, I+D ildo zehatza egon beharko litzateke dagokien instituzio publikoen aldeko aurrekontuetarako konpromisoekin.

Landa barietateen mantentze, berreskuratze eta zabaltze estrategiak.

- Gaur egun zenbait landa barietate oso pertsona gutxik mantentzen dituzte. Barietate horiek desager ez daitezen ondokoak lantzea beharrezko litzateke:
 - o Barietate hauen haziak jasoko direla ziurtatu, haren ugalketa eta banaketa mantentzea *in situ* izan dadin, hau da, landan. Helburu honi Euskadiko Hazien Sareak bezalako elkarteek egindako lana bultzatu behar da helburuaren interesen aldeko adostasunean eragina baitute. Estrategia honek gainerako proposamenek zehaztutako irizpideak bete beharko lituzke.
 - o Era berean, barietate horiek tarteka *ex situ*, hau da, germoplama bankuetan jaso, mantendu eta zabalduko direla ziurtatu behar da,

nahiz eta hori azken larrialdietarako berme bezala erabiliko den eta ez lehentasun bezala. INIA-Zaragozako eta Neiker-eko genetika bankuetan sartzea ebaluatu eta pentsatu, egin eta ziurtatu behar da. Edozein modutara ere, hazi horiek *in situ* zein baratzetan gordetzeko prest agertzen den jendeari haziak lortzea erraztu behar zaio, lortzeko bidea erraztu behar da, baina monopolizatuko edo komertzializatuko duten elkarte komertzialek eskuratzea saihesteko. Helburu hauek lortzeko Euskadiko Hazien sarearen eta Neiker-en artean dagoen akordioan sakondu beharko genuke, landa barietateak babestuko direla eta landetan lanean arituko direnen lana ziurtatzeko eta azken hauen hazien eskuragarritasuna bermatzeko, horren praktikotasunerako beharrezko diren aurrekontuak lortzeko nahikoa ziurtasun lortuz.

- Gaur egun indarrean dagoen legediak nekazaritzaren aniztasuna gordetzea oztokatzen duela jakinda, birmoldatzeko hainbat proposamen landu behar dira, landan lantzen diren barietateen alde batez ere. Proposamen horiek adostuak, aurkeztuak eta babestuak izan behar dira, nekazariak landa barietateak lantzeko ahal beste interes jaso ahal dezaten:

- o Legediak erabilera askea onartu behar du, landa barietateen hazien eta landareen trukea eta salmenta, erregistratu beharra izanik gabe. Hau berehala aldatzea beharrezkoa da. Hazien erabilera askea balitz landa barietateak mantentzea sortzen dituen arazo askok (ez guztiek) irtenbidea aurkituko lukete eta beste batzuen konponbidea asko erraztuko litzateke. Zentzu horretan, landa barietateen haziak edo landareak saltzen/oparitzen dituztenen edota erosten/jasotzen dituztenen eskubideak bermatzeko arauak ezartzea edo ez ezartzea eztabaidatzeko aukera izango litzateke (barietate komertzialen eskakizunen argumentu originala eta landa barietateen erabilera eragozteko aitzakia bezala balio izan duena). Horrela bada, ondokoak sartu behar diren ala ez aztertzea beharrezkoa da:

Pertsona fisiko edo juridiko batek landa barietate baten hazia edo landarea saltzeko mugak.

Tolerantziarik ez aipatu barietateen haziak edo landarea saltzean monopolioa izatea. Ez pertsona fisikorik ez juridikorik ezingo da barietate hauen eskubide eskusiboa eskatzen ari.

Barietateen haziak trukatzeko askatasun osoa, haien belaunaldia edozein izanik ere.

Kontratu pribatua izateko edo ez izateko egokitasuna hazien purutasuna edota osasun egoera ziurtatzeko. Purutasunaren kasuan, bertako barietateen ezegonkortasuna izan behar da kontuan, barietate horien haziak jaso behar dituen pertsonak jakin beharrekoak.

- o Horrekin batera nekazaritza ekologikoaren arauak aldatu behar dira sektore honetan ari diren nekazariak erregistratuta ez dauden

landa barietateetako haziak erabiltzeko aukera izan dezaten, truke bitartez zein salmenta bitartez lortu. Arau onargarri bakarra truke zein erosketa bidez lortutako hazia edo landarea produzitzean metodo ekologikoen erabilera bermatzea izango litzateke.

- Lehenetasunetako bat da EAEko nekazal inguruari ematen zaizkion dirulaguntzak aztertzea, laguntza agroambientalak adibidez, landan bertan bertako barietateak mantentzeko lanaren alde eraginkorra den zerbait egin dadin. Kontuan izateko alderdien artean agrobiodibertsitatearen ondasun balorea, landa haziak gordetzeko praktikan dauden gastu inplizituak eta produkzioarako edo kontsumorako egokitutako landa barietateen jasangarritasuna aipa genitzake adibidez. Hazien Sareak hasitako lana berriro hartzea egokia izango litzateke politikak eta laguntza osoagoak eta eraginkorragoak ezartzeko, Landa Garapenerako Planean edo horrelako programetan, Neurri agroambientaletan zehazki. Hala ere, aipatu dirulaguntzak, gertatuta ere etorkizunean landa barietateek lantzen dituztenek eskuragarritasun handiagoa izateari begira egon beharko lukete.
- Tokiko barietateak lantzen dituzten nekazarien sarea ezartzea eta indartzea egokia izango litzateke erabilera ekimenei zilegitasun eraginkorragoa eta handiagoa emateko, haziak eta landareak gorde eta elkartrukatzeko, praktika horiek legeztatuko dituen edozein erreformaren aurretik zein ondoren.
- Nekazariak barietate horiek erabiltzeko ekimenez gain, haiek ezagutzeko zabaltze politika baten alde egitea garrantzitsua da, herritar kontsumitzaileei zuzendutako informazio eta formazio lanen bidez. Programa horien ardatzak ondokoak izan beharko lirateke:
 - o Landa barietateak eskualde guztietan daudela ezagutaraztea
 - o Zein erabiltzailerentzat edo platerentzat diren interesgarri barietate horiek
 - o Landa barietateetatik deribatutako bertako produktu jasangarriak jaso daitezkeen garaietan (ekologikoa, tradizionala...) eta produktu zehatz baten kontsumoa barietate komertzialen menpe eta jasangarritasun gutxiagokoen dagoenean.
- Landa barietateak kanpo mehatxuetatik zein mehatxu berrietatik babesteko beharrezko diren neurriak onartu behar dira:
 - o Landa barietatean genetikoki moldatutako haziak izateari tolerantziarik ez
 - o Landa barietateetan genetikoki eraldatutako edozein Hazi, landare, landaketa eta uztak izan dezakeen kaltea merkaturatzen duen elkarte hornitzaileari ardura eskaera argia gehitu.
 - o Genetikoki eraldatutako barietateak erabiltzea debekatu landa barietateak erabiltzen diren gunetan, hazi horietatik eratorritako produktuen azken erabilera dena dela ere.

- o Privatizazioa eragotzi eta hortaz, monopolizazioa eragotzi, edozein landa barietateena eta edozein pertsona fisiko edo juridikoren aldetik datorrela ere.
- o Landa barietateen mantenurako beharrezko den nekazal lurra ziurtatu, kontuan hartzekoak izango dira hazien ezaugarriak, lurrari argi lotua dagoen produkzioa baitute oro har. Landa barietateak galtzea eragingo duen edozein proiektu, plan edo politika luzatu.

BIBLIOGRAFIA

Altieri, M. A.. Biodiversity and pest management in agroecosystems. Haworth Press, New York, 1994

Altieri, M.A. Agroecology: The Scientific Basis of Alternative Agriculture. Westview Press, Boulder, CO. 1987.

Altuna, J. eta beste, Diccionario euskaldunak de etnografía vasca. Ostoa argitaletxea. Lasarte-Oria, 1999.

Alvarez Rodríguez, A. eta Ruiz de Galarreta Gómez, J.I.,. Variedades locales de maíz de Gipuzkoa. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1994

Andow, D., Agroecosystem diversity and pest control. Interneten: <http://www.agroeco.org/doc/Bases_agroecologicas.htm>

Arribas, G. Estrategia per la prospecció etnobotànica de varietats antigues de plantes hortícoles. In Esporus. Centre de conservació de la biodiversitat cultivada en Catalunya. Interneten: <<http://www.esporus.org>>

Barandiaran, J. M. eta Manterota A., Alimentación domestica en Vasconia. Euskalerriko atlas etnografikoa Eusko Jaurlaritz, Etniker Euskalerrria, Gobierno de Navarra. Bilbao, 1994.

Brooke, RW. et al.,. Interacciones entre plantas superiores y dinámica de poblaciones y comunidades. 1998 *In Oikos*, 107. Interneten: <http://www.eeza.csic.es/eeza/g_funcional.aspx>

Carravedo, M. ; Pallares, J. eta Errea, P. Recuperación de especies frutícolas y hortícolas antiguas.

Carravedo, M. eta Ruiz de Galarreta Gomez, J.I., Variedades autóctonas de tomate del País Vasco. Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Arrantza Saila. Vitoria-Gasteiz, 2005

Casas, E., Conservación y uso de la biodiversidad cultivada en Cataluña. 2005. In Esporus. Centre de conservació de la biodiversitat cultivada. Interneten: <<http://www.esporus.org>>

Cendero, A.,2006. El sector agropecuario en el País Vasco. In Ingeba. Interneten: <<http://www.ingeba.euskalnet.net/liburua/cursosup/cendrero/cendrero.htm>>

Crowe, A.; A Field Guide to Native Edible Plants of New Zealand Godwit Press, New Zealand, 1997

Domínguez Gento, A., Conservación, caracterización y redistribución de variedades hortícolas tradicionales. Estación experimental Agraria de Carcaixent. Argitaratu gabe. Valencia, 2005

Domínguez, A.; Roselló, J.; Rodrigo, M. I.,. Tipificación y estudio productivo de diversas variedades tradicionales de tomate, calabaza y melón, cultivados con métodos ecológicos. SEAEren Nekazaritza Ekologikoaren III. Biltzarraren ponentzia. Argitaratu gabe. Valencia, 1999.

Euskalmet: Interneten:<<http://www.euskalmet.net>>

Eusko Jaurlaritza, EAEko nekazaritza eta basogintza antolatzeko lurraldearen arloko plana. Aurrerapena. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz, 2001

Eustat, Eskualdekako Datuen Bankua. Nekazaritza Zentsua, 1999. Populazio eta etxebizitza enrola, 2001. Interneten: http://www.eustat.es/bacod_e/html.>

García Lopez, F., Semillas autóctonas. Integral 97 zka. aldizkaria, pag 48-52. Barcelona 1997

Gaultier, F.L. Hortalizas, variedades tradicionales en peligro de extinción. In Natural aldizkaria. Madrid, 2003

Guillet, D.,. The seed of Kokopelly. La Presses de Provence. Avignon, 1999

Hortícola Alavesa, Catalogo de variedades. Hortícola Alavesa S.L.. Vitoria-Gasteiz, 1978.

Mancho Uriz, M.,. Conservación y mejora de variedades autóctonas de hortalizas. Sustrai aldizkaria 10. Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Arrantza Saila, Vitoria-Gasteiz, 1988

Maroto, J.V.,. Horticultura Herbácea especial. Mundi-Prensa argitaletxea. Madrid, 2002

Martins de Carvalho, H., Semillas, patrimonio del pueblo al servicio de la humanidad. Coordinadora Latinoamericana de Organizaciones del Campo. Quito, 2004.

Red de semillas "Resembrado e intercambiando". La nueva ley de semillas acogerá la gestión y protección de los recursos filogenéticos. Prentsa oharra. Sevilla, 2006

Rodríguez Entrena, M., 2004. Análisis de la situación actual de las variedades locales y la semilla ecológica.

Rosello i Oltra, J., Cómo obtener tus propias semillas. Manual para agricultores ecológicos. La Fertilidad de la Tierra argitaletxea. Tafalla, 2002.

Soloaga, A., Cabodevilla, J., Amenazar, R., Mantxo, M., Legorburu, F.J., Ruiz de Galarreta, J.I.,. Caracterización preliminar de variedades locales de alubia Gernikesa. Sustrae aldizkaria 41. Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Arrantza Saila, Vioria-Gasteiz, 1996

Tardio, J.; Pascual, H., eta Morales, R.,. Alimentos silvestres de Madrid. La librería argitaletxea. Madrid, 2002

Uria Irastorza, J., La sidra. Sendoa argitaldaria. Donostia, 1987

Wolfe, M., Agroecology: the Science of Sustainable Agriculture. 1985. Interneten: http://www.agroeco.org/doc/Bases_agroecologicas.htm